

# Jakin157

azaroa-abendua  
2006



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



ZENBAKI HONETAN

**7**

AGURRA

**9** Etorkizunari bere lekua  
ANDRES URRUTIA

*JAKIN* 50 URTE

**15** Urteurrenaren kronika laburra  
JAKIN

**23** Zuzendariaren agur hitzak  
JOAN MARI TORREALDAI

**29** Lehendakariaren agur hitzak  
JUAN JOSE IBARRETXE

IRITZI BILKETA

**35** *Jakin*: ekarpenak eta erronkak

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2006ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	9,50 €
KANPOAN		
Harpidetza	48 €	—
Ale arrunta	8 €	11 €

## S U M M A R Y



### **50 YEARS OF *JAKIN***

In honour of the 50th anniversary of *Jakin*, several commemorations were organized throughout the year. Also, several initiatives were taken to modernize and improve this magazine. A short report resumes this year's events: the tribute to the founders, the digitalisation of the magazine's archives, the renovation of the magazine, the promotion campaign in the media, the radio programmes, the round table talks at Koldo Mitxelena Kulturunea, the act of commemoration at the Miramar Jauregia, the documentary about the magazine's history, the Argizaiola Award of the Book Fair in Durango. In addition the speeches held by Joan Mari Torrealdai, director of the *Jakin*, and Juan Jose Ibarretxe, Prime Minister of the Basque Government, for the act of commemoration of the 50th anniversary, celebrated November 23rd at the Miramar Jauregia in San Sebastian.

### **OPINIONS ABOUT *JAKIN*: CONTRIBUTIONS AND CHALLENGES**

The magazine is dedicated to a large number of agents and specialists of the Basque culture, who have all contributed to the magazine at a certain moment, with their opinions about the past and the future of *Jakin*. It's not the first time that the magazine has sounded out public opinion about its philosophy, content, size... Sometimes it directed itself to readers and subscribers; sometimes, like right now, to the protagonists and experts in Basque culture. All crucial moments in its 50 year-old history: the first issue in 1956; in 1959, in the middle of discussion about the linguistic and cultural model; in 1964, after getting through the first ban, when the magazine began to open itself up to the secular and urban public; in 1976 in the middle of the redesigning of the magazine after Franco's death and seven years of prohibition; and in 1981, at the 25th anniversary. The two questions that came up in this survey revolve around main contributions of the *Jakin* during its 50 year history and the initiatives and projects that should be an impulse to face future challenges. **VARIOUS AUTHORS**



## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 157. zenbakia da eta 2006. urteko azkena.

2006 urtea ospakizun urtea izan da *Jakin*-entzat. Berezia izan da. Eta oparoa. Izan ere, hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu ditugu 50. urteurrenaren kariatara. Bestalde, aldizkaria bera hobetu eta modernotzeko zenbait ekimen eta egitasmo ere jarri ditugu abian. Kronika labur baten bidez ematen dugu urteurrenean zehar egindako guztiaren berri: Arantzazuri eta sortzaileei esker oneko omenaldia, aldizkariaren hemeroteka digitalizazioa, aldizkari eta webgunearen berrikuntzak, promozio eta harpidetza kanpaina, Euskadi Irratiko saioak, Euskal Herriaren 50eko hamarkadari buruzko mahai-inguruak, *Jakin*-en historia biltzen duen dokumentala, Miramar Jauregiko ekitaldi nagusia, Argizaiola Omen Saria.

Urteko ekitaldi sozial nagusia Donostiako Miramar Jauregian ospatu zen azaroaren 23an. Ekitaldi horretan, Joan Mari Torrealda *Jakin*-eko zuzendariak eta Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak hartu zuten hitza. Urteurrenari buruzko kronikatxoaren ondoren, bi hitzaldiak datoz. Joan Mari Torrealdaik aldizkariaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruz egiten du gogoeta. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak *Jakin*-en lan eskerga txalotzen du.

50 urte betetzeak atzera begira jarri gaitu, zalantzarik gabe. Iraganari begiratu diogu, iraganari memoria emateko. Baina ez dugu hor geratu nahi izan: gure egitekoa, orain, geroa lantzea da. *Jakin*-ek euskal kultura-ren esparruan bete behar duen lekua birpentsatzea eta berrasmatea.

Bidea prestatzen hasteko, hainbat lankide aditurengana jo dugu iritzi eske. Aldizkariaren iraganari ez ezik, etorkizunari buruz ere galdetu diegu horiei guztiei.

*Jakin*-i buruz —aldizkariaren ikuspuntua, filosofia, edukiak, forma-tua...— iritzia jaso nahian «kanpora» jotzeko erabaki honek aurrekari

ugari ditu aldizkariaren historian. Batzuetan, irakurle eta harpidedunei eskatu zaie iritzia; bestetan, oraingo honetan legez, lankide eta adituei. Beti ere, *Jakin*-en historiaren une esanguratsutan: 1956ko lehen zenbakian; 1959an, hizkuntz eta kultur ereduari buruzko eztabaida biziaren erdian; 1964an, hiru urteko debekualdia gaindituta, aldizkaria laiko eta hiritar bilakatzen hasi zenean; 1976an, Francoren heriotzaren eta zazpi urteko debekualdiaren ondoren, *Jakin*-en aro berria taxutzen eta diseinatzen ari zenean; eta, 1981ean, zilarrezko urteurrena zela-eta.

Iritzi-emaileei aldizkariaren iraganari eta etorkizunari buruzko balorazioa eta gogoeta eskatu diegu, hau da, *Jakin*-en ekarpen eta erronkei buruzko iritzia. Halakoetan sarritan gertatzen da, baita oraingoan ere: ez ditugu jaso guk nahi genituen erantzun guztiak. Hirurogeita hamabost bat lagunei bidali dizkiegu gure galderak; azkenean, hogeita hamar erantzun jaso ditugu. Badira erantzun mamitsuak, aberatsak, iradokitzaileak, batzuetan elkarren artean kontrajarriak, baina nolana ere guzti-guztiak baliagarriak aurrerako bidea itxuratzen hasteko. ¶



## Etorkizunari bere lekua

Mende-erdi joan da *Jakin* aldizkariaren biografian Arantzazuko fraide gazte batzuek, euskal aditz ezagun horren bidez, euskarazko aldizkari berria izendatu zutenetik.

Gertaera hura izan du eskura *Jakin* aldizkariaren irakurleak urtean zehar. Aipa dezadan, bereziki, aurreko zenbakian Joseba Intxausti eragileak jarritako goiburua: *Iraganari bere memoria*. Har dezadan lelo hori, eta joan nadin aldiaren beste muturrera, giza bizitzaren hari meheak lotzen dituen bi horiek adierazteko, hau da, joanarekin batera, etortzekoa dena aintzat hartzeko. Hortaz, eman diezaiodan etorkizunari beraren lekua *Jakin*-en bizibidean, ez aztiaren asmaketaz, ezta prospektibaren zehaztasunaz, baizik eta euskalgintzak izan ditzakeen agiantza eta errealitateen bidez.

Zer eskatu beharko genioke, hogeita batgarren mende hasieran, euskaraz ondutako kultur aldizkari bati? Horixe izango litzateke lehen galdera. Bigarrena ere, aurrekoaren osagarri: zertan lagun dezakegu halako proiektua aurrera ateratzeko?

Hasteko, *Jakin*-i eskatu beharko diogu beraren historiarekin leial izatea, historia horretan ikusten baititugu ahalegin berebizikoak, gogoeta-gaiak eta euskararen normalizazioa uztartzeko, euskal kultura berri eta garaikide baten bila abiarazte-

ko asmoz. Hori ere beharrezkoa izango zaigu etorkizunean, kultura hitza letra larriz idatzi behar bada, euskararen eta Euskal Herriaren ikuspegitik.

Hor dago, besteak beste, *Jakin*-ek euskararen normalizazio-bidean hartutako erabakia, Euskaltzaindiak bultzatu euskara baturaren aldekoa. Beste behin ere, *Jakin*-i eskatu beharko diogu zin hura berrizta eta lan egin dezan, aldizkariaren bidez, euskara batu hori eduki berrien eramaile eta adierazpide egoki dela frogatzeko.

Hasian hasi, *Jakin*-i galdatu beharko diogu, beraren nortasunari muzinik egin gabe, aurrera egiteko pausoak eman eta teknika berrien aukerak erabil ditzan, hala nola, sarea ez ezik, osagai grafikoak nahiz bestelakoak, ikus-entzunezkoak eta abarrekoak, hortxe daudelako euskarri berri-berriak, ate joka ari zaizkigunak.

*Jakin*-ek ere, menturaz, izan beharko du bere inguruan ari diren antzeko argitalpenen berri, horietatik zer ikasi behar duen zehazteko eta moldatzeko. Hartu-emanek gero eta garrantzi handiagoa duten mundu honetan, *Jakin*-en etorkizuna ere jokoan dago, euskararen bidez kultura jakin baten sortzaille egokia izan nahi badu.

Zeregin horretan, igarri-igarrian, badira oinarritzko osagaiak: aurrena, giza taldearena, egun *Jakin* aldizkariaren ardura duena eta bere burua etengabe prestatzen eta moldatzen ari dena, ahalik eta modurik profesionalenean eskabide berriei aurrea egiteko; hurrena, gaiak eta esparruak zabaltzea, aldi oro ari direlako agertzen kezka berriak euskal kulturaren plazara, bertakoak nahiz kanpokoak izan; azkenean ere, ekonomiaren inguruko baldintza eta oztopoak arreta handiarekin aztertu beharko dira, *Jakin* aldizkariaren bideragarritasun ekonomikoa izan dadin haren bermerik indartsuena etorkizuneko ibilbidean.

Hiru horietan fede handia jarri arren, zalantzarik ñimiñoena ere ez dut, *Jakin* taldeak bere barruan baduela horiei heltzeko adore eta kemen nahikoa. Natorren, beraz, bigarren arlor, *Jakin* moduko kultura-ekimena zertan lagun dezakegun azaltzeko.

Premiazkoa al du euskal kulturak halako aldizkaria? Premiazkoak ote dira halako giza talde eragileak, euskal kultura aurrera eramaten dutenak? Ez al dira egun beste bide batzuk, ondo antolatuak eta diruz ondo hornituak, lan bera egin dezaketenak? Horraino galderak. Nire ustez, 50 urte geroago, *Jakin* aldizkaria, euskal kulturaren bilgunea, ezinbesteko zaigu euskalgintzan ari garenoi. Ez soil-soilean gazteago ginen garaien oroi minez, ezpada aldiotako eskabideen aurrean, gizarteak egunero begi-bistan jartzen dizkigun dema horien aurrean erantzun egokia, berezkoa eta ikuspegi askotakoa emateko, euskarazko pentsamendu-lerro propio batzuen bidez.

*Jakin* izan da, eta *Jakin*-ek izan behar du, aurrerantzean ere, gu guztion laguntzarekin, aspaldian jaso zuen banderaren jarraitzailea, goi mailako eta kalitate handiko euskarazko kultura-bultzatzailea eta bide-egilea.

*Iraganari bere memoria; etorkizunari bere lekua.*

Horra egitekoa; horra *Jakin* aldizkariarentzako programa.

# *Jakin* 50 urte

**15** Urteurrenaren kronika laburra  
**JAKIN**

**23** Zuzendariaren agur hitzak  
**JOAN MARI TORREALDAI**

**29** Lehendakariaren agur hitzak  
**JUAN JOSE IBARRETXE**

# Urteurrenaren kronika laburra

## Sarreratxoa

Abenduaren talaiatik urteari begiratuta, urteurrena mardula izan delakoan gaude. «Zarata» pixka bat atera dugu, atera dugunez, *Jakin* ezagutzera eman dugu. Esan gabe doa etorkizunari begira indarberriturik atera garela, arnasberrituta.

Zarata (pixka bat bada ere) ateratzea ez da huskeria. Burrenba handia dago auzoan eta etxean, eta horren barruan kultura bigarren mailako zera da. Kulturaren barruan idatzia bigarren mailakoa da. Kultura idatziaren barruan, kultur aldizkariak bigarren mailakoak dira. Nola nahi da, orduan, kultur aldizkari batek oihartzuna izatea? Zaila da, ia ezina. Harrotasun puntu batekin esan dezakegu, guk zertxobait bederen lortu dugula oraingoan, 50 urte igaro behar izan badugu ere...

Egia da urtearen hasieran diseinu honek utopikoa ematen zuela. Nola lortu presentzia sozial esanguratsua dirurik gabe? Horixe zen gure erronka. Joko arauak? Lana, lana, eta lana, lan-taldearen entrega, dedikazioa, ilusioa. Eta bigarren urrezko araua, lehenaren parekoa: auzoko eragile kulturalen inplikazioa, konplizitatea. Konplize eta eskuzabal izan ditu-

gu hedabideak, handi eta txiki, nazional eta lekuko, maiztasun handiko eta txikiko; konplize eskuzabal izan ditugu hainbat elkarte eta erakunde eta makina bat eragile sozial. Horiei guztiei esker erdietsi ahal izan dugu lortu dugun oihartzuna; ez gure indar soilez.

Egutegiaren aldetik bi urte sasoitan banatu ditugu ekin-tzak eta lanak, udaberria eta udazkena.

Udaberrian bitan agertu ginen jendaurrean: Arantzazun sortzaileei omenaldia egin genienean, eta Gipuzkoako Foru Aldundian hemeroteca digitalizatua plazaratu genuenean.

Udazkena are beteagoa izan dugu: harpidetza kanpaina, Euskadi Irratiko saioak, 50eko hamarkadari buruzko mahai inguruak, Miramarko ekitaldi nagusia, *Jakin*-en historiaz dokumentala, Gerediaga Elkartearen Argizaiola Omen Saria.

Zehaztasun gehixeagoz jantzita azalduko dugu segidan urteurren honek eman duena.

## Arantzazuri eta sortzaileei esker ona

Maiatzaren 19an bildu ginen Arantzazun *Jakin*-en zuzendaritzan ibiliak garen belaunaldi guztiak. Sortzaileengandik hasita gaurko lan-talde bitartekoak. 50 bat lagun. Ekitaldiak bi zati zituen: esker oneko ekitaldia eta lagunarteko bazkaria. Hauxe izan zen urteurrenari hasiera emateko unea ere. Horretarako deitu genuen prentsa.

Omenaldi bat bera bitan banatua izan zela esan daiteke, omenaldia Arantzazuri eta omenaldia sortzaileei. Omenaldia jasotzera euskal frantziskotarren arduradun nagusia etorri zen. Berari eskaini zion *Jakin*-ek aldizkariaren bilduma osoa eta bere aurrean kendu zitzaion zapia esker oneko plakari. Honela dio Gandiaga Topagunean *Jakin*-ek jarri zuen plakak: «*Jakin* Arantzazun sortu zen 1956an. Esker onez, *JAKIN*». Joxe Azurmendik adierazi zuen hitzez ekitaldiaren zentzua:

Hemen jaio zen *Jakin* orain berrogeita hamar urte, eta hementxe Arantzazun ematen diogu hasiera urteurrenari: eskerrak emanaz Arantzazuri.

Guretzat ohore bat da, baina batez ere poz bat da, behin bederen Arantzazuko fraideei eskerrak ematea honela, ofizialki samar, denok elkartuta.

Sortzaileei eskaini genien omenaldiaren txanda izan zen jarraian, Gandiaga Topaguneko areto batean. Sortzaileen merituak Joseba Intxaustik goraipatu zituen, garai hartako giroa gogoratzeaz gainera:

Sortzaileen meritua izan zen, lan egiteaz gain, egokiera ongi hautatzea, Ikastegien arteko bateragiletza eramatea eta kudeatzaile-taldea egin eta berorri segida ematea.

Oroigarri bana eman zitzaion, bertan ziren Pernando Mendizabal eta Iñaki Bereziartua sortzaileei, eta laguntzaile ibilitako Imanol Urbietari, eta bertaratzerik izan ez zuen Iñaki Bastarririkari. Honek New Jerseytik bidali zigun mezua irakurri zuen Joan Mari Torrealdaik:

Gaur, guk ereindako hazi ttipia, zuen lanari eta izerdiari eskerrak, zuhaitz eder eta sendo bat bihurtu zaigu.

## Aldizkariaren hemeroteka digitalizatua

Urteurreneko bigarren ekitaldi publikoa *Jakin* aldikariaren digitalizazioaren gizarteratzea izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi Aretoan egin zuen aurkezpena Joan Mari Torrealdaik, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Ahaldun Nagusia alboan eta euskaltzale multzoa eta prentsa aurrean zituela. Lan eskerga hori bulegoan geure artean burutua izan da, Plazagunearen laguntza teknikoarekin.

Ez lana eta ez zerbitzua dira nolana hikoak. Nornahiren eskura utzi dugu aldizkariaren altxor guztia: 202 zenbakiak, 2.400 lankidetzak, 60.000.000 karaktere. Edukiak lau modu desberdinetan sailkatuta daude: urtearen arabera, autorearen arabera, artikulua izenburuaren arabera eta gaiaren arabera. Eduki horietara iristeko bilatzailea ere badago bertan. Tresna horren bidez kontzeptu edo terminoak bila daitezke, zenbaki, autore eta gaien arabera.

*Jakin* aldizkariaren hemeroteka hau sarean jarri dugu: gure webgunean kokatuta dago ([www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)).

DVD formatuan ere edizio txiki bat egin dugu gure harpideduntzat: harpidedun zaharrei leialtasuna saritzeko eta harpidedun berriei ongi etorria opatzeko banatu diegu.

## Aldizkari eta webgunearen berrikuntzak

Aldizkariari *lifting*-a egin diogu urte berriarekin batera. Azala berritu diogu, eta aurpegiaz gainera barrua. Logoa, papera, orritartekoak, letra mota, barruko diseinua aldatu ditugu, Borja Goitiaren maisutasunari esker: arinagoa da orain, ikusgarriagoa, argiagoa, erakargarriagoa. Aldizkariak modernotasun eta irakurgarritasunean irabazi duelakoan gaude.

Edukiari buruzko aldaketarik apenas egin dugun. Urteroko liburu zerrenda webgunera eraman dugu; hori bai, zerrenda bakarrik, liburuen azterketa aldizkarian gelditzen baita.

Webgunea, bestalde, aldatu dugu, baina ez behin betiko. Aldaketa gehiago egin behar diogu etorkizunean, formatuz eta kontzeptuz. Aberastu. Oraingo aldaketaldian urteko liburuen zerrenda hori erantsi diogu, bateko; eta batez ere, hemeroteka osoa jarri dugu bertan, esan dugun bezala bilatzaile indartsu eta guzti.

## Promozio kanpaina

Han eta hemen ikusiaren poderioz nahikoa ezagunak egin dira kanpainako leloa eta irudia. *Haizea dakiten orriak* dio leloak. «Haizea jakitea» zer den jakin gabe ere, esanguratsua da leloa: iraupena, jakituria eta modernotasuna adieraz ditzake, bestela esan, haizea nondik datorren eta nora doan dakielako dagoke bizirik *Jakin*. Koldo Izagirreri zor diogu leloa. Lelo hori lagunduz ibili den irudia, hizkiz osaturiko adar eta hostoz eraturikoa alegia, Borja Goitiak landu du. Irudi bizia, udaberriak bezala berritasuna eta gaztetasuna adierazten duela esan daiteke.

Presentzia mediatikoaz harago kanpainak harpidedun berriak inguratu nahi izan ditu. Iragarri enpresaren bidez hain-



bat etxetan sartu da aldizkariaren eskaintza. Uzta ona eman digu: irakurle gehiagorekin abiatzen gara 51. urtean. Eta ez da hori bakarrik. Gutxienez bi konbikzio indartu dizkigu: bat, jendearenganaino iritsiz gero euskaltzaleak erantzun egiten duela; eta bi, guk eta besteok daukagun arazorik larrienetakoa «ikusezintasuna» dela, hau da, gure berri ez duela inork gizarteko bizitzan.

Gure proiektua gizarteratu ahal izateko egundoko laguntza eman digute hedabideek, berriz diogu. Doan edota eskuzabal eman digute beretik. Euren konplizitateari esker mila tokitan egon gara, izan plaza, izan txoko: euskal telebistan, irratietan, egunkarietan, aldizkarietan, herrietako komunikabideetan.

## Euskadi Irratiko «Jakingunea»

Bi «Jakingune» izan ditugu Euskadi Irratian, elkar osagarri. Hamar programa bakoitzeko, gai bera bietan, baina tratamendu desberdinarekin. Goiz erdian ordu laurden batez aurkezten genuen gaia. Eta gai bera, modu lasai eta sakonagoan, ematen genuen iluntzetan, ordubeteko mahai-inguru gisa.

Zer lortu nahi izan den formula bikoitz honekin? Historian zehar, 50 urteotan, aldizkarian erabili diren gai nagusi batzuen berri ematea, belaunaldi berriei garaian garaiko arazoak plazaratzea, gaion orduko giroa eta balizko gaurkotasuna agertuz, eta hori guztia protagonisten ahotik. Gai batzuk gaurkotasun betekoak dira, beste batzuk iraganekoak: hauek eta haiek izan ditugu solasgai, hala nola, euskararen eredu gerra, euskararen normalizazioa, «zergatik eta zertarako euskaldun» polemika hura, sozialismo eta abertzaletasunaren arteko tirabirak Rikardo Arregi eta Txillardegiren artean, entziklopediagintza, euskal unibertsitatea, Guggenheim eta kultur politika, euskal prentsaren auzia, telebista lokalak, tesliburuak eta euskal curriculumak.

Hamar mahai-inguru hauetako partaideak bere momentuan aldizkariko orrietan gaia jorratu duten berak dira: Txi-

llardegi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti, Joseba Zulaika, Pruden Gartzia, Lore Erriondo, Xabier Isasi, Inaki Irazabalbeitia, Laura Mintegi, Iñaki Uria, Patxi Azpillaga, Beatriz Narbaiza, Andoni Sagarna, Paulo Agirrebaltzategi, Xabier Garagorri, Olatz Osa, eta beste.

Marian Beitialarrangoitia kazetariak, eta Joan Mari Torrealdai, erdi-kazetari erdi-solaskide, goizeko eta arratsaldeko emanaldi guztietan esku hartu dute.

## Euskal Herriaren 50eko hamarkada aztergai

Hiru mahai-inguru antolatu ditugu Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, azaroaren 7, 8 eta 9an. Asmoa? Gutxi-egi ezagutzen den 50eko hamarkadaren berri ematea, hizkuntzan eta kulturaren bezala politikan eta gizarte bizitzan, erbeste eta klandestinitatea tarteko.

Aurreneko eguneko solasgaia hizkuntza eta kultura izan ziren, *Jakin*-ekin batera. Joseba Intxausti eta Joxe Azurmendik jorratu zuten gaia, Joan Mari Torrealdaireren gidaritzapean. Bigarren eta hirugarren mahai-inguruak Paulo Agirrebaltzategi gidatu zituen. Bigarren egunean, hamarkadako bizitza politikoaren gorabeherak izan zituzten mintzagai Mikel Aizpuru, Mikel Aramendi, Emilio Lopez Adan eta Xabier Itzainak: erbeste, frankismoa, oposizio antifrankista, ETaren sorrera, Gerra Hotza, eliz mugimenduak. Hirugarren eguneko solasgaia ekonomia eta gizarte ziren, eta horien barruan immigrazioa eta langileria. Baleren Bakaikoa, Xabier Aierdi eta Emilio Majuelo aritu ziren gaia azaltzen.

Hurrengo zenbakietan agertuko dira Koldo Mitxelena Kulturunean esandakoak.

## *Jakin*-en historia dokumentalean

Aldizkariaren emaitzak digitalizatzearekin batera pentsatu genuen egoki zitekeela idatzizko historia hori protagonisten ahozko bertsioarekin osatzea. Sortzaile eta zuzendari

denak bizirik eta eskura izanik, «memoria bizi» hori bildu eta gorde behar genuen. Hasiera batean *Jakin*-en historia osoa zehatz eta mehatz biltzea amestu genuen: aldizkaria, aldizkariak kanpoko emaitzak eta produktuak, Jakin taldearen eta Jakinkideen ibilerak. Asmoak luzeak eta diruak motzak izan, ordea. Azkenean, aldizkari soilaren historia bildu dugu, eta laburrean. Koldo Izagirrearen gidoiarekin eta beronen zuzendaritzapean, Diapolan-ek egin du dokumentala.

20 minutuko dokumental honetan protagonista batzuen elkarrizketa-puskak agertzen dira: Iñaki Bereziartua, Joseba Intxausti, Kepa Enbeita, Joxe Azurmendi eta Joan Mari Torrealdai.

## Miramarko ekitaldi nagusia

Urteurreneko ekitaldi sozial nagusia Donostiako Miramar Jauregian ospatu genuen azaroaren 23an. 200 bat lagun bildu zen bertan, euskalgintzatik, kulturaren mundutik, unibertsitatetik, noski, baina baita sindikatuetatik, politikatik eta erakundeetatik ere ugari. Pozgarria izan zen guretzat: jende asko, eta askotarikoa, kolore ugari, sektore eta esparru askotako ordezkariak, eta Euskal Herri osokoak.

Ekitaldia Garikoitz Udabe kazetariak aurkeztu zuen eta bertan mintzatu ziren Joan Mari Torrealdai eta EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxe. Lehendakariak *Jakin*-en lan eskerga txalotu zuen. Ekitaldi berean *Jakin*-en historia laburbiltzen duen dokumentala proiektatu zen.

Zenbaki honetan datoz, kronika honen ondoren, Joan Mari Torrealdai eta Juan Jose Ibarretxeren hitzak.

## Argizaiola Omen Saria

Durangoko Liburu eta Diskoen Azokaren baitan, Gerediaga Elkarteak *Jakin* aldizkariari eman dio Argizaiola Saria abenduaren 7an. «Gauean argi» izan garela eta. Gerediagak Jakin taldeari eskertu nahi izan dio garai txarretan aldizka-

riari eustea, gauean argi egitea, argi hori iraunaraztea. Hone-la dio Argizaiolak: «JAKIN taldeari gau beltzean argia irau-narazteagatik ‘Durangoko Argizaiola Omen Saria 2006’».

Eta *Jakin*-ek, zertan esanik ez da, bihotz onez eta esker han-diz jaso du saria. Biziki eskertu dio aitordia, errekonozimendua, omena. Sari emailea Gerediaga izateak, gainera, ba-lio erantsia ematen dio sariari, kultur elkarte delako emaile eta elkarrekin egon direlako biak Liburu Azokaren historia osoan.

*Jakin*-ek bere aldetik txalo jo zion Gerediagari 41 urtez ja-rraian Azoka antolatzeagatik.

## Etorkizuna eginkizun

Ukaezina da 50 urte betetzeak atzera begira jartzen gai-tuela. Halaxe egin du *Jakin*-ek ere urteurrenaren kariatz. Ga-rai zailtako pasarteak gogoratu ditugu, nola jokatu ikasi dugu, independentzia nola elikatu ikusi dugu, *haizea daki-ten orriak* direla gureak esan digute.

Iraganari begiratu diogu bakoitzari berea emateko, iraga-nari memoria. Baina ez gara iraganean gelditu. Iragan hori belaunaldi berrien zerbitzura jarri dugu, garai haiek azal-duz eta urte luzeetako emaitzak sarean jarriz.

Gure egitekoa, orain, geroa lantzea da. Dagoeneko pen-tsatzen hasita gaude hemendik aurrera *Jakin*-ek zein leku izan behar duen euskal kulturaren. Iritzi bilketa egin dugu *Jakin*-eko hainbat lankide adituren artean. Hogeita hamarrek erantzun digute. Badaukagu nondik hasi. Erantzun balios eta aberats ugari jaso dugu, inoiz kontrajarriak geroari bu-ruz, guzti-guztiak baliagarriak bidean abiatzeko. Aurreran-tzean ere jarraituko dugu iritziak eskatzen, kontsultak egi-ten, auzoetako aldizkariak aztertzen. Eta, noski, erabakiak hartzen, *Jakin* euskal kulturako aldizkari erreferentea izan dadin datozen 50 urteotan.¶

# Zuzendariaren agur hitzak

JOAN MARI TORREALDAI

Lehendakari jauna, jaun-andreok: ongi etorri. Eta eskerrik asko.

Holakoetan, urrezko ezteietan-eta, nahi ezta ere, denborari, historiari, bere hiru dimentsioetan begiratzen zaio. Guk ere horrelaxe begiratu diogu:

- Iraganari, eskerrak emateko.
- Orainari, eguna ospatzeko.
- Etorkizunari, amets egiteko, eta proiektuak pentsatzeko.

## IRAGANA, eskerrak emateko

Gizakia abere historikoa da: belaunaldiz belaunaldi ikasitakoa gorde, pilatu, eta aprobe txatu egiten duen abere bakarra da. Eta hori da kultura esaten duguna. 50 urteotan ikasitakoa gorde, metatu eta baliatuz sortu den jakintza da euskal kultura modernoa.

50 urte, urte asko da gurea bezalako esperientzia batentzat: aldizkari txiki bat kultura txiki batean; gainera, zentsura, me-

hatxu eta zailtasun politiko, eta arazo ekonomiko amaigabe artean.

50 urteotan *Jakin* behin eta berriz berrasi da, berrantolatu da, berrasmatu behar izan dugu bizpahiru aldiz, esaterako, 1967ko krisiaren ondoren edo 1977an debekualdi luzearen ostean. Guztietan harrigarriena hasierako hura gertatzen zait niri, nola asmatu zuten euskara ereduarekin eta aldizkari ereduarekin. Kultura, kultura modernoa, euskararentzat errebindikatu zuten. Errebindikazio hau bitan banatua zectorren: bat, euskara hizkuntza modernoa da eta erabilera-lehentasuna duena da (garaiko elite intelektualentzat erdara zen nagusi; garaiko abertzaletasunean politikaren atzetik zectorren euskara; eta frankismoaren hizkuntza politikak espreski ukatzen zuen euskararen estatus kulturala); hori batetik, eta bestetik hau: kultura modernoa, gai guzti-guztiak euskaraz erabiltzetik dator euskararen salbamendua, bestela esanda, unibertsitatea du amets *Jakin*-ek 60ko hamarkada orduko.

1956ko Arantzazutik gaurdainoko bidea, bide luzea da.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu 50 urteotan *Jakin* bizirik mantentzea posible egin duzuen guztioi, hemen zaudeteno, eta etorri ezin izan dutenei ere: sortzaileak, lankideak, harpidedunak... *Jakin*-ek, gaurko egun honetara ailegatu ahal izateko, jende askoren laguntza behar izan du, eta hala izan du.

Sortzaileez gainera *Jakin*-en zuzendaritzan 50 bat lagun ibili izan da 50 urteotan, elkarrekiko lotura bakarrarekin: euskara eta euskal kulturaren aldeko proiektu hauxe. Urterik gehienak ekipo gisa eman ditugu, lan-talde irekian. Bi adieratan da irekia taldea: batetik, gutako bakoitza euskalgintza edo kulturgintzako esparru gehiagotan egon garelako; eta bestetik, taldez kanpoko jendearekin batera egin dugulako lan lehen ordutik hona.

*Jakin*-en bidea ez da soilki gurea, euskalgintzarena da, euskalgintzarekin eskuz esku egin duguna: horra mila lankide, horra milaka harpidedun eta irakurle leial.

*Jakin* euskal kulturaren ibilbide orria da, zinez.

## GAUR, eguna ospatzeko

Egungo festa honetan ez dugu *Jakin*-en bidea bakarrik ospatu nahi, euskalgintza osoarena baizik.

Zer ospatzen dugun? Euskal kulturaren garapena, euskaren garapena. Boteila erdi beteari begiratzeko eguna da. Aukera galduen erosta jotzea biharko utziko dugu. Ez?

1956an Euskaltzaindiak Euskaltzaleen Biltzarra Arantzazun egin zuenean, euskalgintzako kide guztiak gela batean sartu ziren. Gaur milaka eta milaka lagun gara.

1956an 30 bat liburu argitaratu zen euskaraz. Gaur ia 2.000 dira.

*Jakin* sortu zutenean, apenas zegoen euskararik aldizkarietan, euskarak ez zuen egunkaririk, ez zuen irratarik, ez zuen telebistarik. Gaur bai.

1956an *Jakin*-ek bere barruko erabilerarako ortografia arautuz hasi behar izan zuen. Kultur hizkuntzak zein eredu izan eztabaidatuz hasi behar izan zuen. Gaur, euskara estandar batu, normalizatu, kaletar bat, hau da, hedabidetar eta akademiko moderno bat badaukagula ospatzen dugu.

Gehiago: hizkuntzaren batasunaz gainera, kulturgintzaren batasuna ospatu dezakegu. *Jakin*-en bokazioa, sortu zen beretik, sail, ideologia, talde ezberdinetako kideen lankidetzako elkargunea izatea da. Guztiok elkarri eragiten, laguntzen diogu. Eta beste alor batzuetan baino gehiago, euskal kulturaren uste dut hori bilatzen eta aurkitzen dugula. Edo *Jakin*-en behintzat bai. Inork ez digu ezetz esan, denek lagundu izan digute, denetariko lankideak izan ditugu eta ditugu. Eta batasun hau eskertzen, eta ospatzen dugu.

1956ko utopia edo amets haietatik gauzatu ahal izan duguna ospatzen dugu gaur hemen.

## ETORKIZUNA, amets egiten jarraitzeko, proiektuak pentsatzeko

Haizea dakiten orriak omen dira *Jakin*-ekoak. Hala dio urteurreneko leloak. Haizearen norakoa jakin badakitelako. Haizeak ez daramatzalako.

Haize berriek nondik jotzen duten asmatzea dagokigu orain. Haizea haizete bilakatu al zaigu?: internet, globalizazioa, merkatu jainko bihurtua. Ematen du txikiarentzat ez dela lekurik mundu globalizatuan: txiki hori izan aldizkaria, izan hizkuntza, izan kultura, edo herria izan.

Hala ematen du itxura batean, baina ez da. Txikia, polita izango da ala ez da izango, baina batez ere beharrezkoa da orekarako, erroa da, amaren etxea da.

Iragana bezainbesteko etorkizun arrakastatsuan pentsatzen hasita gaude. Etxe barruan eta kanpoan. Euskal kulturgintzako hainbat eragileri galdetu diogu nola irudikatzen duten aldizkariaren etorkizuna. Horietako batzuen erantzunak azken zenbakian argitaratuko ditugu. Gaietan zer, euskarrietan nola, galdetu diegu.

*Jakin*-en, aldizkaria birpentsatu behar izan dugun une guztietan jo izan dugu taldetik kanpora, hala nola, 1959an nondik nora jo behar zuen aldizkariak gaietan eta euskarara kontutan galdezka (Jose Antonio Agirre lehendakariak ere erantzun zigun); 1976an, bigarren aldia diseinatzeko orduan; eta orain, 50 urte eta gero.

Ez dakit formula asmatuko dugun. Filosofian seguru nago baietz. Lehenengo asmoa, guztiena izaten jarraitzea da. *Jakin* ez da alderdiren batena: ez da inorena, horregatik guztiena da. Jende biltzaile, ideien eta mugimenduen pluralismoaren egiazko ispilu eta plataforma. Gure asmoa ez da lasterketa txiki bat lagun artean abiada handian egin eta erretiratzea. Guk maratonia korritu nahi dugu, euskararen herri guztiarekin batera korritu nahi dugu. Horregatik, inpartziala, baina konprometitua; konprometitua bai, baina independentea, izan nahi du *Jakin*-ek.



Ospakizunon urtearen hasieran idatzitakoa berresanez buka nezake nire agur hau:

*Jakin* berria ere plataforma irekia izango da sektarismo guztien gaineratik, anitza izango da pentsamendu bakar eta begi bakarrekoeetatik aparte; indar bateratzailea; eta autonomia, kulturaren autonomia berezko balioa delako guretzat. Euskaltzalea izango da, noski, esan nahi baita euskara dela gure aberria.

Eskerrik asko.¶

*Donostia, 2006-11-23*

# Lehendakariaren agur hitzak

JUAN JOSE IBARRETXE

Nik esan nahi dizuet lehenengo eta behin —barrutik atera-  
ta prestatu ditut hitz batzuk eta irakurriko ditut, baina lehe-  
nengo eta behin esan nahi dizuet— hona etorri naizela batez  
ere zuei —*Jakin*-en langileei, lan egin dutenei eta lanean zare-  
tenoi— omenaldi txiki bat egitera. Zergatik? Bada begi-bistan  
dago azken berrogeita hamar urteotan egin duzuen lana lan  
titanikoa izan dela, eta zentzu honetan jakin behar duzue be-  
ne-benetan euskaldunok harro sentitzen garela zuek eginda-  
koarekin eta batez ere emandako ereduarekin.

Hortik aurrera nire hitzak.

Euskarak duen poetarik sakon eta borobilenetako batek, Xa-  
bier Letek, idatzia du bere *Izarren hautsa* poeman: «Gizakien  
lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea». Kate horretan eman  
ditu bere lehen berrogeita hamar urteak *Jakin* aldizkariak, go-  
goeta, hausnarketa, ikerketa eta kulturgintza xede dituen al-  
dizkari honek.

Asko aldatu da Euskal Herria azken mende erdi honetan,  
agian lehenagoko bizpahiru gizaldietan baino gehiago: gizar-  
tea, ohiturak, bizimodua, kultura, ekonomia, hiriak eta herriak,

euskara bera, aldatu egin dira. Eraldaketa ez da beti erraza izan, eta tentsioak hor izan ditugu, eta ondorioak ere. Jakin badakigu aldaketa etengabekoa dela; hau geldiezina dela eta honek ez duela amaierarik, ezin duela amaierarik izan eta horretan egokitzen jakitea dela garrantzitsuena. Besteak beste Joxe Mari Arizmendiarretak zihoen hura lege baita: «bizitasunaren ezaugarria ez da irautea, berritzea eta egokitzea baizik».

Eraldaketa honetan guztian *Jakin* aldizkaria hausnarketarako plaza izan dugu. Gerraondoko lehen belaunaldi gazte eskolatu eta euskaltzaleak egin zuen plaza hau; hor eta horren bitartez azaldu zituen bere kezak, eta hor plazaratu dira berrogeita hamar urte hauetan asmoak, gogoak, ideiak eta kultur proiektuak.

*Jakin*-ek euskal kulturaren modernitate eskubide eta gogoia aldarrikatu ditu hasiera-hasieratik, hizkeran bezala edukietan ere, berehalako premietara egokitu nahirik eta esparru horiek landuz. Hasieran luberriak zirenak, eta ondoren lur emankor izan ditugun irakaskuntzaren alorra, hedabideena, gogoeta modernoarena eta beste asko landu dira bere zenbakietan. Xabier Leteren poemarekin jarraituz: «amets eroak bazterturi-kan, sasi zikinak behingoz erreta, bide on bat aukeratzen». Horrelaxe lagundu du *Jakin*-ek bere mende Erdiko ibilbidean.

Euskara biziberritzeko ahalegina eta erantzukizuna gurea da, bai, inorena baldin bada. Horrela ikusi zuten *Jakin* abian jarri zutenek eta horretan aritu dira. Pentsamendu eta komunikazio tresna gero eta eraginkorragoa bilakatzea da orain, atzo bezala, gure erronka; dema horretan bizi gara Euskal Herrian, eta hori jorratu du urte luze hauetan *Jakin*-ek.

*Jakin*-ek paper guztiz garrantzitsua jokatu du, bestalde, euskararen batasunean. Gogoeta leku, elkargune eta akuilu izan dugu kultur aldizkaria mende erdi honetan, gure herriak egin duen aurrerabide itzel honetan, non euskarak denbora oso laburrean burutu duen estandarizazioaren bidea.

Gaur arte, belaunaldiz belaunaldi egokituz, gurerraino iritsi den kultura eta hizkuntza zahar honek ere, euskarak, ezinbestekoa izan du biziberritzea, etorkizuneko soinekoa janztea alegia. Horretan asmatzea izan da erronka eta izango dugu etor-

kizunean ere erronka. Hori egoki gainditzeko gogoeta eta hausnarketa ezinbestekoa da, eta hor atzo bezala bihar ere *Jakin* lagun izango dugu.


Euskaldunok, industria-ekonomian, ekipo ondasunak, bitarteko ondasunak, ondasun eraldatuak eta kontsumoko ondasun iraunkorrak ekoizten eraginkorrak izaten jakin dugu orain arte. Orain, geroari begira, lehenagoko horiek ahaztu gabe, beste arlo ezinbesteko batzuetan egin behar dugu lan: ondasun ukiezinak, zerbitzuak, markak, eskubideak, jakintzak, etengabeko prestakuntza, kultur aktibo ukiezinak, eta nola ez, marketina. Horra hor ezinbestean landu beharreko arloak. Horiek dira gaurko balio erantsiak. Gaur, industria ondoko gairiotan, kultur baliabideak ohiko lehengaien lekua hartzen ari dira, gizarte aurreratuetako garapen ekonomikoaren aktibotza. Une hauetan, jakintza, sormena eta diseinua balio erantsia sortzen duten gaiak dira, lehiakortasunari laguntzen diotenak beste faktore batzuek bezainbeste. Eta etorkizuneko bide honetan guztian kultur aldizkari orokor honek, *Jakin*-ek, orain arte bezala, paper garrantzitsua izango du Euskal Herrian eta munduan gertatzen diren pentsamendu eta gogoetara zabalik. Bide honetan *Jakin* lagun izango dugu.

Talde lana izan da bere lehen mende erdia bete duen *Jakin*. Bertan bildu da, gidari, talde trinkoa eta langilea, zabal jokatzen jakin izan duena, eta irekitasun horretan lankidego zabal biltzea lortu dute. Aspaldi heldutasunera iritsi zen aldizkari honek eduki bizi eta gazteak ematen ditu urtez urte, eta aurrerantzean ere beste hainbeste opa diogu historia luzeko bidea egin duen talde eta zuzendariari.

Etorkizuna orainean eraikitzen da. «Joanak joan, etorkizuna etorkizun, oraina da gure eta ez bertze», esan zuen Axularrek. Eta egunero jorratzen da. Hori egin du orain arte *Jakin*-ek eta ziur naiz horretan jarraituko duela *Jakin* aldizkariak.

Bene-benetan, eskerrik asko.¶


*Donostia, 2006-11-23*



# *Jakin:*

ekarpenak eta erronkak

- 35** BALEREN BAKAIKOA  
ALBERTO BARANDIARAN  
ROMAN BERRIOZABAL  
MIEL A. ELUSTONDO  
JOSE RAMON ETXEBARRIA  
XABIER GARAGORRI  
GOTZON GARATE  
PRUDEN GARTZIA  
PATXI GAZTELUMENDI  
TERE IRASTORTZA  
INAKI IRAZABALBEITIA  
XABIER ISASI  
JOANMARI LARRARTE  
RITXI LIZARTZA  
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
LAURA MINTEGI  
JOXE MANUEL ODRIUZOLA  
TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA  
FITO RODRIGUEZ  
ANDONI SAGARNA  
PELLO SALABURU  
ALLANDE SOKARROS  
PAKO SUDUPE  
ANDRES URRUTIA  
EGUZKI URTEAGA  
JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL  
IÑAKI ZABALETA URKIOLA  
MIKEL ZALBIDE  
AITOR ZUBEROGOITIA



## *Jakin*: ekarpenak eta erronkak

*Jakin*-ek 50 urte betetzen dituen honetan, aldizkariaren iraganari, orainari eta geroari buruzko iritziak biltzeari ekin diogu. Izan ere, aldizkariari buruzko iritzia jasotzeko joera hau konstante bat izan da *Jakin*-en historiaren une garrantzitsuetan, batzuetan harpidedun eta irakurleei zuzendua, bestetan lankide eta adituei.

1956ko lehen zenbakian bertan, «Alkar izketa» atalaren aurkezpenean, halaxe galdetzen zaio irakurleari:

zer deraitzazu aldizkari au; gure sailketa auek; zer erantsi le-zaioken; nola txukunagotu leiken; nola jarri genezaken gar-ko egun, 1956 urteko gaur-egun ontaratuta, gaur-gaurko beste edozein argitaraldien mailla-maillan.

Baina aldizkariari berari buruzko lehen iritzi bilketa siste-matikoa 1959an antolatu zen. Izan ere, une hartan *Jakin*-en hizkuntz eredua eta kultur ikuspegia zeuden ezbaian. Hala, 10. zenbakian jakinarazi zenez (84. or.):

Aspalditxotik izan ere, kezka bat genuen YAKINlari askok: gustora al daude gure arpidedunak errebistarekin? Nola ikusten gaituzte beraren bidez? Zer eskatzen digute? Eta onelako galdera asko generabilzkin gere kolkoan. Ori dala-ta enkuestatxo bat gertatu dugu.

400 orri zabaldu ziren harpidedunen artean, 15 galderarekin. Eta %24,5ek erantzun zuen.

1964ko 16. zenbakian ere (48-49 or.) aldizkariari buruzko iritzia eskatu zitzaion irakurleari. Hauexek galderak: «Zer derizkiozu *Jakin*-en argitaratzeko era oni?»; «Atsegin al zaizu? (gaiak, euskera, presentazioa)», «Nola obeagotu genezake?».

Franco hil ondoren, hirugarren aldiz kaleratzeko ahalegine-tan ari zela, 1976an, euskal kulturako jende ezagunen artean galdeketa bat egin zen. Aldi berean, Joan Mari Torrealdei zuzendariak hilabeteak eman zituen gaztelaniazko eta frantsesezko orduko kultur aldizkariak aztertzen, *Jakin* berrituaren itxura eta mamia diseinatzeko eredia taxutzeko asmoz.

1981ean, 25. urteurrenean, orduko 2.300 harpidedunek jaso zuten 33 galderek osatutako inkesta orria. 304 erantzun jaso ziren. 1981eko 21. zenbakian (258-271 or.) aurkitu daitezke inkesta horren inguruko xehetasun guztiak.

Beste 25 urte igaro dira ordutik, eta urrezko ezteiak ospatzen ditugun honetan, abagune hau baliatu nahi izan dugu geure historiatxoari begiratu eta etorkizuna prestatzeko.

Informazio eta komunikazioaren gizarte globalizatu honetan, *Jakin* bezalako kultur aldizkari batek nahitaez birplantetatu behar ditu bere eduki eta euskarriak. Aldizkariaren asmoa argia baita: betiko helburuei tinko eutsiz, irakurleari gero eta produktu hobea eskaintzea.

Horrela, euskal kulturgintzako hainbat egile eta eragilerengana jo dugu iritzi eske, guztiak ere *Jakin*-en lankide izandakoak eta, beraz, aldizkaria ongi ezagutzen dutenak. Azkenean, hogeita hamar erantzun bildu ditugu.

Aldizkariaren iragan eta etorkizunari buruzko bi galdera nagusi egin dizkiegu —batzuek galderei zuzenean erantzun diete; beste batzuek, aldiz, erantzun libreagoa eman dute—:

1. Zeintzuk dira zure ustetan *Jakin*-en ekarpenak?
2. Nola jokatu beharko luke *Jakin*-ek aurrera begira?



## BALEREN BAKAIKOA

### 1.

- a) Euskara batua indartu eta normalizatu.
- b) Euskaraz idazten trebatu.
- c) Gaika taldeak bisualizatu, batik bat euskal kulturaren inguruan.
- d) Irakurleari ikuspegi zabal eta sakon bat eskaini, osagarriekin lagunduta.

### 2.

- a) Definitu unibertsitaterantz zuzendu nahi den ala ez.  
Unibertsitatera zuzentzen bada, kontuan izan behar da jendeak *curriculum*a egiteko erabiliko duela eta horretarako ikerketa gaiak argitaratu beharko dira. Gainera, aldizkaria ondo sailkatua egon behar du Aldizkarien Indizeetan eta oso zaila da horretara heltzea.  
Jendarte zientzietan *Uztaro* dago eta bakoitzaren espazioa definitu beharko litzateke alferrikako lehia ekiditeko.
- b) Dibulgaziorako bada, zailtasunak ugaritu egingo dira kalitatezko artikuluak aurkitzeko, ikertzaileak egunetik egunera presionatuagoak baitaude erreferentziazko aldizkari zientifikoetan argitaratzeko eta denbora gutxi dute dibulgazio lanetan aritzeko.
- c) Euskal kulturako gaietan zentratzea izango litzateke bide egokiena. Ikerketa proiektu hauen jarraipena egin, beste batzuk proposatu, erakunde publikoei diru-laguntzak eskatu... Hots, jendearen inplikazioa bilatu.
- d) Erredakzio batzordea eta Aholku batzorde zabal bat eratu beharko lirateke jendea inplikatzeko.
- e) Agian, bihilabetekoa izatea eragozpena da eta denboraldi hau luzatzea ez litzateke batere txarra izango.¶





## ALBERTO BARANDIARAN

### Ekarpenak eta erronkak

Aldizkariak 1991n hartu zuen itxura berriko *Jakin* hura izan zen gurea. *Jakin* modernoa nahi bada, kolore apalekoa izan arren diseinuari garrantzia ematen hasi zena. Orduko *Jakin* harekin hasi ginen euskal kulturaren barrenean murgiltzen, *Egunkaria* sortu eta urte haietako *Jakin* harekin. Inoiz kontsultetarako, inoiz artikuluren baten erreferentzia aipatzeko erabiltzen genuen *Jakin* harekin. Bere orriak noiz-behinka, jakin-min hutsez, lardaskatzen genituen *Jakin* aldizkariarekin. Kultura jasoaren erreferentzia nagusitzat genuen *Jakin* hura dut gogoan.

Horregatik, harrituta ni, «idatziko al hituzke kulturari buruzko artikuluek?», Imanol Muruak galdetu zidanean. Elkarren arteko solasaldietan, Xabier Morrasen margoak aipatzea ez zen bitxikeria, eta Patziku Perurenaren artikuluek edo Koldo Izagirreren azken liburuak zer esana ematen ziguten. *Egunkaria*-ko eta *Argia*-ko zutabegileen marmarrak aditzen genituen. Baina, *Jakin*-en idatzi?

Hausnarrean, zenbaki zaharrak begiratzen hasi eta Ramon Saizarbitoriaren artikuluek irakurri nituen, eta bere ironia sakona miretsi nuen. Hasier Etxeberriarenak irakurri nituen, eta Mariano Ferrerrenak, eta Andoni Egañarenak, eta Joxerra Garziarenak. «Hi, Saizarbitoria!». «Eta? Idatziko al hituzke?».

Ikasi nuen, pixka bat gehiago ikasi ere, begiratzen eta entzuten. Agian txikiegia den kultura honen bizkortasunaz ohartzeko balio izan zidan. Zaharregia ez zela ohartzeko balio izan zidan.

Aldizkariaren ekarpenak, zein izan diren? Hasteko eta behin, euskal kulturaren eta Euskal Herriaren ikuspegi gar-

bia transmititzen ahalegin dela beti. Pentsamendua, gogoe-  
ta eta hausnarketa iradokitzeke gida txikia izan dela, halako  
talaia. Egunerokotik aparte, begirada sakona pausatzeko be-  
ta eman duen euskarria. Elitista samarra nahi bada, baina ez  
urruna, eskuraezina, jasangaitza. Gutxi batzuentzako aldiz-  
karia akaso, baina hurbila hala ere, esker onekoa. Bada zer-  
bait, eta ez da gutxi.

Nik Joan Mari Torrealdairekin lotu dut beti, ezinbestez,  
aldizkaria, nahiz eta Joan Mari Torrealdei ez dut aldizkaria-  
rekin ezinbestez beti lotu. *Egunkaria*-ren sorrerako garaie-  
tatik, bera izan zen, Martin Ugalderekin batera, proiektuari  
irudi sendoa eman zionetako bat. Bera zen gazte tximaluzez  
osatutako koadrila harentzat halako bermea. Bilera serioe-  
tan ezinbestekoa. Horixe izan da Torrealdei, eta, nik ezagu-  
tzen dudala, *Jakin* bera ere bai. Erreferentzia. Uste dut hori  
dela aldizkariaren ekarpen handienetako bat.

Hor daude gogoratuko dizkioten tasunak, noski. Euskara  
batua erabiltzen lehenetakoa izatea, modernitatearen apus-  
tua etengabe egitea, independentzia aldarrikatzea, debekua  
gainean izan eta hala ere aurrera egiteko kemena erakus-  
tea... Baina guretzat, 90eko hamarkada funtsezko horren  
hasieran gure burua paper idatzien artean murgildu genuen-  
ontzat, Torrealdairen *Jakin* izan zen, susmo guztietatik ha-  
rantzago, herri bati atxikitako kultura derrigorrez militante  
baina, era berean, zintzoa zer zen transmititu nahi izan zi-  
gun jende fidatzekoa.

Nola jokatu beharko lukeen? Ez dira garai onenak paper  
idatziarentzat. Euskarri bera eztabaidagai da, bat-bateko  
erantzunen eta gogoeta birtualen garaian. Aldizkariak In-  
terneten aldeko apustua egin beharko du, nola ez. Ondare  
baliotsua dago kontsultagai jartzeko, beste datu base askore-  
kin gurutzatu eta are baliagarriagoak egiteko. Baina orain  
arte egin dena denen eskura jartzea ez da nahikoa. Beti egon-  
go da irakurketa pausatuarentzako tartea eta gogoia, eta ira-  
kurketa pausatuarentzako tartea edukiko duen irakurle go-

gotsu horrek beti eskertuko du mundua bere begiekin azalduko dion horren ahalegina.

Baina mundua gure begiekin eta gure hitzekin aztertze ahaleginari ematen diodan garrantzia bera ematen diot begirada luzatzeari. Gaur egun, 90eko hamarkadan baino askoz komunikabide eta komunikatzeko modu gehiago daude euskaraz. Zer esanik ez 80ko edo 70eko hamarkadarekin alderatzen badugu. Gaur egun badira beste garaietako *Jakin* elikatzen zuten artikuluentzako aterpe gehiago. *Jakin*-ek beti izan duen ildoari eutsi beharko lioke, hots, bertako begiradan oinarritutako hausnarketa bultzatu beharko luke, baina leiho bat kanpora zabaldu beharko lukeela iruditzen zait. Kultur pentsamenduaren inguruan atzerrian sortzen diren gogoeta eta hausnarketek, bereziki gurearen antzeko tamaina duten horienek, asko erakutsiko digutela sinistuta nago. Garaiak hori eskatzen duela iruditzen zait. Erreferentzia izaten jarraitzeko bide bat izan daiteke. Ez bakarria, baina bide bat.¶



## ROMAN BERRIOZABAL

*Jakin*-darrok ondo baino hobeto dakizuenez, aspaldikoa dugu elkarren ezagutza. Nire harpidetza 1982 ingurukoa bada ere, lehen zenbakiak, 1970era artekoak, hamabi bat urte lehenago ezagutu nituen, praka luzeak jarri berritan hain zuzen ere. Sasoi hartan, Arantzazun ikasle nintzen hartan, ikusi nituen aurreneko aldiz, besteak beste, Eulate eta Egaña frantziskotarren marrazkiez apaindutako aleak. Ikusi ez ezik, baita irakurri ere hamaikatxo artikulu irakurri nituen, gaur egun euskalgintzan izen handiko diren ikaskide askok egin zuen bezalaxe. Gazte izan arren, orduantxe deskubritu zuten nire begiek eta bihotzak, deskubritu hitza erabil badaiteke, euskararen munduaren alor berri bezain oparo bat: hizkuntza trebatzeari eta kultura berria sortzeari zegokiena hain zuzen ere. Mila esker, bada, lagunok!

Ez jo, arren, nire hitzok lausengutzat. Harrezkero, «Non soinu, han dantza» euskal atsotitz zaharrak dioen bezala, nire etxeke postontzia aldizkaria noiz etorriko zain egon da eta, aurrerantzean ere, egongo da.

Hartzaile eta irakurle soil-soila banaiz ere, behin-edo, inoren izenean hitz egin eta, aldi berean, idatzi beharra ere egokitu zait *Jakin*-en jardunaldi eta orrietan. Bai egoera batean bai bestean, informazio eta iritzi hartzaile zein emaila izan naizen aldetik, eroso ikusi izan dut neure burua. Kultura-, pentsamendu- eta saio-aldizkari kritikoa izateko asmoz jaioten plaza edo agerkaria ez zait bat ere estu iruditu. Zenbait artikulugileren uste eta iritziekin bat etorri ez arren, lasai asko ibili naiz aldizkaria osatu eta osatzen dituzten sailetan barrena. Aitormen hori ez da axalekoa, barru-barrutik ateratakoa baizik. Hori dela-eta, atrebentzia osoz *Jakin*-en zein aldizkari hori egiten dutenen dotoretasuna azpimarratu nahi dut.

1956ko udazkenaz geroztik *Jakin*-ek bide luzea egin du. Diktadurak behartuta bi geldialdi egin ostean, 1977ko urtarrean, gogoeta sakona egin eta begiak etorkizunean jarri ondoren, ibilbide luzeari ekin zion aldizkariak, beti ere, garaian garaiko eta gaur-gaurko kultur agerkaria izan nahirik. Sasoi hartako aldizkari eta liburu apurren artean txoko bat egin eta gero, *Jakin* aldizkaria euskal kulturaren aterpe eta, aldi berean, eragile izan da.

Lehenengotza aitortu behar bazaio ere, gaur eta hemen, zorionez, ez da bakarra. Urteak aurrera egin ahala, euskarak zein euskal kulturak bere txikitasunean indarra hartu ahala, hainbat egitasmo berri loratu da gure landan. Berdin-berdinak ez badira ere, han-hemen jaiotako horiek *Jakin* aldizkariaren zuzeneko edo zeharkako lehiakideak dira. Hori dela-eta, bere baitan bildu edo isolatu beharrean, *Jakin*-ek aurrera begira jarri behar ditu bere begiak, gaur eta hemen idazle edota irakurle garenon andana ugaltzeko eta hori baino garrantzitsuagoa den bihar-etziko euskal hiritar jantzien, bai hizkeraz bai kulturaz, errelebua bermatzeko. Orain baino lehenago ere egin izan du hori eta, ziur naiz, aurrerantzean ere, asmatzen jakingo duela.

Gomendioak ematen ari naizen honetan ez dut bukatu nahi zuen egitasmoaren sinesgarritasunari dagokion erregu bat aipatu gabe: lagunok, ez saldu lagunari, ez erosi etsaiari. Eutsi, orain arte bezalaxe, orekari, izan ere jardun zikinetan ez dago gauza onik. On eginak ondo dirudielako, eutsi sor-tze printzipioei!

P.D.: Goiko horiek idatzi eta lasterrera zera entzun dut Euskadi Irratian: Gerediaga Elkarteak Durangoko Liburu eta Disko Azokaren bueltan eman izan duen Argizaiola Saria *Jakin* aldizkariarentzat izango dela aurtengoan. Zorionak, bada, lagunok!¶



## MIEL A. ELUSTONDO

### Haizea dakiten orriak

Honetaz eta hartaz jardun behar izan dut aspaldi ez dela eta haizea dakiten orrietara, lehenengoetara, jo dut. Iturriko ura bezain garbi bistaratu zaizkit ezezagun nituen ausiabar-tza jakingarriak, Orixe eta beste.

Bestalde, orrietan, 1959an bertan, iritzi bila ari dira, gaur bezala, orduko *Yakin*-en. Enbeita'tar Kepa, «Arantzazuko praillea» ari zaigu.

Aspalditxotik izan ere, kezka bat genuen Yakinlari askok: gustora al daude gure arpidedunak errebitarekin? Nola ikusten gaituzte beraren bidez? Zer eskatzen digute? Eta onelako galdera asko generabilzkin gure kolkoan. Ori dala-ta, enkues-tatxo bat gertatu dugu.

Harrezkero, hainbat aldiz egin dute bide hori aldizkariaren aldian aldiko arduradunek. Oraingoan bezala. Eta ez diot gaitzirizten. Ariketa sanoa da hori ere. Lagunetara jotzea, alegia.

Aldizkariak egiten digun galderaz denaz bezainbatean... naizen baino gehiago da *Jakin*. Irentsi ohi dudana literatura —anglosaxoien erako «literatura», idatzizko lanak, alegia— baino gehiago da *Jakin*, gaiei, artikuluei eta egileei dagokienean. Nirekiko, akatsik ez du hor *Jakin*-ek. Beste inon dut nik orbana. Plaza du eskas *Jakin*-ek.

50. urteurrenaren karietara udazken honetan bateko eta besteko agerkariek egin dioten harrera beroa gorabehera, plaza du eskas *Jakinek*. Presentzia, batetik, irakurleak, bestetik. Irakurle berriak. Euskarazko prentsa eta idatzizko lan guztiak bezala. Irakurleak. Irakurleak behar ditugu gutxi irakurtzen den herrian. Kultu ez dugun paraje bazterrean. 1959ko hartan, oraindik Kepa Enbeitarekin:

Laguntza eske. Bai, laguntza eske gatozkizu. [...] Ona gaur guziori eskatzen dizuegun lana, mesedez: aurtengo urtean, lenbaitlen, *bakoitzak arpidedun berri bat*: Ez dago esan bearririk euskerari emango diogun laguntza.

Mila urte igaro eta ura bere bidean. Hamaikatan jaso dugu albiste hori *Jakin*-en irakurleok. Garaia da besterik egin dezagun. Bestelako plana behar dugu.

Bitartean, aldizkariaren mailari eustea dagokigu, idazle eta, are, irakurleoi. Horixe eskatuko nioke, eskatzekotan, os-terantzean eskatu baino gehiago ere ematen digun *Jakin*-i. *Jakin*. Haizea dakiten orriak. Bikaina. ¶



## JOSE RAMON ETXEBARRIA

... sortuko dira berriak!

Etorkizunera begirako hausnarketa egiteko asmoa dudan bakoitzean, nahitaez abiatu behar izaten dut iraganerantz, bizitakoan gogoramenarekin batera izandako esperientzia onak errepikatzeko asmoz (eta txarrak saihesteko asmoz edo). Oraingoan ere iraganari buruzko galdera bat datorkit ezer baino lehenago, hauxe: zer eman dit niri *Jakin*-ek, orain, esker onez, *Jakin*-en etorkizunaren gainean burua pixka bat nekatzeko? Esker onekoa izatea baita ondo jaiotakoan ezaugarria.

Bestelako garaiak ziren, *Jakin* taldekoekin lehenengo harremanak izan nituenekoak, duela hogeita hamabost edo berrogei bat urte. Garai haietan oso bestelakoa zen euskarazko kulturaren egoera, baita euskararena berarena ere. Ni neu orduan euskaltzaletu nintzen, eta *Anaitasuna* hamabostekarian aurkitu nuen gosea asetzeko behar nuen euskarria. Han ezagutu nuen *Jakin* «taldea» dei dezakeguna, ordurako Arantzazuko eskola emankorraren fruitua zena, irakasle isil eta jakintsuen lanaren emaitza (S. Mitxelena, Villasante, Berriatua...). Idazle eta intelektual imitagarriak aurkitu nituen han, geure belaunaldiko beste askorentzat izan ziren bezala, eta erreferente motibagarria izan zen hura, belaunaldi gazte berria euskalgintzaren arlora ekartzeko funtsezkoa gertatu zena. Pozik aitortzen dut neure jatorri edo iturri hori, garai haietako basamortuan oasi modura jokatu zuena niretzat.

Esan dudan legez, ni baino urte batzuk zaharragoak ziren gaur egun arte *Jakin*-en espiritua bizirik iraunarazi dutenak, eta oraingoan ere kezkatu ikusten ditut etorkizuneko jarraipenarekin, kezka guztiz ulergarria dena, bestalde. Zeren,



kezkarik eta krisirik ez badago, ez da erraza irtenbide ego-kiak proposatzea. Hortaz, horretan saiatzea eskatzera ausartzen naiz. Eta animoak emateko bestelako ideia berririk ez dudanez, Xenpelarren bertso zahar hura aipatuko dut, etorkizunari begirako konfiantzaren aitortpen argia dena: ... *sor-tuko dira berriak! Gu gara euskal herriak!*

Izan ere, lehenik eta behin, konfiantza izan behar dugu, gure aurrekoek bidea topatzen asmatu zuten bezala, guk geuk ere —baita gure ondorengoek— asmatuko dugula...; hori bai, horretarako ahalegindu egin beharko dugu, gogor ahalegindu, alafede! Eta ahalegin horretan, noizbait, gutxien uste denean, abiatutako prozesuaren jarraitzaileak izango direla sinetsita jokatu behar dugu, egindakoa hobetu eta beste maila goragoko batera eramango dutenak. Edozertara, uste dut guztiz azarosoak izango dela jarraipena, ezustekoz beteak; baina ziur nago jarraipena izango dela, benetan orain arteko herri berezituaren senari eusten badiogu. Neure baikortasunean, eutsiko diogulakoan nago.

Zertan finkatzen dudan konfiantza hori? Ba, labur esanda, pertsonalki bizi izandako esperientzian. Zeren, modu oso ezustekoan hurbildu bainintzen neu ere euskalgintzaren mundu honetara, horra baino lehenago guztiz bestelako munduan ibili ondoren, bai ikasketaz zein izaeraz. Kontua da, oso egoera tamalgarrian zegoela garai haietan euskalgintza, eta, desesperantzatik ihes egiteko asmoz, modu utopikoan planteatu zela euskararen eguneratzea, helburu ezinezkoa planteatuz, esan nahi baita, euskarak gizarteko premia guztietarako erabilgarri izan behar zuela, ni kezkatzen ninduen zientziaren arloa barne.

Horretan, Jakin taldeak bultzada handia eta erabakigarria eman zigulakoan nago, bidea erakutsi baitzigun *Natur Zientziak*. *Hiztegia* plazaratu zuenean (beste ekimen askoren artean). Gaur egun esaten denez, pauso kualitatiboa izan zen hura, hiztegiaren egitura eta hiztegia egiteko prozedura kontuan izanik. Talde-lana zen, terminologiaren gabeziak erroto gaitzeko pentsatua, gaiari mugarik jarri gabe, eta

hitzen aukeran proposamen argiak eginez; hiztegi bizia zen, hitzez gain esamoldeak eta diskurtso osoa landuz, horretarako hiru mailatako hitzak definituz, alegia, hitz hutsak, definitziodun hitzak eta artikululu luzeen abiapuntu ziren hitzak, mailaz maila gero eta praktikoago —eta biziago— bihurtuz hiztegia. Orduko proposamenak egokienak ziren ala ez, hori beste kontu bat da, gero harturiko bidea bestelakoa izan baita gauza askotan. Baina puntu hori gutxienekoa da, zeren garrantzitsuena, zalantzarik gabe, prozesu berria abiatzea izan baitzen. Geroago etorri zen UZEI, Joseba Intxaustiren bultzada erabakigarriarekin. Erakunde horrek hiztegi teknikoaren bidea ireki zuen, lehenagoko *Natur Zientziak* hiztegi izandako esperientziatik abiatuta, hainbat hiztegi berezitu prestatuz, gaur egungo datu-base terminologikoaren oinarrian daudenak, *Euskalterm* izenekoa hiztegi haien bertsio bateratu eta batua baita, azken batez.

Historia horretan, ni zordun naiz, zer esanik ez, Jakin taldeak duela hogeita hamabost urte imajinatu ere ezin nezakeen bide bat egitera eraman bainau, ordainez bizitzan zerbait egin dudalako sentsazioa eman didana. Dena den, ez naiz zordun bakarra, arlo horretan ibilitako belaunaldi batzuetako kideek ere gauza bera esan dezaketelakoan bainago. Eta —azken batez, honetara etorri nahi nuen— bide hori egin badugu, atzetik talde baten kezka egon zelako izan da.

Zer esan nahi dudan iraganera begirako berrikuspen horrekin? Ba, hasierako ekimen haiek efektu biderkatzaile ikaragarria izan zutela, nahiz eta ez gaituzten hasierako kezka erabat gainditzera eraman. Baina, behin gertatutakoa berriro ere gerta daitekeelako, uste dut saiatu egin behar dela erreferentzia hori bilatzen, euskalgintzan dauzkagun kezka horiei erantzuteko proposamen eta ekimen «ezinezkoak» eta «utopikoak» eginez.

Nik ez dakit kezka hauek erantzun zuzenik izango duten, orduan bezala orain ere arrisku bizian gaudela uste baitut, etengabeko krisian. Baina, orduan bezala, uste dut partida jokatu behar dugula, partida jokatzea merezi duela, eta gu-

re txikian, bizitza bera, bere hutsean, garaipen handia dela. Horregatik animatu nahi ditut *Jakin*-ekoak aurrerantz egin dezaten beren kezka eta proposamenekin, konfiantza dudalako batzuetan marjinalak diruditen ekimen horiek fruitua eman dezaketela ezustean, eta belaunaldi berriak hurbil daitezkeela ekimen utopiko kolektiboetara.¶



## XABIER GARAGORRI

**1** ● *Jakin* aldizkariko aleetan «haizea dakiten orriak» biltzen direla diote zuzendaritzako kideek, era askotako haizeak direla esango nuke. Haize horiek haizeak eraman ez ditzan, lurraren historia harrizko geruzetan sedimentazioz gordetzen den antzera, 1956an hasi eta 50 urtetan jaso joan diren paperezko orriak aztertuz, Euskal Herrian urte horietan euskal kulturaren inguruan gertatutakoaren arrasto esanguratsuen historia gordetzen da. Ez da historia osoa izango, ezta historia horren interpretazio bakarra ere, baina ez dut uste azken 50 urte hauetako euskara eta euskal literatura, pentsamendu eta hezkuntzaren historia ulertzeko iturri eta ispilu osatuagoa dagoenik.

*Jakin* aldizkariaren irakurle izan naiz, bereziki bigarren epealditik aurrera, hau da, 70eko hamarkadatik aurrera. Gai batzuk besteak baino interes handiagoarekin jarraitu ditut, baina nire ibilbide profesionala eta egindako noizbehinkako lankidetzaren hezkuntza esparruan kokatu denez, hezkuntza eta irakaskuntza gai multzoari emango diot gainbegirada bat.

Zuzendaritzak, 1956tik 2000ra plazaratutako 150 zenbakiak azertu ondoren emandako datuetan oinarrituz, *Jakin* aldizkariaren lehen epealdian (1956-1969) hezkuntza-irakaskuntza gaien presentzia oso urria izan zen (%0,8); aldizkariaren bigarren epealdian (1977-1999) dezente igotzen da (%7,7); eta bi epealdi horiek elkartzuz, plazaratutako guztiaren %5,7 izatera iristen da. Ez dirudi ehuneko horrek gora egiten duenik 2000-2006 bitartean plazaratu diren aleetan. Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren inguruko gaiek, beraz, datu horiek begiratzuz bederen, esan daiteke ez dutela lehentasunik izan. Aldizkariak maiztasun handiagoz landu ditu, adibidez,

literatura (%20,4), kultura (%13,4), hizkuntza (%13) eta politika gaiak (%9). Eta ekonomia (%2,7) izan ezik, beste gaiak hezkuntza-irakaskuntzaren pareko maiztasunez lantzen dira: zientzia eta gizartea (%7,4), filosofia (%7), erlijioa (%6,6), komunikabideak (%5,8). Datu horiek osatu beharko lirateke, izan ere beste esparruetan kokatzen diren artikulua begiratu ditut eta hezkuntzarekin zerikusi zuzena duten artikulua aurkitzen dira hizkuntzaren, kulturaren, literaturaren, politikaren eta gizarte zientzien esparruetan. Hala ere, maiztasunaren aldetik, hezkuntza-irakaskuntza inguruko gaiak ez dira izan ugariak. Gehiago behar al zuen? Nire iritziz bai, baina beste batzuek ez dute ni bezala pentsatuko. Datu hauen balorazioa egitea zuzendaritza taldeari dagokio.

Zuzendaritzak hezkuntza eta irakaskuntzaren esparrua sailkatzeko erabiltzen dituen kategoriak onartzuz, hauek dira gai multzo bakoitzean plazaratutako ekarpen kopurua:

Arazoak, didaktika, metodologia	28
Hezkuntza sistemaren antolakuntza	8
Irakaskuntza eta euskara	12
Ikastola	26
Unibertsitatea	43
Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea	10

Gai-multzo horien barruan lantzen diren gaiak aztertuz, hiru multzotara ekar daitezke: unibertsitatea (43 ekarpen), helduen alfabetatzea eta euskalduntzea (10 ekarpen) eta unibertsitate aurreko hezkuntza (74 ekarpen: horietan sartuz aurreko biak ez diren beste gai-multzo guztiak). Ondoren egingo dudana analisia unibertsitate aurreko hezkuntzara mugatuko da. Ere horren inguruko artikulua zenbaki desberdinetan agertzen dira, baina bereziki plazaratu diren ondorengo ale monografikoetan:

- Jakin sorta* 6 (1972): «Gure ikastola».
- 19/20. zenbakiak (1981): «Elebitasunaren auzia ikastoletan».
- 28. zenbakia (1983): «Ikastolatik eskola publikora».
- 46. zenbakia (1988): «Eskola-porrota».
- 53. zenbakia (1989): «Irakaskuntz Erreforma eta Didaktika».

64. zenbakia (1991): «Teknologia berriak irakaskuntzan».  
 93/94. zenbakiak (1996): «Testuliburuak eta Euskal Herria».  
 153. zenbakia (2006): «Testuliburuak maileguan?».

Nire ikuspegitik, *Jakin* aldizkaria sortzen denez geroztik, unibertsitate aurreko euskal irakaskuntzan bizi izan ditugun bidegurutze nagusiak hauek dira:

- Ikastolen egituratzea eta legalizazio prozesua.
- Eusko Jaurlaritzak hezkuntza konpetentziak eskuratzea eta Hezkuntza Sailak emandako lehen urratsak.
- Hezkuntzaren erreformaren inguruko berrikuntza garaia.
- Euskal Eskola Publikoaren Legea.
- Testuliburuak eta Euskal Curriculuma.

1) *Ikastolen egituratzea eta legalizazioa prozesua (1970eko «Ley General de Educación»)*

Giro horretan kokatzen da *Jakin sorta*-ko 6. zenbakia, «Gure ikastola» (1972). Ale monografiko horretan, une haie-tan pil-pilean zeuden gaiak aztertzen dira: hirietako eta herrietako ikastolen sorrera eta ikastola bakoitzaren eta taldearen antolaketa, irakasleak aurkitzeko zailtasunak eta prestakuntza, hizkuntzabitasunaren arazoa, erlijioaren arazoa, legalizazioaren auzia... Zenbaki hau oso garrantzitsua da ikastolen historia eta elebitasunaren planteamendu teorikoaren lehen urratsak zein izan ziren ezagutu nahi duenarentzat.

2) *Eusko Jaurlaritzak hezkuntza konpetentziak eskuratzea eta Hezkuntza Sailak emandako lehen urratsak*

Garrantzi handiko gai hau ez da jasotzen aldizkarian, baina lehen urrats horien artean eragin handiko bi gertakari jasotzen dira: elebitasunaren auzia (1981eko 19/20. zenbakiak: «Elebitasunaren auzia ikastoletan») eta ikastolen normalizazio bidean Euskal Ikastolen Erakundea (EIKE) sortzeko egindako ahalegina (1983ko 28. zenbakia: «Ikastolatik eskola publikora»). Bi ale monografiko horiek garrantzi handikoak dira hizkuntz ereduen planteamenduaren sorrera ezagutzeko eta oraindik konpontzeke dagoen ikastolen normalizazio prozesuaz jabetzeko.

### 3) *Hezkuntzaren erreformaren inguruko berrikuntza garaia*

LOGSE legearen inguruan (1990) eragin handiko berrikuntza pedagogikoak bideratu ziren. Berrikuntza guztietan ikasleen emaitzak hobetzea izaten da helburu nagusietako bat, eta orain hezkuntzaren kalitateaz hitz egiten den bezala, orduan eskola-porrota zen aztergaia. Kezka horren lekukoa da 1988ko 46. zenbakia, «Eskola-porrota». Erreformaren hitz giltzarria «curriculum» izan zen: curriculumaren oinarriak, curriculumaren diseinua... Curriculumari buruzko «Irakas-kuntz Erreforma eta Didaktika» izenburua zuen dossier monografikoa plazaratu zen 1989ko 53. zenbakian. Beste gai bat teknologia berriak izan zen. Bideoaren eta ordenagailuen erabilpena hezkuntzan txertatzeko ahaleginak aurreko urteetan ere egin ziren, baina sasoi honetan multimedia baliabideen erabilpena areagotu egiten da. Kezka horren lekukoa da 1991ko 64. zenbakia («Teknologia berriak irakaskuntzan»). Ale monografiko horietan Hezkuntzaren Erreformaren inguruko kezken testigantza jasotzen da; beharbada ez dute ekarpen berezirik egiten, baina garaiaren lekuko dira.

### 4) *Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993)*

Lege hau, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntzaren historian bidegurutze garrantzitsua izan da, baina EIKEn inguruko gorabeherak ondo jasotzen diren bezala, lege honen inguruan izandako eztabaiden arrastorik ez da aldizkarian aurkitzen.

### 5) *Testuliburuak eta Euskal Curriculum»*

Testuliburuak curriculum batean oinarritzen direnez, bizidena da bi gai hauek batera ikustea. *Jakin* aldizkarian bi gai hauek batera ikusi dira eta maiztasunez eta sakontasunez landu dira gainera. Hezkuntza eta Curriculum proposamenak indarrean jartzeko ikasmaterialen beharra izaten dute, eta gai hori du hizpide 1989ko 53. zenbakiko artikuluko batek. Baina gai hau, batez ere, 1996ko 93/94. zenbakiak («Testuliburuak eta Euskal Herria») eta 2006ko 153. zenbakiak («Testuliburuak maileguan?») lantzen dute. Bi ale monografiko

horietan, curriculum eta ikasmaterial propioa sortzeak eta ikasmaterial horiek argitaratzen dituen argialetxeak bertakoa izateak duen garrantziaz ekarpen sakona egiten da.

Laburbilduz, *Jakin* aldizkarian, unibertsitate aurreko hezkuntza eta irakaskuntza esparruko gai-multzo ugari jorratzen dira, baina aldizkari hau garrantzitsua da, bereziki, euskara eta elebitasunaren gaia irakaskuntzan nola garatu den, ikastolen ibilbidea nola gauzatu den, eta curriculum-testuliburu propioak duen garrantziaz hausnarketa egin nahi dutezentzat.

**2.** *Jakin* aldizkariaren bidea ez da izan espezializazioarena, ikuspegi zabalarena baizik. Espezializazioaren bidea gai jakin batean sakontzeko egokiagoa da, baina errealitatea hobeto ulertzen da ikuspegi globaletik eta diziplinartekotik begiratzen bada. Aukera bakoitzak ditu abantailak eta eragozpenak. Nire iritziz, *Jakin*-en hautua garbia da, gu-ne hori ondo irabazia dauka eta aurrera begira hortik jarraitzea egokia litzateke.

Zuzendaritzak hamar gai-multzotan sailkatu du orain arte egindako ekarpena (Literatura, Kultura, Hizkuntza, Politika, Zientzia eta Gizartea, Filosofia, Erlijioa, Komunikabideak, Hezkuntza eta Irakaskuntza, Ekonomia). Horiek al dira etorkizunean landu nahi diren gai-multzoak? Komeni al da gai-multzoak hautatzea eta hautaketa horren arabera zenbakiak planifikatzea, ala unean uneko gaurkotasunaren arabera jokatzeko egokiagoa da? Beharbada bi irizpideak (planifikazioa eta gaurkotasuna) uztartzea komeni da. Planifikazioaren bidea hautatzen bada, orain arteko gai-multzoen egokitasuna aztertzea eta multzo bakoitza haztatzea komenigarria litzateke. Ikuspegi zabala eta orekatua izatea ez denez erraza, gai-multzo bakoitzerako aholkularia izatea, zuzendaritza taldearentzat lagungarria izan daiteke.

Iritziak emateko aukeraz baliatu naiz, baina badakit horretarako gaia barrutik ezagutu behar dela eta ez dela hori nire kasua. Hartu, beraz, hemen esandakoak bere tamainan.¶





## GOTZON GARATE

### *Jakin*-en urrezko ezteiak

Aldizkariak asmo batekin sortzen dira. Helburu batekin. Aldizkari bat ona den edo izan den jakiteko, bere asmoa bete duenentz galdetu behar. Burdina saltzeko ateratzen den aldizkaria, zinez burdina saltzeari lagundu badio, aldizkari ona dela esango lukete. Lagundu ez badio, kaxkarra dela.

Egia da, aldizkariaren asmoa, denbora joan ahala, alda liteke. Behin baino gehiagotan gertatu da. Beti, ordea, aldizkari baten balioa epaitzean, lehengo edo oraingo xede berriari begiratu behar zaio.

*Jakin* aldizkaria zein asmotan sortu zen?

Galdera honi erantzuteko biderik artezena, lehendabiziko zenbakiari begiratu bat egitea da. Zenbaki horretan «Ataria» izena duen sarreran argi azaltzen zaizkigu aldizkari sortu berriaren asmoak eta jomugak.

Lehenbizikoa *euskarari laguntzea* da.

«Yakin», auxen duzu asmo onen zer bikaña. Berauxe euskerazugaitz zaarrari txertatutako mentu ernegarria. Gazte da tortzu —gazteak asmatu ta zertua—, [...]

Eta beheraxeago:

Saia gaitezen edotariko gaia ta arazo euskeraz erabiltzen. Tamala, bait da naiz erriari, naiz gutartean euskeraz jardutean kirtenkerita [sic] edo ikullu gaietara jo bear izatea.

[...] Gaiak berak [*bark* dakar testuak] ere irakur-miña sordezala.

Ze gai jorratuko dira *Yakin*-en? Atari horretan esaten zaigu: «Theologi-saila, Philosophi-saila, Kultur gaiak, Antze ta elerti, Saski-naski, Elkar-izketa».

Horrela egingo dute hurrengo zenbakietan.

Ez da dudarik 50 urte honetan *Yakin*-ek (orain *Jakin*) euskararen alde zintzo eta indarrez lan egin duela. Eta gizarte-ko alor guztiak aztertu dituela. Aurkibideei gaineko begiratu bat egitea aski da horretaz ohartzeko. Eta jakina, gaiek, orduan eta orain ere, gure *jakin-mina* pizten dute.

Beste asmo bat ere bazuen aldizkariak:

Beste asmo sendo ta bearrezko baten lorbidea ere dugu. Zeatz adierazi: apaiz ta praile gaien elkartasuna.

Eta horrela izan zen. Ni jesuita gaztea nintzen 1956an, ar-  
tean filosofia ikasketak hasi gabea. *Yakin*-ek elkartu egiten  
gintuen. Arantzazun gu bezalako gazte euskaltzaleak bazi-  
rela ikusten genuen. Oker ez banago, urte hartan bertan  
Loiolako filosofo jesuitek atera zuten bere aldizkaritxo eus-  
karaz, *Ekin*.

Aldizkari honen burua eta bihotza Jose Agirre azpeitiarra,  
euskaltzale indartsua eta adiskidetsua izan zen. Gazte hilko  
zen minbiziz. Nik, Loiolara joan nintzenean filosofia ikaste-  
ra, aldizkaritxo horretan parte hartu nuen. Nirekin batera  
Anton Arsuagak, Daniel Bastarrikak, Iñaki Epeldek, Julen  
Lizundiak, Jose Luis Zinkunegik...

Bai pozik jasotzen genuela *Yakin*. *Yakin*-go problemak eta  
gureak bat ziren.

Urteak joan, urteak etorri, *Jakin*-ek apaizgoaren bidetik  
gabiltzanok ez ezik, euskaltzale asko eta asko elkartu gaitu.  
Euskara maite dugunok *Jakin*-en aurkitu ditugu xedeak eta  
indarra. Ikatz goria beste ikatz goriaren ondoan goriago  
bihurtzen da. Euskaltzaleok euskaltzale jakintsuen usteak  
jaso eta eskolatu eta batu egiten gara.

*Jakin*-ek etengabe erein du euskararentzako maitasuna eta  
maitasunarekin batera jakinduria eta argia.

Berrogeita hamar urte igaro dira eta *Jakin* zutik dago. As-  
palditik aldizkarien mundu barruan bizi eta lan egin dugu-  
nok, badakigu zein zail den aldizkari bati eustea. Dozenaka  
eta dozenaka aldizkari dira agertu eta betiko galdu direnak.  
Euskaraz ere bai.

Euskarazko aldizkariak ez dira asko. Direnen artean *Jakin*-ek izenik gorena duela esango genuke. Jorratzen diren gaiak gehienetan pizgarriak dira eta idazleak Euskal Herrian beren jakinduriagatik ezagunak. *Jakin* euskal intelektualen aldizkaria da.

Artikulu onenak edo interesanteenak zein diren esatea ezinezkoa da. Hori norberaren gustuan gelditzen da. Eta gustu hori alde handiz norberaren ikasketei eta lanari lotua doa.

Nire ustetan, artikulurik atsegingarrienak euskal kulturari dagozkionak dira. Jakintza unibertsalari buruzkoak beste erdal aldizkarietan irakur genitzake. *Jakin* eskuetan hartzen dugunean, batez ere geure gizarteari zuzen dagozkion gaiak aurkitu nahi ditugu. Beste inon aurkituko ez ditugunak.

Ez da dudarik. *Jakin* irakurtzen dugun guztiok euskaltzale gara. Euskal kultura barruan, berriz, euskara dugu oinarri. Beraz, euskararen joan-etorriak aztertzen dituzten artikulak, estatistikak, analisiak oso gureak egiten zaizkigu. Euskara oraindik ere galtzorian dugu.

*Jakin*-ek bere urrezko ezteiak ospatzen ditu. Holakoetan beharrezkoa da *zorion* opatzea. Berrogeita hamar urtean *Jakin*-ek lan bikaina egin du. Urte askoan jarrai dezala horrela. Eta gu ikusteko izan gaitezela. ¶



## PRUDEN GARTZIA

**1** ● Ñabardurak ñabardura, nire irudiko euskarari buruz bi jarrera baino ez dira posible (jakina, hirugarren bat ere badago, euskararen desagertzea edo museifikazioa argi eta garbi aldarrikatzea, baina aukera hori berariaz bazter utziko dugu analisi honetan).

Lehena da euskarari balio eta erabilera mugatu bat aitortzea, adibidez, etxeko hizkuntza izatea, zenbait lagun eta auzotarrekin erabiltzekoa, beti ere testuinguru informaletan edo berezietan, alegia, norberaren berdinekin edo, bereziki, gizarte-maila beheragokoeekin; aldiz, zeregin *jasoetarako*, beste hizkuntza bat hautatzen da. Hori izan da, itxura guztien arabera, euskal eliteek gutxi gorabehera XVI. mendetik gaur egun arte izan duten jarrera orokorra. Ildo horretan bereziki aipagarriak dira Beñat Etxepareren bertso ezagunak, adierazten baitigute nola ikusi nahi zukeen euskara (*beregoien gradoan*) eta, tamalez, egitasmo horren porrota: euskal eliteek euskarari toki bat esleitu zioten mendez mende, bestela ez dago haren iraupena esplikatzerik, baina toki hori bigarren mailakoa zen gaztelaniaren edo frantsesaren aldean.

Kontua da XIX. mende bukaerarako oso garbi zegoela industrializazioak eta iraultza liberalak sortzen duten gizarte berrian bigarren mailako egoera horrek euskara zuzen-zuzenean heriotzara eramango zuela epe labur batean. Testuinguru horretan euskal nazionalismoa sortzen da eta euskara *salbatzeko* premia aldarrikatzen du: Sabino Arana da ezinbestean aipatu beharreko liderra.

Baina kontua da, baita ere, nazionalismoaren teoria klasi-koan, eta zer esanik ez, praxi orokorrean, ekintza politikoak erabateko lehentasuna hartzen duela: abertzaletasuna zabal-

duz gero, euskararen salbamendua berez gauzatuko da. Eta ondorioz, paradoxalki, eta muturrera jota, oso posible bihurtu zen independentista erradikala izatea euskara jakin gabe. Beraz, eta oraingoan efikazia politikoaren amoreagatik, nazionalismoa gorabehera, euskarari dagokionez lehen-go egoeran segitzen dugu: euskara bigarren mailako hizkuntza da, egoera zehatz batzuetan erabil daitekeena, baina gauza garrantzitsuetarako ez du balio, adibidez, instituzioak kudeatzeko. Finean, foruen garaian bezala.

*Jakin*-en zinezko ekarpena Beñat Etxepareren aldarria berreskuratzea izan da. Alegia, argi eta garbi galdetzea: zertarako nahi duzu euskara? Amamarekin eta ume txikiekin hitz egiteko? Baxoerdi batzuk hartzeko larunbat arratsaldetan? Dena delako erritu sozial, erlijioso, politiko-instituzional (edo anti-instituzional) edo antzekoetan erritualki erabiltzeko? Zenbait poema negarti idazteko?

Hau da, hasieran esaten genuenari segituz, euskarari buruz posible da bigarren jarrera bat, alegia, euskara lehen mailako hizkuntza kontsideratzea, beste modu batean esanda, gaztelaniaren edo frantsesaren maila berean. Edozertarako balio duen hizkuntza. Euskal Herrian edozeinekin eta edozein momentutan erabili beharrekoa. Gaztelania Salamancan bezala.

Ez da batere dudarik bigarren jarrera horren defentsa ez dela inoiz izan *Jakin*-en monopolioa. Aitzitik, aurrekariak aipa daitezke, eta ez nolanhikoak, nazionalismo klasikoan bertan eta askoz lehenago ere. Eta jakina, *Jakin* sortu zeneko urte ilun haietan beraietan makina bat euskaltzaleren lan isila nabarmendu beharko litzateke, ezagunak eta ezezagunak. Baina ez da lekua ez tenorea zerrenda bat egiteko.

Zeren *Jakin*-en ekarpen nagusia, finean, ez da bere originaltasuna, bere arrakasta baizik. Alegia, lehenengo eta behin intelektualki goi mailakoa zen ekimen batek arrakasta zabala lortzea euskal gizartean. Hori izan da *Jakin*-ek euskal historiari ekarri dion berritasuna: Beñat Etxepareren garaietatik hona, lehen aldiz, euskara hizkuntza normal bat

delatzen zutenak ez izatea basamortuan predikatzeko zuten profeta bakarti eta zoroak (jakina, *Sarako eskola* izenarekin ezagutzen dugun literatur mugimendua alde batera utzita).

## 2. Ez dakit.

Ez dakit, benetan, zeintzuk izan ziren *Jakin*-en arrakastaren giltzak, ezta hura iraunarazteko eta handiagotzekoak.

Zeren garbi dago *Jakin* ekimen arrakastatsua izan zela, bastez ere aurrekarietara begira, baina, halaber, inoiz ez duela lortu Euskal Herri mailan erreferentzia zinez garrantzitsua izatea. Alegia, *Jakin* euskaltzaleentzat da garrantzitsua. Ez da gutxi baina, jakina denez, euskaltzaleen pisu politiko eta soziala oso mugatua da euskal gizartean, Gipuzkoatik at bederen.

Garbiago esanda: herri honen instituzioak, bankuak eta enpresak kudeatzen dituztenak, herri honen elite politiko-ekonomikoak, oro har ez dira ez euskaldun, ez euskaltzale (berri ere Gipuzkoatik at, bederen, baina hor ere zalantzak ditut).

Areago, elite intelektualetan ere euskaldunak gutxiengo dira, zenbat eta *gorago*, orduan eta gutxiago. Eta, bereziki, dauden euskaldun eta euskaltzaleetatik franko lehen jarrean kokatu beharko genituzke euskarari dagokionez, hots, nolabaiteko garrantzia ematen diote, nik ez dut dudarik, baina ez, inolaz ere, gaztelaniarekin (edo frantsesarekin) parekatzeko beste; ez behintzat gure gaurko gizartean, agian bai etorkizun urrun eta lanbrotsu batean, dena delako *normalizazio* zehaztugabe bat burutu ondoren (beste berrogei bat urte, gutxienez; mende bat, errazkiago).

*Jakin*-en erronka nagusia jende horrentzat guztiarentzat erreferentziala bihurtzea da.

Nola? Ez dakit. ¶



## PATXI GAZTELUMENDI

### *Hack in*

Koldo Izagirrek zuzendutako dokumentala ikusten ari ginela, pantaila handitik Joxe Azurmendi: «gazteen aldizkaria zen *Jakin*». Eta begiradarekin ezker-eskuin egin, eta ile zuria nagusi, gorbatadunak eta lanetik erropa elegantearekin hurbildutakoak. Eskuin-ezker begiratu berriz, eta gazterik apenas. Dokumentala ikusten jarraitu dugu. Garai bateko *Jakin* zelan sortu zen, zelan iraun duen, zertaz mintzatu den, zertan jardun den. 50 urte bete ditu, mende erdia. Eta Miramar jauregiko argazkiari erreparatuta, mende erdi honen lekukotasuna da hemen. Gehiago izango dira 50 urtetik gorakoak, gazteagoak baino.

Halako batean Joxe Azurmendi bera hurbildu, eta esateko gogoz geundenez, berari bota genion: «Joxe, gaur hemen dauden gazteenak bizkartzainak dira!». Eta alboetara so egin, eta gelako ertze guztietan zeuden gazteenak beraiek ziren, adi-adi; ez dakit *Jakin*-en jakiturari ala lehendakariaren solasaldiari; beraiek ziren lekuko gazteenak. 50 urteko *Jakin* lekuko.

Eta kezka horrekin bueltatu nintzen etxera. Zelan egin aldizkari gazteago bat? Zer luke interesgarri aldizkari honek gazteentzat? Gazteak zer du gustuko irakurtzeko? Unibertsitateko ikasleek zer dute buruan lana ez denik? Behin lana lortutakoan irakurtzen ahal dugu, formatzen gara? Kezkek darabiltzat buruan ordutik, *Jakin* aldizkariaren gaztete bat bultzatzeko asmoz. Pentsamendua, kultura, teknologia berriak, jakintza... ez zaizkigu arrotz. Bizi ditugun garaiotan balukete lekuri gure egunerokoan, ez soilik apaletan, baizik eta baita eguneroko jardunean ere. Euskal

prentsa, Internet, kulturgintza... bizi-bizi dauden sektoreak izanik, hauen gaineko gogoetak zergatik ez du kezkarik eragiten belaunaldi berriagoetan, zergatik ez dira euskaraz alor horretan egiten direnak ezagutzen?

## **XXI. mendeko gazteen aldizkari**

Azken urteotako gaiei erreparatuta, euskal kulturari egiten zaion errepassoari so eginda, argi dago erreferentziazko gaiak ez direla egungo gazteen kezka iturri. Kulturari errepassoa egin, eta gaztetxeak aipatu ere egiten ez direnean, nabarmena da kulturgile batzuek oraindik eskema zaharkituak darabiltzatela errealitatea interpretatzeko. Kultura liburuetara mugatzen jarraitzen dugun honetan, bestelako arte espresio oro toki barik geratzen da euskal kulturaren aldizkari den honetan. Film laburrak egiten diharduten sortzaileak, Artelekuren inguruan sortzen den dinamika guztia, gaztetxeen inguruko musika talde eta kultur espresio anitzak. Pentsamenduaren inguruan egon daitezkeen kezka berriak, software librearen mugimenduak eragin duen iraultza teknologikoa, Internetek bultzatu duen komunikazioaren paradigma berria... kezka asko dira, eta aniztasunetik erantzunak eman behar dizkiegu. Jendearengana hurbildu eta eragiteko. Sortzaile berriei hitza eman, ahotsa entzun eta aurpegia jarritz.

## **Pentsamendua unibertsitatean**

Unibertsitateak aspaldian izan nau kezkaturik. Ez du funtziorik betetzen gure herrian. Kulturari apenas aportatzen dion ezer. Betiko kezkak dira. Kritikak. Irakasleen jarrerera etsia ikusita, ikasleek ez dute lana edo etorkizun ekonomikoa besterik buruan, eta denbora hori ahalik eta azkarren eta ondoen gaintetik kentzea. Eta gero lana. Gero profesionalizazioa. Baina badira fakultate batzuk, oraindik *Jakin*-en kezka iturri behar luketenak. Eta bertako irakaslee-



kin, edo beste laguntza batzuekin, *Jakin*-ek bertara heldu behar du. Bertako produkzioa, kezka, batu eta orriak eman behar dizkie. Demagun Kazetaritza, edo Arte Ederrak, Informatika edo Soziologia, Filosofia, Hizkuntzaren gainekoak... Euskal kultura, pentsamendua, komunikazioa, hor dira lan-gai. Eta guk tresna bat daukagu, aldizkari bat, tradizio bat, pentsamenduaren gaineko hari bat, kulturari buruzko ikuspegi bat. Esperientzia bat, 50 urtekoa. Ez da gutxi. Elkar ezagutzeko garaia da, elkar eragitekoa.

### Internet

Askotan sareen sarea irtenbide bezala planteatzen da. Maiz, gaitz guztien sorburu gisa ere. Bat ala beste, kontua da Internet garrantzitsua dela. Gurea bezalako hizkuntza eta kultura txiki batentzat oso-oso garrantzitsua dela azpimarratzea alferrikakoa da. Errezeta hori maiz aipatu dugu. Esan eta esan ari gara. Baina [Jakingunea.com](http://Jakingunea.com) gune horretara sartu eta topatuko duzu biblioteca bat, egurrezko apal eta fitxekin. Modernotik urruti, gaurko Internet berritik zeharo aldentuta, joera nagusietatik aparte... ez da erreferentziazko gune bat bisitariarentzat.

Bestelako presentzia behar luke *Jakin*-ek Interneten? Baiezkoan naiz ni. Eztabaida bultzatzeko, parte-hartzea areagotzeko, ezagupena hedatzeko, euskal kulturaren erreferentzia berriak behar ditu Internetek. Gero eta gehiago marka eta produktuei lotutako guneak ditugu, baina gutxi dira zehaztasun batez gure egoera aztertzen duten guneak. *Jakin*-en sorkuntza modernoa da, egungoa da, eta Interneten artxibo bezala dago, baina ez sorkuntza gune gisa. Hor badu erronka bat *Jakin*-ek, belaunaldi berriagoekin bat egin eta erreferentzia bilakatzeko.¶



## TERE IRASTORTZA

Jakina: jakin eta ekin

### Saiakeraren motorra

Orokorrean —eta *Jakin*-ek orain arteko zenbakietan jor-ratutako gaien hariari tira egin gabe— behar-beharrezko tokia hartu eta behar-beharrezko egitekoa bete du *Jakin*-ek: saiakeraren gordeleku izan da-eta, urte guztiotan.

Saiakerari tokia egitea behar-beharrezkoa zen 1956an, nabarmen diren arrazoi batzuegatik. Bazen hainbat erakun-deri lotutako ikerketa aldizkaririk. Aldizkari onak ere bai, gainera, «euskal gaia» jorratzeko. Baina:

- a) «euskal gaia» ere euskaraz jorratzen ez zenez,
- b) euskal gaia ez zena euskaraz jorratzea ametsa zen.

Aurreneko erabaki horrek —kanpotik begiratuta— euskal saiakeraren motorra izatera eraman du *Jakin*. Hainbesteari-no, non uste dudan *Jakin*-ik gabe saiakerak saiatzeko beste biderik ez zela izango.

Euskal liburuen merkatuak ez du saiakerarentzako, azken berrogeitamar urteotan, bazter-eremu bat baizik laga. Sor-tzaileon ikuspegitik, *Jakin* izan da Euskal Herriko saiatoki eta dibulgaziorako alor, sortu zenetik, belaunaldiz belaunal-di.

Irakurlearen ikuspegitik ere egiteko nabarmena bete du *Jakin*-ek. Izan ere, aldizkari bakar honek esparru ezberdinei buruzko eztabaidak eta gai nagusiak landu baititu. Euskal irakurlearentzat jakintza eremu zabaleko gaiak tratatzen as-matu du: dela hizkuntz planifikazioa, dela literatura, dela ekonomia edo politika.

### Egokitu eta sortu. Jakin eta ekin

*Berrogeita hamar* esatearekin bat, urteak adina egoera bi-zi izan dituen lan talde eta aldizkari baten ibilbideaz ari gara. Ibilbide horren ezaugarri nagusia, egoera berrietara egokitzeaz gain, egoera berriak sortzen saiatzea eta eragiten jakitea izan da. Etsirik gabe saiatzea.

Alde horretatik, uste dut, *Jakin*-ek, garaian-garaian egoki jokatu duela. Ezagutzen dudan neurrian *Jakin* aldizkari bat ez ezik, bada kultur-proiektioz lanean diharduen lan talde bat ere. Inondik inora, hartu behar da «saio» hitzaren balioa bere zentzurik praktikoenean ere. *Jakin*-ek idazteko aukera bat eman du, eta egiteko eta eragiteko aukerak aurkezten asmatu du. Bere liburu sailak ere merezi du aipamenik eta baita beste proiektuetan eman duen bultzadak ere.

### Aldizkaria: *Gai Nagusiak*

*Jakin*-ek kolaboratzaile sare zabala lortu du urteetan, eta kolaboratzaileei hitza emanaz ere gai eta ikuspuntu anitz eta zabalak eskaini ahal izan ditu. Zerbait hobetzekotan, hala ere, uste dut, esparru honetan egin behar duela beste ahalegin bat, batik bat *Gai Nagusien* planteamenduetan. Uste dudanez, gaiak hedapenez eta sakontasunez maila onarekin iristen dira, baina gai berari buruzko ikuspuntu bakarrarentzako izaten da tokia, gehienetan. Baliagarria izan daiteke —nire iritzirako— gaiari buruz egon daitezkeen beste ikuspegientzako tarte eta moldeak aurkitzea: iritzi laburragoak, liburu edo artikulua iruzkinak, bibliografia komentatuak... Forma aldetik, berriz, uste dut, hainbatetan, saio akademiko kutsu handiegia dutela, eta eredu hori ez dagokiola *Jakin* bezalako aldizkari bati, ez bada, unibertsitate-dibulgazioko eremuko aldizkarietara.

Orokorrean, irizten diot, badela euskarazko saioa argitaratzeko bestelako aldizkaririk ere, baina gehienetan, espezializatuegi ohi dela. *Jakin*-ek ondo baino hobeto eutsi dio irakurleko ez espezializatu baina jakin-gurako bati erantzuten. Agian, *Jakin*-en konpetentzia falta zaio euskal saiogin-

tzari, baina, arrazoibide hori gutxietsi gabe ere, uste dut *Jakin*-eko saioek akademikoegiak ez diren ereduak jorratu behar dituztela.

Gai Nagusien inguruan ale batzuetan egindako elkarrizketak ere oso aberatsak iruditu zaizkit. Alde batetik, aberastu egiten dute edozein gairen tratamendua eta, beste alde batetik, esperientziaren legamiak zubi berriak asmatzen eta eraikitzen laguntzen du, horien artean, iragan eta etorkizunaren artekoak.

### **Aldizkaria: Egunen gurpilean**

*Jakin*-ek Gai Nagusiak eta Egunen gurpilean formulekin oreka bati eusten asmatu du: egunerokotasunari ez ihes egiten, eta epe ertainean eta luzean garrantzizkoak izan daitezkeen gauzak batera lerratzen.

Hala eta guztiz ere, uste dut, hemen ere, beste ahalegin bat egin behar dela, eta, orokorrean, euskal kulturaren osagaiei buruz dugun aurreikuspen murriztaile baten isla ere badela hein batean, *Literatura*, *Soziolinguistika* eta *Telepolis* atalekin osatzea beti ez bada gehienetan kultura eta pentsamenduaren errota. Zientzia eta teknologiari, arteari eta egungo pentsamenduari, historiari eta ekonomiari buruzko ekarpenak ere, beste batzuen artean, interesgarriak joko nituzke, orain artekoak ere inolaz bazterretsi gabe. Atal honetan, formatuaz baino gehiago edukiez ari naiz pentsatzen.

Uste dut, gainera, egun, alor hauetan guztietan izan badugula euskaraz aritu daitekeenik, dibulgazio mailan.

### **Zorionak**

Zorionak eta eskerrak eman gabe ezin dut utzi zuen galderai erantzuteko tarte hau.

Euskal Herrian amets bati mila urtez eutsi diezaiokegun arren, ekimen bati mila ordutik eusteko talenturik ez dugu askotan izaten. Zer esanik ez, berrogeitamar urtez.

Ondo egindako lanak berak ematen duen pozaz gain, eta irakurleon sariaz gain, ukaezina da euskaldun askok zor handi bat duela *Jakin*-ekin. Zorrak kitatu gabe jarraituko badu ere, eskerrik eman gabeko adiorik behintzat ez.¶



## INAKI IRAZABALBEITIA

**1** ● Egia esan, *Jakin* beti aldean izan dudala inpresioa dut. Etxeko beste bat. 1977az geroztik naiz harpideduna eta ale guztiak etxeko apalategietan ditut jarriak, horrek etxe-koekin, toki falta dela eta, behin baino gehiagotan eztabai-datzera eraman banau ere. Kuttuntasunetik erantzungo diet *Jakin*-ekoen galderei beraz, eta, hain segur, subjektibotasunetik asko edango du idatzitakoak. *Jakin*-en ekarpenak bi alderdi nagusi ditu nik uste. Batetik, euskararen corpusaren eta diskurtsoaren normalizazioan eta estandarizazioan eragin nabarmena izan du, euskara batuaren bultzatzailea izan delako eta hizkera jaso eta formala landu dituelako. Gainera pentsamenduaren eta jakintzaren esparruan euskara ordura arte landugabeko alorretara eraman du, horrek hizkuntzari berari ekarri diolarik aberastasun handiagoa. *Jakin*-eko testuak ereduakotzat jo daitezke euskal prosa modernoaren ikuspegitik. Horregatik esker ona baino ez du merezi *Jakin* taldeak. Beste alde batetik, edukien zabaltasuna, egile-sorta oparoa eta eztabaida patxadatsurako eskaintako tartea azpimarratuko nituzke ekarpenen artean. *Jakin*-en orrialdeetan denetaz idatzi da, errespetuzko jarrera batetik eta goi-mailako diskurtsoa eta arrazoibideak usatuz. Hori bada azpimarragarria atzen urteotan Euskal Herrian bizi izandako giro latzaren testuinguruan. Gaien ikuspegitik, zerbait falta izatekotan —eta nire iritzia deformazio profesionalaren ondorioz lerratuta dagoke—, zientziaren ikuspegi soziala, filosofikoa eta kulturala oso gutxitan tratatu dela iruditzen zait. Zientzia eta teknologia gure kulturaren osagai bazterrezinak izanik, beraien eraginari, ondorioei eta pertzeptzio sozialari buruz jardutea *Jakin*-en esparruan bete-betean sartzten dela uste dut.

**2.** *Jakin* ezinbestekotzat jotzen dut euskal kulturaren esparruan. Euskarak pentsamendu- eta jakintza-aldizkariak behar ditu eta *Jakin*-ek egoki betetzen du hobi hori. Oraingo estiloa egokia iruditzen zait, nahiz eta tarte luzeagoa egingo niekeen artikulu motzagoei, bai ‘Egunen gurpilean’ modukoei baita luxeagoei ere. Gaiei eta edukiei euskal ikuspegia ematea interesgarria da, baina neronek ikuspegi zabala erabiliko nuke gaiak aukeratzeko unean: munduaren euskal ikuspegia. Euskal irakurleak jakintzaren eta pentsamenduari inguruan izan ditzakeen kezka eta jakin-nahia asetzeko nora jo izan behar du eta *Jakin*-ek erreferentzia hori eskaini beharko lioke. Halaber, gorago aipatu dudana bezala, zientziaren ikuspegi sozial, filosofiko eta kulturalari pisu handiagoa emango nioke. Gainerantzean ez dut kezka berezirik *Jakin*-i buruz eta orain den bezala asetzen nau, oro har. ¶



## XABIER ISASI

### Erdal basamortuan urmaeletako bat

*Jakin* aldizkariaren 50. urteurrena dela eta iritzia ematea egokitu zait. Atzera begira jarrita, hauxe da datorkidan aurreneko gogoeta: euskararen estandarizazioaren borroka eta aldizkariaren beraren bilakabidea banandu ezinekoak direla. Nola, basamortuetan urmaelak seinatuak diren, hala, urte ilunetan euskarazko argitalpenak nabarmentzen dira. *Jakin* aldizkaria hizkuntza batasunaren aldeko apustu sendotik abiatu zen, 50 urte igarota, apustua bete-betea asmatu zuela begien bistakoa da. Beste ikuspegitik, euskararen estandarizazio prozesuak atalase maila gainditu duela eman badezakegu, era berean, esan dezakegu *Jakin* estandarizazioaren itzalean hazitako argitalpena izan dela. Biak ala biak prozesu banaezinak direla esaten genuen.

Euskararen estandarizazio prozesua zelakoa izan den begiratzeko badugu, zera nabarmentzen da: ekimen pertsonalak edo gizatalde txikiko ekimenak izan direla euskarari, euskara batuari zehatzago, hauspoa eman diotenak. Eta hori, behar bada, izan da aldizkariaren beste ezaugarri nabarmenetako bat eta, bidenabar, haren iraunkortasun luzea ulertzeko gakoak. *Jakin* aldizkariak bere orrietan eta bere inguruetan bildu izan ditu *euskararen intelektual organikoak*, horretan, bederen, jakin izan du. *Intelektual organikoaren* ideia Gramsciren adieran ulertu behar da. Hau da, gizartearen egiturako osagaietan eragiten duen pertsona multzoa. Eta hizkuntza, euskara, gizarteko egiturako osagaia dela dudarik ez dago.

*Jakin* aldizkariaren inguruan bildutako idazle eta iritziemaile taldeak diferentzien gaintetik euskararen estandarizazioak behar zuen oinarritzko homogeneotasuna ekarri zuen.



Eginkizun horretan *Jakin* ez da izan tresna bakarra, jakina, bai, ordea, adierazgarrienetakoa. Aldizkariak, bai gaiak hautatzerakoan zein pertsonak aukeratzekoan, euskararen bilakaerarako giltzarriak zirenak hautatzen asmatu izan du. Euskararen estandarizazio eta komunitate euskalduna eratzeko intelektuaren kohesio-eragilea izan da. Kontuan hartuz zein nolako garaiak bizitzea tokatu zitzaizkion, ez da lan makala izan. Baina, aldi berean, ez dut uste zaila izan denik, gogorra, bai, baina naturala izan dela iritziko nioke.

*Jakin*, labur esanda, euskararen estandarizaziorako lanabesa izan da, batez ere. Alderdi batetik hizkuntza estandar jakinaren aldeko apustu praktikoa egin duelako. Eta, beste alderditik, gogoeta eta hausnarketarako plaza zabala ireki duelako. Politika gaiei muzin egin gabe, eta honi oso arraro deritzot, *Jakin* ez da bihurtu inongo alderdi edo indar politikoren tresna. Ikuspegi horretatik aldizkaria oso hizkuntzazko eta oso kulturazko agerkaria izan dela iruditzen zait. Euskal Herri santu honetan ez dakit hori bertute handia ala bekatu larria izan ote den, seguru asko bietatik zerbait du. Bertuteen aberrian zaila baita berrogeita hamar urte irautea inoiz edo behin bekatu larriren bat edo beste egin gabe.

Nago, ez ohiko garaiotako ez ohiko aldizkaria dela *Jakin*. Bizi izandako abagune politikoek, diktadura frankistatik autonomien estatuaren garaietaraino, eta, paraleloki, euskararen estandarizazio prozesuak eragin dute, nire ustez, neurririk handien, aldizkariaren gaietan eta erabilitako hizkuntza ereduan. *Atzo, biharraren erroa; bihar, atzoren lilia; egun, bien arteko landarea*. Iraganetik gerora, atzekoz aurrera gabiltzan honetan atsotitzak egoki isla dezakeen *Jakin*-en bilakaera. Aldizkariak erro sendoak dauzka euskaltzaleen komunitate intelektualean. Geroari begira, ostera, ez-ohiko egoeran hazitako landare hori zimel daiteke ohiko egoera berrietara ez bada egokitzen.

Azken urteotan, *euskalgintza* deritzan esparruetan ekimen ugari sortu dira, batzuk lehenago bestetarik geroago. Hazkuntza horretan interes kontrajarriak eta lehia antzuak sor-

tu dira eta ez gara konturatzen gure tamainak ez digula aukera handirik ematen horretarako. Kohesio maila egokia aurkitu behar dugu, taldeko interesak kontzertatu behar ditugu, *harmonizatu*, eta lehia antzuak baztertu. *Jakin* aldizkaria, bere historia eta ibilbideagatik, kohesioegilea izan daiteke. Atrebentzia ez bada, ez legoke gaizki, *Jakin* taldeko lagunek hizkuntza komunitatearen erakundetzea, euskaldunen burujabetasuna eta komunitate horren beharrianaz gogoeta jorratuko balute. Zerbait ikasiko genuke. Orain arte bezala.¶



## JOAN MARI LARRARTE

**1** ● Euskarazko argitalpena izatea eta 50 urte betetzea bera da, ziurrenik, *Jakin*-i aitortu beharreko ekarpena. Frankismo betean sortu, euskaraz argitaratu eta gaur egunera iristea ez da nolanhiko urratsa, aldizkariaren ibilbideaz gauza askorik ez dakienak ere erraz suma baitezake zenbat aldiz egon izango den kinkan, zentsurak eraginda, egoera ekonomikoak eraginda, euskarazko produktuek duten merkatuak eta kontsumo apalak eraginda, edo beste zerbaitek baldintzatuta. Beraz, zorionak.

Behin aurrekoa esanda, eta aipa daitezkeenak asko izan daitezkeela kontuan izanda ere, hiru ideiarekin bilduko nituzke ekarpen nagusiak: normalizazioa, sakontasuna eta erreferentzialtasuna.

Bat: euskararen normalizazioa, linguistikoa eta gaien erabilera.

- Euskararen ereduaren normalizazioa aipatu beharko genuke lehenik. Garaiko eztabaida eta banaketak kontuan izanda, garrantzitsua izan delako hizkuntza eredu jakin baten alde egitea sortu eta berehala, eta euskara batuaren alde egitea Euskaltzaindia erabakiak hartzen hasi zen unetik bertatik. Hizkuntza ereduaren arteko eztabaiden erdian, eredu baten aldeko apustua egitea garrantzi handikoa delako hizkuntza landua garatzeko eta egileak norabide berean jartzeko.
- Baina hizkuntza normalizazioan egindako ekarpena ez da mugatzen eredu soilera: hori baino zabalagoa da. Era askotako gaiak lantzen dituen aldizkaria izanik, eta gai horietako gehienetan ordura arteko euskarazko testuak oso urriak direnez, *Jakin* aukera izan da: bat, beste hiz-

kuntzetan bezala, euskaraz ere edozeri buruz idatz daitekeela erakusteko; bi, plaza bat eskainiz, hainbat egilek bere pentsamenduak eta ikerketak euskaraz landu eta argitara ditzan lortzeko; eta, hiru, jakingai askotan landu eta garatu gabe dagoen hizkuntza modernizatuz eta egokituz joateko.

Bi: sakontasuna gaietan.

- Izenak aditzera ematen duen bezala, jakintzarako aldizkaria izan da *Jakin* bere ibilbidean, hau da, ez da informazio soilerako aldizkaria, ikertu eta landutako artikulua argitaratzeko baizik, gogoetarako aldizkaria. Gaietan sakontzeko aukera eman du aldizkariak, landutako artikuluen bidez eta, bereziki, urteetan argitaratuz joan diren zenbaki ia monografiko eta dossierren bidez irakurleak ikuspegi anitzeko gogoetak jasotzeko aukera izan duelako.

Hiru: erreferentia izatea euskal hedabideentzat.

- *Jakin*-en erreferentzialtasuna ez da aldizkari motak eragindakoa, hizkuntzak eragindakoa baizik. XX. mendearen amaieran hedabideen ezaugarriak ez dira inondik ere aldizkari honek izan dituenak, baina erreferente izan da, euskarazko kultur produktuen kontsumoa txikia izanik ere euskarazko hedabideak behar direla eta egin daitezkeela erakutsi duelako, eta beste proiektu batzuk sortu ahal izateko aurreko bidea jorratu duelako.

**2.** Orain arteko ekarpenetako batean oinarrituko nuke, nire ustez, *Jakin*-ek aurrera begira egin beharreko bidea: sakontasunean.

Munduak daraman abiadurarekin, ematen du axala nahikoa duen gizartea antolatzen ari garela guztion artean.

- Adibidez, egunkariak irakurtzeko astirik ez dugunez, tituluak irakurtzera mugatzen gara eta, kasu askotan, oso informazio laburra ematen duten egunkariak nahikoa

ditugu (hiri handietan, milaka lagunentzat, metroko bidaiak irauten duena irauten du egunkari irakurketak, eta horretara egokitutako produktuek dute arrakasta).

- Adibidez, irrati eta telebistako tertulien formulak, garrantzi handiagoa du gai beraren gainean batek baino gehiagok oinarritzko ideiak planteatu eta eztabaidatzeak, batek bere planteamendua osatua eta landua agertzeak baino (ustez, informatuago baikaude askotariko iritziak jasota, ongi argumentatutako diskurtsoa jasota baino).

Horiek horrela izanik, artikulua landu eta elaboratuak argitaratuko dituen aldizkaria beharrezkoa dela esango nuke nik, axaletik mamira jo eta gaia jorratu eta landu duenaren iritzia eta argumentazioa ezagutzeko aukera emango duen aldizkari batek jakintza zabalduko duelako, eta irakurleari gogoeta eginaraziz iritzi sendoa sortzen lagunduko diolako.

Ezaugarri nagusi horretatik abiatuta, bi ideia azpimarratuko nituzke: batetik, gaiak Euskal Herrikoak izatea lehenesten den aldea naizela, kanpoko gaiez aritzeko tresna ugari dagoelako baina gure herria eta gure kultura jorratuko dituen hedabide erreferentea garatzea garrantzitsua delako; eta bi, aldizkari bakoitza monografikoa ez izan arren, ale bakoitzean gai bati buruzko dosierrak egitea bide ona dela gorago aipatutako sakontasunean.

Dudarik gabe, ikuspegi komertzial hutsetik begiratuta, aipatutako ezaugarriak dituen aldizkari batek ez du oso etorkizun oparoa, baina jende ikasia eta prestatua nahi baldin badugu, axaletik mamirako bidaiak egiten lagunduko duten tresnak ere behar dira, eta tresna horiek ziurtatzeko aukerak saiatzeko ezinbestekoa da.¶



## RITXI LIZARTZA

### *Jakin*, 1956-2006

Zorionak, zorionik beroenak *Jakin*-eko zuzendaritzako kide guztiei, 50 urteko bide luzea egitea iristeagatik. Erraza da esaten. Mende erdia, eta ia 40 urte zuzendaritza batek arduratu guztiak bere gain hartuta. Urteak aurrera doaz ia konturatu gabe, eta harritzeko modukoa izan da urte hauetan guztietan *Jakin* kulturgintzan erreferentzia izana. Beti moderno eta beti berri.

Era guztietako garaiak ezagutu dituzte, eta horien lekukotza egokiena *Jakin*-en historikoak osatzen du: zehatza, askotarikoa, arduratsua, goi mailakoa eta berrizalea. Denetan garrantzitsuena, garaian garaikoaren erreferentzia izatea, besterik ez zegoenean, eta baita era askotako lehiakideak sortu direnean ere.

Zuzendaritzak beste inork baino hobeto ezagutzen ditu zeintzuk izan diren 50 urte hauetan bizi izan dituzten kalamitate guztiak: jazarpen politikotik zentsura, agintarien urruntasunetik laguntza apalak (izan direnean), gizartearen utzikieratik eta kezka faltatik basamortuaren hotza.

Kulturgintzaren talaia izan da *Jakin* bere ibilbidean, eta, zuzendari den Joan Mari Torrealdaik aldarrikatu duen moduan, konprometitua eta independentea.

Independentzia gauza ederra da, harrotasunez erakustea dagoenean, norberaren bizitzako lanaren balorazioa egiteko garaian. Eta ez da lorpen makala gure gaurko gizartean bizirautea, saldukeriarik gabe, gutxiengoarentzat izatera bideratuta dagoen aldizkari batentzat. Pentsamenduaren aldizkaria izaki, politika eredia, kultur planteamenduak, hizkuntzaren normalizazio bideak eta halako gai arriskutsuei

buruz gogoeta egitea proposatzeagatik jazarpena jasan du behin baino gehiagotan. Eta hala ere aurrera egitea lortu du. Hortxe bere meritua.

Baina meriturik handiena eta zorionik beroenak emateko arrazoi nagusia beste bat ere bada: irakurtzen ez duen gizartea, gogoeta eta eztabaida gogoko ez dituen gizartea, politika eta politika bakarrik (eta hori ere azaletik) mintzagai duen gizartea, euskara ikur huts duen gizartea parean edukita, bere bidetik atera gabe aurrera egin ahal izatea.

Neure buruari galdetu izan diot nola iraun zezakeen merkatuan halako aldizkari batek, ia laguntzarik gabe, gehiengotan batere publizitaterik txertatu gabe, beti muturreko egoerara, beti gabeziak itota. Harritzeko moduan erantzun izan dio beti *Jakin* aldizkariak kaleratzeko hitzorduari, kalitateari eta interesari muzin egin gabe. Esandakoaren lekukoa da urtetan maiztasun aldakorra izatea, bi zenbaki batean atera beharra; azken hamarkada bera ere izan da maiz horren lekuko.

Baina askoz gehiagotan galdetu izan diot neure buruari zergatik egon ote diren Joan Mari eta zuzendaritzako beste kideak tematuta urte hauetan *Jakin*-ek argia ikusten jarrai dezan. Jakinik hamaika gai interesgarri proposatu izan direla; jakinik sarritan goi mailako kolaboratzaileen parte-hartzea izan duela; jakinik, azken batean, gizarteak ez diola behar bezala eutsi izan kulturagintzaz gogoeta egin nahi duen talde arduratsu eta kezkatu bati. Kulturagintza astindu, euskaraz, errentagarritasunari begiratu gabe. A ze hippie koa-drila, gure garaietarako!

Zenbat eta zenbat proposamen planteatu diren eztabaidak, mahai-inguruak, gogoetak egiteko. Eta zer emaitza eskasa eman duen gai horien aurrean, berez kulturagintza, herriagintza eta euskalgintza kezka omen dituen gure gizarte konprometituak.

Eta, hala ere, hasierako ilusioarekin kalera, gizarteari enbidoa luzatuz, gaien bilgune, iritzien bilgune eta euskaltzaileen bilgune bihurturik.

50 urtetan euskararen eta euskal kulturaren inguruan ger-taturiko gorabehera nagusien lekuko eta partaide izan da *Jakin*: euskara batua, irakaskuntza, aldaketa politikoak, he-rrri eredia, euskarazko komunikabideak...

Eklektikoa eta garai berrietara moldaeraza agertu zaigu *Jakin* aldizkaria. Teologia eta filosofia izan ziren sorkuntza garaiko jorragaiak, baina 1964/66 urteetan jauzia eman zuen eta politika eredia, euskalgintza eta kultura lantzer-a pasatu zen, *teologia ikasleena izatetik, euskal gazteriarena izatera* (sic).

Bigarren aldian, berriz, gure gizarteak urteetan bizi izan dituen beharretara egokitzuz joan da, eta, askotan aitzindari agertuz, gai berriak eta eztabaida emankorrak planteatu di-tu: pentsaera politikoa, soziolinguistika, euskalgintza, litera-tura, kazetaritza, ekonomia, zientzia eta gizartea... kultura. Horixe edukien aldetiko bere meriturik handiena, garaian garaiko gaien gaineko intuizioa izan eta gizarteari gogoeta eta iritzi bilduma planteatzea.

Hortxe dago Euskal Herriaren kulturgintzaren lekuko jan-tzia (era guztietako adituek beren iritziekin osatua), 50 ur-teko altxorra, datu-base egokia euskal kulturaren hainbat gailurren bilakaeraren historia egin ahal izateko: telebista, egunkaria, irakaskuntza sistema, kantagintza, literatura, eta abar. Hortxe egunez egun osatutako iritzien historia. Gure herriaz eta azken mende erdian bizi izan ditugun kezkez ha-maika historia idatz daitezke fondo horretan biltzen den materiala aztertuz gero. Baina horixe falta izan da beti. Ha-lako material baliotsuari helduko dionik.

*Jakin* berritzailea eta ausarta ere agertu da hasieratik. Izan ere, zuzendaritzako kide eta ohiko kolaboratzaileek sarritan idatzi dituzte beren gogoetak *Jakin*-en, baina hasieratik ber-tatik gazte askori eman diete aukera bertan idazteko. Batzuk denborarekin ezagunak izatera iritsi direnak, besteak behin edo idatzi eta bide horretan jarraitu ez dutenak.

Ederra litzateke Joan Mari Torrealdaik *Jakin*-en historia txikia liburu batean biltzea; *Jakin*-en sorreratik bertatik era



guztietako gogoetak, azterketak eta eztabaidak bizi izan ditu, eta Espainiako 1939-1975 diktaduraren erdialdetik abiatuta, Euskal Herrian jazo diren aldaketen lekuko pribilegiatua izan da: erlijioa eta laikotasuna, euskara eredua, nazio eredua, demokrazia eredua...

Eta beste lan bat ere egin liteke, fondoak arakatuz gero, garaian-garaian zer eratako ametsak izan dituen herri honek, zer eratako gogoetak egin dituen, eta horietatik asko zergatik eta noren erruz gelditu diren bidean.

Garaian garaiko kezkei buruzko debatea eta gogoeta bultzatzea, horixe izan da *Jakin*-en helburua eta lorpen nagusia. Debateak sortu aurretik ere inizatiba hartzea, kultur-gintzaren inguruan bere kabuz gogoetak egin eta kezkek azaldu nahi izan dituen orori ateak irekitzea. Eta euskaraz, ezin ahaztu hori. Euskaraz iraun du 50 urtean.

Egindako lanetatik sortu dira beste hainbat proiektu, XX. mendeko euskal liburuen bibliografia, euskal liburugintzaren katalogazioa, adibidez. Lan erraldoia, Joan Marik berak bikain bildu eta sistematizatua. Baina gure euskalgintzaren beste proiektu askok ere ikusi dute argia, beste batzuen artean, *Jakin*-en babesari esker. *Euskaldunon Egunkaria*-k eta haren oinordeko *Berria*-k hortxe izan dute lankide eta aholkulari *Jakin*-eko zuzendaritza taldea.

Ezin ahaztu *Jakin*-en zigilupean kaleratutako filosofia eta pentsaera liburuak, Joxe Azurmendik gidatutako bilduma alegia.

Herri, kultura eta hizkuntza esparruz txikien komunikabideen patua, behin eta berriro galdetu beharra zein den bere lekua, nola hasieran, hala 50 urte betetzean. Askok aldatu dira kontuak *Jakin* sortu zenetik gure egunetara. Bakarrrik egotetik hamaika eratako «lehiakide» izatera. Bidaide dituen hainbat aldizkari espezialdu (*Egan*, *Bat*, *Uztaro*, *Zutabe*...), beste izaera bateko berripaperen gehigarriak (*Argia*-ren *Larrun*, *Berria*-ren monografikoak), sareko berri eta iritzi biltzaileak (*Sustatu*, *Erabili*...), eta abar. Ona litzateke denen artean gizarte mailan debatea piztu ahal izatea. Azken batean,

aldizkariak baino gehiago, irakurleagoak behar baitu homologazioa lortu, bere revalida gaitu.

Eta aldizkari horien denen aldean, *Jakin*-ek badauka bere esparru propioa. Hasteko eta behin, kulturgintzari arlo guztietatik heltzen dio. Gaiak modu monografikoan edo askotarikoan proposatzen dituzenean, patxadaz aztertzeke aukera ematen du, sakontasunetik, eguneko urruntzeak ematen duen perspektiba jorratzeko modu bikaina da.

Eta ona litzateke artikuluok (eta orain artekoak) aldiro sarean topatzea, baina *Jakin*-ek paper formatuari zor dio bere lekua, irakurketa pausatuari, irakurritakoaren gaineko gogoeta lasaia egin eta nork bere ondorioak ateratzeko.

Oso tentagarria da kulturgintza inguruko gaiak jorratzen dituen aldizkaria unibertsitate bidaltzeko proposamena egitea, «hango jakin-nahiarekin adostu hadi!» esanez, baina horrek erakutsiko luke zenbateko beharra duen gure gizarteak. *Jakin*-ek ez du sekula galdu hasieratik bertatik izan zuen lotura akademikoa. Eta zubien arteko bat izan daiteke, unibertsitatea eta gizarte lotzeko. Baina gizarteak berak eutsi beharko lioke halako planteamenduak etxera eramaten dizkion aldizkari bati.

Eta bide horretan, gizartean pil-pilean dauden edo egongo diren auziak biltzeko plataforma edo talaia aproposa izaten jarraitzea du ogibide. Hona hemen hainbat gai:

- Antzerkigintza: talde berriak sortzeko ezina.
- Azpiegiturak: AHT, errepide sarea, aireportuak; komunikazio bideak eta herrigintza.
- Diaspora: Euskal Herria eta diaspora lotura sinboloen bidez bakarrik ez lotzeko gogoeta.
- Euskalduntzea: euskalduntze prozesuaren emaitza apalak; immigrazioa eta euskara; justizia, industria eta osasun munduak euskalduntzea.
- Hizkuntza: komunikabideetako hizkuntza erabilera; gazte hizkera.
- Internet: euskararen presentzia Interneten, blogintza, Internet bidezko komunikabideak.

- Irakaskuntza: curriculum diseinuaren alorrean landutako bi ereduak; hizkuntza ereduak; euskarazko irakaskuntzaren euskalduntze maila.
- Kazetaritza: herriz herriko egunkari eta aldizkarien geroa.
- Kultura: diru-laguntzen araberako kulturgintza; Eusko Jaurlaritzaren laguntzetarako irizpideen azterketa; erakunde publikoen eta herri mugimenduen arteko lankidetzak.
- Literatura: egilea, idazlea... ala editorea? Liburu azokak.
- Publizitatea eta euskara. Euskararen erabilera publizitate munduan.
- Telebista. Lurreko telebista digitala eta euskara. ETB eta euskara.

Nire ustez, *Jakin*-ek topatu behar du oraindik ere plaza zabalago batera iristeko modua. Zer egin, ordea? Aldizkari-gintzaren mugetatik atera eta kongresuak, batzarrak, jardunaldiak antolatu? Beharbada hitzarmen bidez jokatzeko ego-kiagoa izan daiteke. Horretarako, unibertsitateekin (UEU, EHU, HUHEZI, Deustua) eta kulturgintzaren alor guztietako erakunde gremialekin adosturik, aldizkarirako egokiak izan daitezkeen edukien gaineko batzarrak proposa ditzake, eta bertan aurkezten diren ponentziak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gehienetan inon biltzen ez direnak, aldizkari-*ra* ekarri, egindako gogoetak bertaratutakoen kopurua gaintzeko eta gizartean oihartzun zabalagoa izateko.

Azkeneko urteetan, eguneko zurrumbilotik bazter geratu diren edo egotea erabaki duten adituak elkarrizketa luze eta sakonen bidez *Jakin*-en orrialdeetara ekartzea ere oso bide ona dela deritzot, gehiago jorratu beharrekoa.

Eta askotariko iritziak biltzen jarraitzea, independente izaten segituko badu.

Hortxe, apal-apal, nire iritziz *Jakin*-ek dituen erronkak eta egitekoak. Bejondeiola!¶



## XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

**1** ● *Jakin* aldizkaria ia hasieratik beretik ezagutu dut eta 61 urte ditudanez neure biografiari eta Euskal Herriko azken 50 urteei estuki loturik ikusten dut.

Euskalgintzan estilo eta aire berriak ekarri zituen, nola hizkuntza hala mamiz eta gaur eguneko euskal kulturaren garatze-unea nekez ulertu ahal izango litzateke *Jakin*-ek zuzenean eta zeharka izan duen eragina gabe.

Hizkuntzari dagokionez, nazioarteko prosa homologagarri baten ildo urratu zuen jatorrizko euskararen baitatiko baliabideen eta erdaretatiko maileguen erabilera orekatua bultzatuz, aurreko euskararen muga hertsia gaindituz.

Gaiei dagokienez, aldiari aldiko interes nagusiekiko beti sentibera agertu dela iruditzen zait, eta izan dituen muga guztiak kontuan izanda, dibulgazio maila egoki batean ari izan delakoan nago.

Erakunde eta taldeekiko autonomiari dagokionez, bere lekuan egoten jakin duela uste dut, eta maila kritiko egoki bati eutsi diola bere historian zehar, baina kritika eraikitzailea burutuz. Idazle batzuen parte-hartzea nabarmen handiago izan da beste batzuenaren aldean, baina seguru asko une batzuetan ezin zitekeen bestera izan. Azken aldietan parte-hartze hori zabaldu eta aberastu duelakoan nago eta horri jokatze egokia deritzot.

**2** ● Funtsean ez nuke azken aldiari egin duen bideko ereduetatik gehiegi aldatuko.

Ahalegin berezi bat egin ote daiteke zabalkunde handixea goa lortzeko eta formatu aldetik itxura gaurkoago bat har dezan? Bistan da horretarako diru-laguntza hobek behar-

ko lituzkeela eta kanpaina bat antolatzea ez litzateke baztertu beharko.

50. urteurren honek konpromisoren bat ekarri beharko luke Euskal Herriko agintarien aldetik *Jakin*-ek jasan dituen neke eta erasoak kontuan harturik, dagozkion kalte-ordainak emateko.

Gaien aukeran oreka bati eutsi behar diola uste dut: orokorrak, berezituak eta euskal gaietan bereziki talaia iraukorra izanez. Egia da irakurzaletasuna ez doala gero eta gehiagora, eta testuek sakontasuna galdu gabe belaunaldi berrien joera hori kontuan hartu beharko dutela aurkezteko moduan.

Euskarriei dagokienez, Internet kontuan hartu eta lantzea ezinbestekoa izango da, batez ere etorkizunean aukera horrek gero eta joko handiagoa emango baitu.

Azkenik, beste aldizkari batzuetan erabili izan den gai jakin baten inguruan solaskide kualifikatuak bildu eta elkarriketa gidatuak egitearen formula ere erabilgarria izan litekeela uste dut.

Hitz batean, orain arteko funtsari eutsiz garai eta premia berrietara egokitze-ahalegina egiteari egoki deritzot, baina *Jakin*-ek, oro har, bide egokia egin duelakoan nago eta etorkizunerako ere baliozkoa dela esango nuke.¶



## XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

### Biologiaren mugak gaindituz

Aldizkari osoa sarean ikusgai dagoela-eta, sartu naiz nire parte-hartzearen berri ikusteko. «Kontxo, ez da makala», esan dut neure artean, 27 bat artikulu egin ditudala ikustean. Hala ere, ondo gogoan dut lehendabizikoa eta huraxe nahi nuke aipatu, egolatria barkatzen badidazue.

1988an izan zen, Internetek gezurrik esaten ez badu, nik 24 urte bete berriak nituela. Joan Mari Torreal dai etorri zitzaidan, euskal literaturaren gainean *Jakin*-ek antolatu behar zuen hitzaldi-sorta batean neure alea eskatzera, gero hura aldizkarirako ere erabiliko zela abisatuz. Testua hor dago, baina nahiago izan dut ez irakurri, badaezpada ere.

Ez dakit zer pentsatu nuen garai hartan *Jakin*-ekoen eskariaz. Idazletzan nahiz editoretzan lotsagabe abiatu berri zen gaztetxo ausarta nintzenez, normala eta guzti irudituko zitzaidan, akaso. Gaurko talaiatik, berriz, garbi ikusten dut eskabidea ez zidatela neure merituen amorez egin, ezpada gazteei plazara jalgitzeko parada eskaini beharrez. Bakoitzaren gurasoen mesedeak norberaren seme-alabenganako arduraz ordaintzen diren moduan, ni baino gazteagoei aukerak emanez saiatu naiz kitatzen aurrekoekiko zorra.

*Jakin*-en ibilbidea aztertzerakoan, talde-lanaren indarra aipatuko nuke, batetik, eta taldearen irekitasuna, bestetik. Ez bakarrik kanpoko jendea laguntzaile moduan erakartzeko (Rikardo Arregi, Karlos Santamaria eta abar), baita taldeki-deek beste hainbat proiektutan buru-belarri jarduteko ere.

Jakin taldea esanda, ez dut urtean lau edo sei aldiz ateratzen den aldizkaria bakarrik esaten: *Anaitasuna* ere esaten dut, UZEI esaten dut, Harluxet fundazioa esaten dut, Lanki-

de Aurrezkiarentzat egindako liburu entziklopedikoak esaten dut...

Zabalago hartuta, Jakin taldeko kideek modu nabarmenean bultzatu eta lagundu dituzten proiektuak zenbatzen hasiz gero, amaigabea egiten zait zerrenda: lehengo eta oraingo euskal prentsa ia guztia, euskalgintza egituratzeko erakunde gehienak, kulturgintzako enpresa esanguratsuenak... Horiek nik ezagutzen ditudanak; izango dira aditzerik ez dudana hamaita lan eta isilik gorde beharreko hamabi endredo.

Eta guztietan estilo bat: lana ondo betetzea, lankideekin zintzo jokatzeko, sektoreko gainerako eragileekin elkarlana bilatzea... Jakituria eta apaltasuna eskutik helduta, lanerako gaitasuna eta eskuzabaltasuna uztarrian jarriarik. Ez dakit noizbaiteko euskaldun balizkoaren jatorria ezaugarriak diren horiek, ala Arantzazuko marka ala... Hala balitz formula eskatu beharko genuke, urtean horrelako dozena bat lagun behintzat ateratzeko. Zorionez ala zoritxarrez, izen-abizenak dituzten pertsona jakin batzuen dohain apartak direla esango nuke, eta ez ditut izendatuko, badakit baten bat lotsatu egingo litzatekeela eta.

Apartekotasun hori bera da, alabaina, etorkizunerako koxka larriena. Alegia, beste nonbait esan nuen moduan, azken berrogei urteotan taldeburu izan diren horiek, sasoi intelektual bete-betean baldin badabiltza ere, ezingo dira izan datozen berrogei urteetako euskal kulturako protagonista eta eragile, eta horrelako lagunak ez dira topatzen dozenan hamahiru.

Txiste merkea barkatzen badidazue, fraideek ez dute ondorengo biologikorik utzi ohi, *Jakin*-eko taldean gehienak bizimodu zibilera itzuli badira ere; eta inor ez da hasiko Arantzazura begira, handik zer mirari etorriko.

Idazle, artista nahiz kudeatzaileek bere aldia dute, eta bere argia amaitu ostean itzali egiten dira. Kultur plataformak, berriz, sortu zituztenekin irautzen dira batzuetan (edo askoz lehenago), eta luzaro irautea lortzen dute beste batzuetan. Euskal kulturgintzan bietako adibideak dauzkagu;

tamalez, askoz ugariago dira sortu eta laster, urte gutxiren buruan galdu diren talde, aldizkari, argitaletxe eta beste; gure egitura ahulen salagarri. Horien aldean adin ederra da 50 urte betetzea, *Jakin*-ek bete dituen bezala, baina nik nahia-go bizirik eta sasoiari jarraituko balu. Noiz arte? Aldian aldiko euskaldunek izango dute hitza.

Esaten ari naizen hau edonork daki, eta inork baino hobeto Jakin taldekoek. Hainbat laguni eskatu zaigun idazlantxo hau da horren erakusgarri: aldizkaria geroan nolakoa nahi genukeen galdezka. Ez dut uste inkestak egitea merezi duenik: argazkiak sartuko ditugu aldizkarian?, politikago bihurtuko dugu?, kulturalistago?, munduko joerei ala Euskal Herriko arazoei emango diegu lehentasuna?

Axola gutxi zaizkidan xehetasunak dira horiek. Funtsezko bereizgarria, niretzat, *Jakin*-ek beti izan duen jarrera da: euskara izatea euskal kulturaren erdigunetzat, eta euskal kultura eremu naturaltzat, politikarekiko eta agintariekiko askatasuna mantenduz baina inor kritikatzeko beharra ikusiz gero bere ahotsa altxatzeko beldurrik gabe.

Hortik aurrera, zaila izango da oraingo arduradunen talentua berdintzea baina, nolana dela, proiektu bat eduki eta hartan sinetsiko duen jendea behar dugu lemazain, ideiak argi izango dituztenak, orain arte bezala euskal kulturaren erreferentziatzeko gogoeta-gune izateko eta beste 50 urteko ibilbideari ekiteko.

Jaio daitezela berriak!¶





## LAURA MINTEGI

... eta ez balego, asmatu beharko litzateke

Etxera itzuli bakoitzean beti eskaratzean topatzen duzun ama bezalakoa da *Jakin* aldizkaria, segurutzat jotzen den presentzia, beti egon dagoena, eta falta den arte ez zara ohartzen haren gabeziak. Orduan preziatzen duzu gehien, haren ausentziak espazioa hartzen duenean.

Euskal kulturgintzarekin batera, aldamenean, azpian, aurretik, giblean jardun du *Jakin*-ek 50 urtean. Gutariko askok bete dugun adina bete du berak ere, eta gazte ikusten da oraindik, etengabe jarduteak eta oztopoen gainetik aurrera egin beharrak ematen duten bizitasunari esker.

Ez dakit nola, baina lortu du erreferente izatea eta erdigune ez-ekidistantean mantentzea euskalgintzaren munduan, non eta lege maotsetungdarra (bata bitan banatzen da) gupidagabe betetzen den herrialdean: politikagintzan ez ezik kulturgintzan ere lubakien dinamikak amildegi gaindiezina eraiki ditu ideologia kontrajarrien artean, eta *Jakin*-ek eginahalak egin ditu, izan ere, bi uren artean igerian ibiltzeko eroso. Abilezia erakutsi du horretan, eta laudorio gisa diot, ironiarik gabe.

Ez dakit zelan, baina erradikal agertu da moderatuen artean eta moderatu erradikalen irudiko. Estaturazaleen ustez abertzaleegi eta ezkertiarregi jokatu du maiz, eta labur geratu da abertzaleago eta ezkertiarago nahi luketenentzako. Egiatan gaitasuna behar da, izan, auzoaren etxean eta norberarenean berdin-berdin mintzatzeko, inoren lurraldean bizitzeko, batzuen eta besteen begirunea bereganatzeko. Gaitasuna behar da, edo apaizen jokamoldeak ondo ezagutu, sakon.

Arriskuak ere bereganatu ditu, noski. Eta larrutik ordaindu du ausardia bere historian zehar, frankismoaren garaian eta demokraziarenean, berriki eta aspaldian. Berari esker jakin izan dugu inor ez zela ukiezina estatuaren boterearen aurrean. Inor ere ez. Ezta *Jakin* ere, nork esango zukeen! Hura atxilotu badute, nor dago libro hemen? Irakasgai zaila, mingotsa, eta *Jakin* berriz aritu da maisu, teorian eta praktikan.

Bide urratzailea eta gidaria izan da hainbat arlotan, hizkuntzaren erabilera normalizatuan, gaien aukeraketan, aurkako iritzidunei debateguneak eskaintzean. Intuizioa izan du seinlatu duenean nondik joko zuen kulturgintzak, zein bideri eman lehentasuna, nolako kontuak merezi zuen jorratzea.

Dena ez da losina eta gozotasuna, ordea. Meritua duen horrek demeritua ere badu aldi berean. Monografiak sortzen duen interesa, desinteresa bihur daiteke gaiak ez bazaitu harapatzen. Kolaboratzaile ezagun eta errepikatuak duen erakargarritasuna, arbuigarri bihur daiteke egileek beren diskurtsoa berritzen ez badute. Hausnarketarako beharrezkoa den bi hilabeteko aldia, luzeegia izan daiteke gaurkotasunari atxikitzeko. Maiztasuna areagotzeko dauden arrazoi berberak erabil litezke zenbakien arteko aldea edo argitalpenen aldikotasuna geldotzeko. Eta, azkenik, aldizkariari izaera ematen dion sakontasuna astunegia izan daiteke adituak ez badio puntua hartzen bere eruditismoari, dibulgazio-sakontze-aldizkariaren tonuarekin asmatu ezean alegia.

Nola asmatu, bada, bertutea bekatu bihur badaiteke? Eranztuna Jakinzaleek emango dute aiseago, dotrina kontuetan adituagoak baitira lerrook idazten dituen sinesbako hau baino. Errespetu osoz esanda, berriz ere.

Eta hemendik aurrera, zer? Nondik jo hurrengo 50 urtean? Auskalo. Paperean ikusten dut *Jakin*, estetika apala eta irudi barik. Erakargarritasuna hitzek ematen diote, ideiek, pentsamenduek. Irudi nahikoa eta sobera dugu beste euskarriekin. Baina formetan soila izateak ez du esan nahi teknologia berriei lepoa eman behar dienik. Digitalizazioak eta sarean

eskura jartzeak indartu egiten dute paperezko formatuaren erabilgarritasuna. Bilaketak errazten ditu, ordenaketa tematikoa ahalbidetzen du, egile eta gaien erreferentzia arina eskain dezake... Horrek guztiak baina —argi gera dadin— ez du hobia egingo produktua. *Jakin*-ek bere izaerari eutsi behar dio eta bi dira, izan ere, beraren ezaugarri behinenak: gaiak aukeratzeko egokitasuna eta unean uneko egile taldearen kalitatea. Bi horietan asmatuz gero, asmatu egingo du aurrerantzean ere.

Monografiak mantendu arren, gai multzoa handitu eta dibertsifikatu liteke. Maiztasuna ere azkartu liteke eta atal finkoen kopurua handitu, hori guztia helburu batekin, zenbaki bakoitzarekin irakurle eremu zabalagoengana ailegatu ahal izateko. Baina hori guztia egin gabe ere berdin-berdin mantentzeko, eta horrela ekin hurrengo hamaika urteri. Formulak funtzionatuko luke.

Akatsa —akatsik egotekotan— ez da produktuarena. Arazoa da nola hurbildu irakurleak produktu horretara. Beldurra emango lidake jakiteak zein den jakinzaleen batez besteko adina. Argitalpen guztiek konpartitzen duten ardura da, noski, baina *Jakin* bezalako produktuarekin are eta larriagoa izango da irakurle gazteak (hogeita hamar urtetik beherakoak esan nahi da) erakartzea.

Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkiet aldizkariaren arduradunei proiektu honetan parte hartzeko eman didaten aukeragatik. 1987an argitaratu nuen lehen artikulua *Jakin*-en, 45. zenbakian, «Emakumea eta literatura» monografiko interesgarrian, eta 1993an lehenengoz eskatu zidaten urteko balantzean parte har nezan. Orditik hona 21 artikulua argitaratu ditut, batzuk urteroko balantzeetan, eta beste batzuk *Egunen gurpilean* atal finkoan. Ez naiz kexu.

Hala ere balantzeak egiten gabiltzan honetan, jakinzaleei gogorarazi nahi nieke 1997an aldizkariaren arduradunei bidali nien gutunaren zatia, hitzez hitz:

Lehenengo eta behin zorionak bete berri dituzuen ehun zenbakiengatik, hogeitaz urteren gurpilean.

Urte askotarako izan dadila baina gauza batean behintzat, hurrengo ehun zenbakiak orain ez bezala gara daitezela opa dizuet. Azalduko dut zertan dakusadan aldatzeko beharra.

Imanol Muruak idatzi duen balantzea ikusirik begi bistan geratu zait aurretik somatzen nuena, emakumeok existitu existitzen ez garela euskal kulturari, edo hobe esanik, jakinkideen begietan antza.

Emakume bakarraren artikulua ez da agertzen aipatu balantzearen oharretan, eta «Emakumea eta Literatura»ri eskainitako zenbaki monografikoak bakarrik merezi izan du lerro bat terdi 39 orrialdeko artikuluan. Benetan zaila da espazio gutxiago eskaintzea emakumeek hogeitertan egindako lanari.

Ez dut pentsatu nahi *Jakin* aldizkaria urtetan zehar elizgizonen eskuetan egoteak eraginik izan duenik emakumeei eskainitako presentzia murriztuan. Are gutxiago esango nuke jakinkideon artean borondate misoginorik dagoenik, ez dut uste hori denik kasua. Baina emaitzak oso antzekoak dira. Misoginoak izanez gero nekez ondu zitekeen *Jakin*-en marka emakumeen presentziari (ezari) dagokiola.

Tonua aldatuko nuke, baina edukia, ez (badakizu, Joan Mari, behin esan zenidanez *burdinazko eskua zetazko eskunarruan*). Gabezia handia sumatzen dut, oraindik ere, *Jakin* aldizkarian emakume egileen presentziari dagokiola. Eta kupozalea ez naizen arren, kosta egiten zait sinestea emakume kopuru handiagorik ez dagoela iritzi-emailea izatea merezi duenik.

Amaitzeko (orain bai), zorionak eman nahi dizkiot *Jakin*-i. Zorionak berau irakurri —eta bertan idatzi— ahal dugun gutariko bakoitzari. *Jakin*-ek bizirik dirau, eskaratzean dago oraindik ere. Eta ez balego asmatu beharko litzateke. ¶



## JOXE MANUEL ODRIUZOLA

*Jakin* aldizkariaren ekarpenak zertan diren ikusteko, honako irizpide honi jarraikiko natzaio: ahozko kulturen oinarritutako herri edo etnia-kultura bat nola bihurtzen den nazio moderno baten kultura idatzia. Horretarako Adrian Hastings-en tesietan oinarrituko naiz.

Kultura etnikoan oinarritutako herri-identitate bat nazio-identitate modernoa bihurtuko bada, ezinbestekoa omen da herri-mintzairan kultura idatziaren hizkuntza bihurtzea. Dakigunez, kultura etnikoaren ezaugarriak gogoan, hizkuntza mintzatuaren ardatzean elkartutako komunitatea da egitura etnikoa. Aro modernoaren aurretikakoa.

Zeri zor zaio orduan identitate etnikoa nazio-identitatearen kontzientzia bihurtzeko eraldatze hori? Zerk ahalbidetzen du herritar etniko bat herritar nazionala bihurtzea? Nola bihur daiteke ahozko kultura tradizionalan oinarritutako Euskal Herri *etniko* bat Euskal Herri *nazional* bat? Beste modu batera galdetuta: nola saihets dezake gure herriak bere buruaz beste egitea bere buruaren kontzientzia nazionala piztu eta egituratu gabe?

Gauza jakina omen da honakoa: nazio-hizkuntza bihurtzen ez den herri-hizkuntza etnozidioaren atean dago. Akulturazioaren eta asimilazioaren baldintza guztiak aterian omen dauzka halakoak. Gizarte modernoaren hizkuntza bihurtzen ez den hizkuntza-herriak urkamendia besterik ezin du espero. Eta, nik gaineratuko nuke, ataka larri eta zehatz horretan jaio zela *Jakin* aldizkaria. Eta ataka soziolinguistiko horren estatusunak inarrosi zituela *Jakin* sortu zuten kideen buru-bihotzak.

Ederki konturatu bide ziren hizkuntza idatziaren oinarritzko zereginaz *Jakin*-en sortzaileak. Kultura eta pentsamendu

idatziaren ezinbesteko urratsaz. Eta urrats hori eman ezean, ez zioten herri honi etorkizunik ikusten. Ez baitzen aski ahozkotasunean oinarritutako pentsamenduari eta kulturari atxikita bizitzea. Horrenbestez, euskal gizarte berriaren oinarritzko hariak hizkuntza idatziaren jostorrazak josten zituela konturatu ziren.

Hastingsekin bat eginez, identitate etnikoak modu naturalean bihurtzen dira nazio-identitate hark egin beharreko urratsa egiten badu. Urrats hori, esan dugunez, hizkuntzaren esparruan gertatzen da batez ere, beste inon baino areago. Hau da, hizkuntzaren erabilera-esparruetan, ordura arte ahozko jardunetan baizik erabiltzen ez zen herri-mintzaira, euskari idatzian oinarrituriko zereginetarako erabiltzen denean sortuko da nazio izatearen auto-identifikazioa. Ahozko kulturaren herri-mintzairak ez zuen efektu berri bat eragingo du beraz hizkuntza idatziaren funtzioak: nazio-kultura jakin eta zehatz bateko sentitzen gara, geure buruak horren arabera definitzen ditugu, eta era horretara jadanik ez gara espainolak edo frantsesak. Urrats hori eman ezean, berriz, ez da halako *iraultzarik* gertatzen auto-identitatearen definizioan: euskalduna izango naiz, agian euskaldun hutsa, elebakarra, baina nigan ez da erneko nazio euskalduneko kide izatearen auto-identifikaziorik. Hori da araua, salbuespenak salbuespen.

Aipatu berri dugun identitate-*iraultza* horren beharra sumatu bide zuten *Jakin*-en sustatzaileek. Gainera, ezin zitekeen bestela izan: kultura modernoaren pentsamendua erdararen iturritik edanda, nola bihurtu izan ere Euskal Herri etniko hura bere buruaren nortasun propioaz jabetutako nazio bat? Nola eraiki inolako Euskal Herririk euskara erabilera diglosikoaren infernuko zuloan utzita? Ez dakit nik Arantzazuko izpiritua argiari zor zaion horretaz konturatu izana, baina, dudarik gabe, argiren bat agertu zitzaizen *Jakin*-en sortzaileei etnozidioaren osinean barrena zihoan herri honen patu beltzaz ohartzeko.

*Jakin*-en helburua, oker ez banago, aldian aldiko pentsamenduaren eta kulturaren ehunak euskaraz jostea izan da.

Egungo gizartearen eta kulturaren pentsamendua euskararen lantegian ekoiztea. Euskara idatziaren lantegia zabaldu zuen *Jakin*-ek, eta lantegi koskor hori zabaldua edukitzeak sortu dizkion buruhaustek alde batera utzita, aldiaren aldiko kezkei erantzuten saiatu da ahal izan duen moduan. Ez nahi bezala, jakina. Herri honetan ontzen den pentsamendua noiztik ontzen da izan ere euskararen lantegi modernoan? Noiz hasi da euskara pentsamendu idatziaren lantegiko hitza izaten? Orainsu, inondik ere: euskalgintzaren inguruan nola-halako masa kritikoa xume bat sortu den honetan. *Jakin*-en ekarpena balioesteko orduan ez genduke datu hori ahortzi behar: kultura etnikoari zegokion hizkuntza mintzatuaren garaian hasi baitzen hizkuntza idatziaren lantegi gaitza abian jartzen. Baldintza soziolinguistikorik gabeko baldintzetan ekin zion hitz *etnikoa* hitz *nazionala* bihurtzeko *iraultzari*. Bidenabar esanda, herri honek oraindik egin-kizun daukan *iraultzarik* sakonena.

Hizkuntza idatzian finkatu gabeko pentsamenduak balio al digu egungo munduan bizitzeko? Oraindik orain isuri dizkigu hitzok Anjel Lertxundik, eta iturri oneko hitzak direla esango nuke nik:

Ez dago hitzetan eta hitzekin formulatzen ez den pentsamendurik. Buruan darabildan ideia distiratsu hori ez da deus hitzen bidez zehaztu eta finkatu arte, eta zehaztapen eta finkapen trinkoa idatziak ematen du (*Berria*, 2006-10-27).

Pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko hartu-emanak argitzeko ahaleginean, hitz argigarriak iruditu zaizkit Lertxundirenak. Eta hizkuntzak pentsamenduarekin dituen harreman horietan, hizkuntza idatziaren garrantzia horrenbestekoa baldin bada, eta ni ere gogaide natzaio horretan, datu horrek *Jakin*-en izaera eta historia balio gehigarri hornitzen du.

Egungo pentsamenduaren eta kultura idatziaren hizkuntza euskara bihurtzea da herri honek bere buruarekin daukan erronkarik behinena eta gaitzena. Eta erronka horren aitzindaria izan da *Jakin*. Batzuk berandu ohartu ginen horretaz, politikaren lantegian jarriak genituelako geure amets

guztiak. Ustez, politikaren lantegian konponduko ziren euskararen arazo guztiak, politikaren lantegia erdarazko pentsamenduaren eta kulturaren lantegi arrotza zela konturatu gabe. Uste genuen ideologia politikoaren korapiloa askatzean, euskararen korapiloak berez askatuko zirela, kontura gabe, politikaren korapiloa ere pentsamendu linguistiko arrotzean funtsatua zegoela. Oso-oso berandu jabetu gara politika ere pentsamendua dela eta pentsamendu oro hizkuntzaren lantegian ekoizten dela. Diskurtsoaren ardatza hizkuntzaren inguruan mamitzen baita.¶





## TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

**1.** *Jakin*-ek asko egin du 50 urte hauetan, euskal kulturaren alde eta Euskal Herriaren alde. «*Jakin*, haizea dakitzen orriak 1956-2006» izeneko DVDA da horren lekuko zuzena, horren erakusle garbia. Urte latz eta ilunetan argia izan da, diktadurak guztiz itzalarazi ez zituen argi apurretako bat. Gaur egun ere, erreferentea da, zalantzarik gabe. Aldizkariak betidanik aldarrikatu du kulturaren autonomia. Talde politiko edota ekonomikoetatik at mantendu den egitasmoa izan da; sektakeria eta alderdikeria oro alboan utzita. Horrexek ere salbatu du *Jakin*; horrexek ere eman dio sinisgarritasuna.

Gaur egungo gizartea aldakorra da oso. Aldaketok ziztu bizian gertatzen ari dira, etengabe, oharkabean askotan. Ikus-entzunezkoaren kultura garaile gertatzen ari da, idatzizkoaren kaltetan. Fenomeno horrek ere *ukitu* du *Jakin*. Horretara doaz ondorengo gogoetok.

**2.** *Jakin*-ek gaur egun dituen arazoak ez dira bereak soilik. Ikus-entzunezko kulturaren garapenak hainbat sektoreren krisialdia eragin du. Begira diezaiegun prentsaren munduari edota liburugintzari.

Hainbat aterabide aipa litezke, zein baino zein xelebregoa edo ausartago. Nik garbi asko bi aukera posible ikusten ditut. Ez dira bakarrak —noski—, baina ondorengook ikusten ditut errazen:

- Interneten aldeko apustua.
- Unibertsitate munduarekin harremanak estutzea.

*Internet*. Taktika zaharra da. Arerioa ezin baduzu menderatu, harekin elkartu. Har ezazue gogoan *El País* egunkaria,

Espainiako estatuan erreferentziazko kazeta. Berak ere, beste guztiek bezala, sumatu ditu doako prentsa eta Interneten atzaparkadak. Eta? Zer egin du? Bere web orrialdean *24 horas* izeneko kazeta paratu, etengabe berritzen den eta sarean eskegita dagoen doako lehen egunkari digitala. Aldizkari zientifikoan artean ere antzeko zerbait egin dute batzuek: idatzizko edizioak eta elektronikoak uztartu; ez aldi berean, tarte bat utzi eta gero. Harpidedunak pikutara? Beno, ikusteko dago. Harpidedunak etxean jasoko luke aldizkaria, orain arte bezala. Handik urtebetera (adibidez) zenbaki horretako edukiak sarean izango lirateke edonoren esku, edonork jaisteko tenorean. Harpidedunak urtebeteko abantaila izango luke. Horrezaz gainera, edizio elektronikoak beste diru-sarrerara batzuk izan litzake (publizitatea). Edozein kasutan, gaur egun dagoen web gunea ([www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)) hobetu beharko litzateke: birdiseinatu, esteka berriak txertatu, bilatzaileak sartu, interaktibitatea handitu, adibidez.

*Unibertsitateak.* Atzean 50 urteko ibilbidea izanik ere, unibertsitateetako Giza eta Gizarte Zientzien arloetako irakasle euskaldun askorentzat *Jakin* ez da —zoritxarrez— erreferentziazko aldizkaria, dela beste argitalpen batzuk lehenesten dituztelako (mundu zientifikoan *pedigri* gehiagorekin), dela ez dutelako ezagutzen. Alde horretatik, uste dut *Jakin*-ek lan dezente egin dezakeela: sinergia bilatuz, harremanak landuz, baita —zergatik ukatu— diru-laguntza xerkatuz ere. Hitz batez: bere burua ezagutzera eman. Elkartruke hori alde bientzako emankorra izan daiteke eta euskal komunitate zientifikoarentzat aberasgarri. Euskal Herrian unibertsitate gune asko daude: Baiona, Iruñea, Tuter, Eskoriatza, Bilbo, Leioa, Gasteiz, Donostia, Bergara eta Eibarren daude, besteak beste, fakultate/eskola edota ikerketa zentroak. Bertoko irakasleek egunero dihardute irakaskuntzan eta ikerkuntzan. Horiei guztiei ere *Jakin*-ek bere plataforma eskaini beharko lieke, beren aurkikuntzei argia emateko, beren gogotei sostengu eskaintzeko, beti ere gutxieneko berme zientifiko batzuk ziurtatzen badira, jakina. Gogoan hartu behar-

ko genituzke baita ere Euskal Herritik kanpo lanean diharduten hainbat eta hainbat irakasle eta ikerlari euskaldunak. Horiek ere izan daitezke *Jakin*-en oinarri. Edo horrela iruditzen zait niri, behintzat.

Esandakoa; bi apustu: Internet eta Unibertsitate mundua.¶



FITO RODRIGUEZ

## Orbeldu behar ez liratekeenak

«Gogoratzea hautatzea dela» zioen zintzoki Günter Grassek duela gutxi eta, bere oroitzapenei kasu eginez gero, horrekin adierazi nahi izan zuena aski argia geratu da: eraiki nahi dena oinarritzeko (nahiz literaturan nahiz diskurtso politikoan...) egindakotik aukeratu egiten dela ezinbestean.

Aurrera jotzeko atzera begira jartzen garelarik, Günter Grassen adibideak badu, eduki, bere mamia. Bizitako edo idatzitakoaz zerbait bereizi nahi izateak berebiziko arriskura garamatza, historia fikzio bihurtzera hain zuzen eta, finean, errealitatea nahiz argudioak komenentziaren arabera moldatzera, alemaniar kontzientzia intelektualtzat hartu nahi izan den Günter Grass bera lekuko.

*Jakin* aldizkarirako idatzitakoetatik ez dut nik, bada, ezertxo ere apartatuko zeren, ene ustetan, izkribu denak badira, bere motzean, esanguratsuak eta eginkizun dagoen hemendik aurrerako jardunbiderako badaukate zer erakusterik, asmoz behintzat.

- «‘Bertsogintzaren inguruan’ deituriko ekintzen ulermenerako» (*Orain eta Hemen*) (35. zenbakia, 1985) izan zen *Jakin*-en argitaratu nuen lehen artikulutxo. Bertsolaritza eraldatzen ari zen garai haietan eta berau euskal kulturaren birkokatzekeo jadanik sortua zegoen hausnarketaren berri eman nahi izan nuen nik horretan. Betiko bertso epaileen lana onartu beharrean, txapelketetan ohikoak izan ziren ebaluatzekeo sistemak krisian zeuden eta beste motako epaimahaiak definitzekeo ahaleginetan ari zen. Bertsogintza ere irakasgarria bezainbeste ikasgarria zela ari ginen frogatzen

(ni neroni doktorego tesia ari nintzen horri buruz lantzen) eta Bertsolarien Elkarte (aurrerantzean Bertsozale Elkar-  
tea izango zena) jaiotze bidean zegoen.

Bertsoen inguruan betidanik ezagututako giroak ez zituen begi onez jotzen aipatutako aldaketak eta mundu horren bertsio tradizionalaren eta berrizaleen artean plazaratutako polemika saioak ez ziren gutxi izan. Erabilitako euskara mota, bertsoarako tokiak eta janzerak, kalitateari buruzko kalapitak... dena zen eztabaidagarria. Hogei urteren buel-  
tan, ordea, orduko sesioak gezurrezkoak eman arren, ezin da ahaztu aipatu polemika haiek euskal munduaren birmol-  
daketa estrategikoaz eduki zuten garrantzia eta ekarri duten arrakasta. Izan ere, egungo euskaldunoi bertsolariei buruz galdetuz gero inork gutxik esango du kultur tradizioaren ondare direnik, gaurko herri kulturaren erabat uztarturik dau-  
den erreferentziak baizik. Edo, beste hitzetan adierazia: ber-  
tsolariek euskal kultura garaikidean kanpoko kulturetan pop  
abeslariak daukaten eragina badute.

Esan bezala, hori orain horrela bada ere, duela mende laur-  
den bat ez zen horren argia, eta gaia, euskal kulturaren behinik  
behin, polemika iturria ere bazen.

Horretan, bestetan bezala, *Jakin* aldizkariak eztabaidari  
tokia egiten jakin izan zuen eta jakintza hura da, aurreran-  
tzean ere, aldarrikatu beharrekoa.

- «Jakintza eta botereen arteko harreman zaharrak» (54. zenbakia, 1989) izan zen aldizkarian argitaraturiko nire bi-  
garren lantxo. Grenobleko Unibertsitatean nengoen Fran-  
tziako Iraultzaren mendeurrenean. Hamaika ikerketa eta li-  
buru argitaratu ziren efemeridearen kariatara. Haiek iraku-  
rriz konturatu nintzen iraultza gertatzen denean ez dela soi-  
lik egitura politikoa aldatzen, irizpide estetikoak eta zienti-  
fikoak ere aldakorrek direla eta egiaren eraikuntza sistemak  
horren arabera egokitzen direla. Nolabait esanda, zilegita-  
sun berriak garaipena eskuratzen duela ezaguera bera ere  
badu eskuragarri.

*Jakin* aldizkariak, euskara berri bat lantzeko aukera eman duen era berean, polemikaren bidez, jakintza egokituz joateko parada ere eman du, datozen garaiotarako ezinbesteko erronka izango dena.

- «Euskal kultura 1995» (91. zenbakia, 1995) eta «Euskal kultura 1996» (97. zenbakia, 1996) haietan kultur arloan gertatutakoaren bilana egitea eskatu zidaten eta nik, besteak beste, AEK zela-eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erakutsitako jarrera doilorraren porrota hartu nuen gogoetara. AEKri edota Korrikari Joseba Arregik urteetan zuzendutako jazarpen zitala amaitu zenean, horretaz behar bezalako hausnarketa egiteak merezi zuela uste nuen, eta *Jakin*-ek ez zion horri trabarik jarri. Egun, berriz, lan mundua euskalduntzeko Kontseiluak erabili ohi dituen agiriez gain, eta euskararen aurkakoak salatzeke Behatokiak eskainitakoaz aparte, Eusko Jaurlaritzaren arloko ekimenek (Elebide, kasu) orduko gogoetak ez duela askorako balio berresten badidate ere, sasoi haietako *Jakin*-i aipatu pentsaketa plazaratzeko aukera eman zidan, eta hura dugu, zalantza ezbairik gabe, etorkizunerako gorde beharreko jarrera.

- «Zurumurrua Gizarte Zientzietan gaur» (106. zenbakia, 1998). Zenbaki berezia izan zen hura. «Mirande arazo» aztertu zutenen ondoren eta «Euskal literatura eta androzentrismoa» artikulua aurretik, kontrolagaitza den hezabide bati ekin nahi izan nion liluraten gaituen mintzaira, sinistu nahi den informazioa eta hartzailea bezainbeste igorle bihurtzen duen mass mediaz aritzeko.

Ez zen ohiko gaia izan baina *Jakin*-ek bere txokoa eman zion. Lizarra-Garaziko garaiak ziren eta, besteak beste, Aljerren eskarmentuaz behar bezalako ikasketak profitatzeko iturburu jakinik gabeko informazioak nondik jaso eta gizartean nola zabaltzen diren argitu nahi izan nuen. Urte batzuk lehenago Parisen ezagutu nuen J. N. Kapfferer-ek (*Les chemins de la persuasion*, Paris, Dunod, 1979) erakutsi zuen moduan, gizartean suertatzen den guztia bihurtu daiteke al-

de edo kontrakoa, arma edo negozio... Baina bere erabilera-  
ren barne mekanismoak azalarazteko gai izan behar du nor-  
berak; eta horrek, behar beste saiatzeari eskatzen du. *Jakin*-ek,  
noski, mota honetarako saiakerei gerizpea eman die orbel-  
tzen utzi ez dituen bere orriotan.

- «Euskal Zinema: ikusezina izatetik ikusgarria izaterako bidean» (144. zenbakia, 2004). 2002ko Udako Euskal Uni-  
bertsitateak Iruñean «Euskal zinema, oraingoz izengabea»  
izenburupean antolatu genituen jardunaldien bilduma  
eman zigun bi urte beranduago *Jakin*-ek zenbaki monogra-  
fikoak burutuz. Handik gutxira agertu ziren leiho handian  
*Aupa Etxebeste!* eta *Kutsidazu bidea, Ixabel*, aspaldiko par-  
tez ekoitziriko euskal filmak.

Aipatu bilkuran «Urrats bat euskal zinemaren alde» agiria  
plazaratu zuten Eneko Olasagasti, Asier Altuna eta Koldo  
Almandoz zinema zuzendariek:

[...] gakoa neurria da. Herri txikia bagara gure baliabideen  
neurriko industria, txikia bada ere, eraiki genezake. Egin de-  
zagun, bada, beste ezeren gain egon beharrean.

Aldarrikapen hori izan zela eta, orduko Durangoko Azo-  
kan *Jakin*-en alea aurkeztu zenean, Ibaiak, Euskal Herriko  
ekoizle independenteen elkarteak (EPE), Euskal Produkto-  
reen Elkarteak, Gidoigileen Elkarteak, Euskal Aktoreen Ba-  
tasunak eta Zuzendari Berrien Plataformak sektorearen on-  
doeza plazaratu zuten.

Ez dut uste, bada, *Jakin*-en orriak fresko bezain bizirik  
iraunarazteko aipatu historiatic ezer baztertu behar denik.  
*Jakin*-ek jakin izan du gai polemikoei bide ematen eta zile-  
gitasun esparruak irekitzen bidezkontasun berriak plazara-  
tuz. Saiakeraren bidez eztabaiden ardatzetan sakontzeko au-  
kera eman digu. Ohikoak izan ez diren ikuspuntuak lantze-  
ko euskarriak eskaini ditu, eta euskal kulturaren aldarrika-  
penetan ez da atzean geratu. Historia hori bera dugu, beraz,  
aurrerantzean burutzeke dauden ekimenetarako aldarrikatu

beharrekoa. Idatzitakoaz gain, arlo digitala ahaztu gabe, diskurtsoen konfrontaziorako lekuaren premia badugu hemen eta orain, nahiz eta hura, berez, nonahi eta betikoa izan. *Jakin*-ek, horrenbeste orri zabaldu ondoren, haiek apalategietan orbeltzen uzten ez duen fororen bat beharko genuke, non hosto desberdinen entsaladarekin gure kulturari ere elikatzen segitzeko modua eduki genezan. Oinarria nahiz premia badago, baita gogoia ere. Zain gauzkazue, bada...¶





## ANDONI SAGARNA

### *Jakin* etorkizunari begira

*Jakin*-ek baditu 50 urte dagoeneko. Euskal aldizkari batentzat miraria da hori. Euskal aldizkari batentzat ez ezik edozein hizkuntzatako gogoeta-aldizkari batentzat ere bai. Horixe baita, labur esateko, *Jakin*: gogoeta-aldizkaria.

Berehala, galdera bat sortzen da horren aurrean: eta etorkizunari begira, zer? Denborak aldatu egiten dira eta moldatzen dakitenek bakarrik lortzen dute irautea. Hori *Jakin*-i esan beharrik ez dago, frogatu baitu ederki asko irauten badakiela edo irauten jakin duela oraindaino behinik behin.

Galdera birformulatu egingo dugu: zer egin beharko luke *Jakin*-ek, etorkizunean iraganean bezain ondo edo hobeto asmatzeko, inguruan gertatzen diren aldaketen arabera moldatzeko?

Erantzuna ez da erraza, eta ezinezkoa da denbora luzean balioko duen errezeta bat ematea, bizi dugun garai honen ezaugarrietako bat aldakortasun izugarria delako.

Gogoetari ekiteko, zergatik ez gara hasten inguruak gaur erakusten dituen joerak zerrendatzetik?

Gaurko munduan eta Euskal Herrian nabari diren joera batzuk:

- *Globalizazioa*. Hitz honek mota askotako aldaketen multzo konplexua biltzen du. Gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko, sozial, teknologiko, kultural eta politikoek sortzen dituzten mundu-mailako (inter)dependentziak adierazten ditu.

«Interdependentzia» hitzari ezarri dizkiogun parentesiek azalpen bat eskatzen dute.

Globalizazio kontzeptuaren pean dauden harremanak kasu askotan menpekotasun gordinezkoak dira. Harreman horiek sortzen duten «interdependentzia» ez baita Mahatma Gandhi batek gizabanakoaren eta gizartearen artean beharrezko ikusten zuena, esate baterako, edo galdetzekoa da independentea ez dena beste batekiko interdependentea izan daitekeen ala menpekotasunak ezinezkoa egiten duen interdependentzia.

Ildo honetatik, Euskal Herriaren eta beste herrien arteko harremanen artikulazioa garrantzi handiko gogoeta-gaia da. Garrantziko beste gai bat, horrekin lotua, gure artera bizitzera datozen etorkinekiko harremanen artikulazioa da. Nola planteatu behar dira hezkuntza, hizkuntza-politika, laneko politika, etab. Eta gure enpresen deslokalizazioa? Eta guk kontsumitzen ditugun produktuek garapen-bidean dauden herrialdeetan sortzen dituzten arazo sozio-ekonomikoak eta hango ingurumenaren hondamendia?

- *Armarik gabeko ekintza politikoa.* Arma bidezko ekintza politikoa Euskal Herrian desagertuko dela dirudien honetan, mapa politikoa, diskurtso politikoa, eztabaidagaiak, etab. asko alda daitezke. Horren guztiaren inguruko gogoeta egitea oso beharrezkoa da.

- *Teknologiak eragindako aldaketak.* Beste aldaketa-mota askoren azpian egon daitekeen eragilea dugu hau. Industri aroaren osteko iraultzaren eragina, batez ere digitalizazioak ekarri duena, ez da atzo goizekoa. Duela mende-laurden bat hasita zegoen eta geroztik indartuz eta lastertuz joan da. Esan bezala, arlo guztietan du eragina teknologiaren bilakaerak, baina guk hemen informazioaren eta kulturaren ekoizpenean eta banaketan duena hartuko dugu batez ere gogoan.

- *Neoliberalismoaren alternatibak.* Sobietar Batasuna desagertu zen arte kapitalismoak bazuen alternatiba ideologikoa eta praktikoa, baina harrezkero ez da ikusten horrelakorik. Horretaz gogoeta egitea beharrezkoa da.

- *Estatu/nazioaren etorkizuna.*

## Digitalizazioa eta kultura

Medio digitalek eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT), mundua aldatzeaz gain, mundua ikusteko era ere aldatu dute. Eta medioek gizartean duten lekua ere aldatu egin da. Munduan zeuden gauza guztien arteko batzuk ziren lehen medioak; orain, aldiz, medioak inguratzeko gaituen atmosfera bat dira. Medioetatik at ez dago ezer.

Esparru eta txoko guztietan, denbora guztian, presente daude medioak: irratiak esnatzen gaitu, sakelako telefonora iristen zaizkigu mezuak eta deiak, ordenagailuan lanean ari garenean mezulariak, posta, albisteak, informazioaren bilaketa eskueran ditugu, otorduetan eta tabernan ere telebista aurrean dugu. Kultura berri bat sortu da. Medio digitalak eta Internet kulturaren sektorea errotik aldatzen ari dira.

Kontua ez da euskarriak aldatu direla, baizik eta kultur-gintza bera ari dela aldatzen. Pentsa dezagun argazkigintzan. Kamera digitalek film kimikoa baztertzeak argazkigintzarekin dugun harremana aldatu du: askoz argazki gehiago ateratzen ditugu, jende askok etengabe darama argazki-kamera berekin —besterik ez bada telefonokoa—, argazkiak Interneten erakusten ditugu (Flickr, EITBko eguraldi-zerbitzua, Argiñanoren programa, etab.), puzzleak eta kamisetak egiten ditugu argazkiekin, etab., etab.

Digitalizazioak eragina du kulturaren ekoizpenean, banaketan eta aurkezpenean. Artisten lan egiteko modua eta obra aldatu egin da, museoetako edukien aurkezpena ere bai, liburutegietako katalogoak kontsultatzeko era ere bai. Kulturaren sektore eta adierazpideen arteko hibridazioa ere gertatzen ari da.

Orain arte *Jakin*-ek egin ditu urrats batzuk digitalizazioaren bidean. Hor daude, urrutirago joan gabe, *Jakin*-en zenbaki guztiak biltzen dituen DVDA edo Euskal Bibliografiaren Interneteko datu-basea.

Etorkizunari begira, eduki-forma berriak garatzea izango litzateke hurrengo erronka. Kontua ez litzateke eduki-mota

zaharrak euskarri berrietan ematea, baizik eta beste eduki-mota batzuk lantzea.

Digitalizazioak ekarri dituen erraztasunei esker edonork argitara dezake edozein eduki kosturik gabe. Horren ondorioetako bat da kontsumitzaile pasiboak ziren asko ekoizle aktiboak bihurtzen ari direla eta horietako askok musu truk lan egiten duela.

Adibidez, online liburu dendetan irakurle askok euren kritikak uzten dituzte irakurtzen dituzten liburuez. Gero eta gehiago iritzi-emaile horien kritikak ebaluatzen dituzten beste erabiltzaile batzuk daude eta horrela kritikariak ere sailkatu egiten dira fidagarritasunaren arabera.

Horrekin zerikusi handia duen fenomeno da Wikipedia-rena ere.

Ekoizpen digitalak leku-denborazko hesiak apurtzen laguntzen du. *Jakin*-ek, paperezkoa delako, aldizkaria izan behar du, paperean argitaratzeak duen kostuak aldizkakotasuna mugatzen du, paperezko produktua postaz bidaltzeak duen kostuak salneurria igoarazten eta irakurleria murrizten du, gaien gaurkotasuna gutxitzen du.

Edizio digitala balu (paperezkoaz gain) egile gehiagok parte har lezake, kritika eta ekarpen gehiago izan lezake, tratatuko lituzkeen gaiak askoz gehiago izan litezke, argazkia, kolorea, soinua eta bideoa izan litzake, zabalkunde geografiko handiagoa izan lezake, edizio jarraikia (ez aldizkaria) izan lezake... eta hori dena kostu gehigarri handirik gabe eta diru-sarrera gehiagorekin agian (publizitatea).

Oraingo *Jakin* aldizkariak ez dituen beste eduki batzuk landu litezke beren borondatez parte hartuko luketen lankideen bidez: liburuen laburpenak eta kritikak, hitzaldietan eta mahai-inguruetan jasotako grabazioak (podcast) eta hauei buruzko komentarioak, etab. Euskal Kulturaren dinamizatzaile bihurtuko litzateke.¶



## PELLO SALABURU

### Luzea izan da bidea

Berehala erraten da, berehala erraten denez: 50 urte. Baina egon, egon behar baita gero hor 50 urtez, eta urtez urte huts egin gabe, euskaltzale guztiei zerbitzu berezi bat eskainiz. Hutsik egin gabe... edo. Baten batean huts egin du, ezinbestean huts egitera kanpotik bortxatua izan denean, denek dakigun gisan.

Bistan da, gauzak distantziatik ikusten ditugunean inoiz baino ageriago geratzen da kontua, euskararen egoera biziki aldatu dela 50 urte honetan. Ez bakarrik euskararen egoera: gizartea bera ere aldatu baita eta —aski da horretarako idazmakinez egindako lehenbiziko ale hari behatzea—, gizartea ere aldatu da, gizartea eta gizartearen kezka. Neurri batean bederen.

Urte hauetan guztietan, bere goiti-beheitiakin, *Jakin* aldizkariak zerbitzu oparoa eta paregabea eskaini digu euskaltzaleei. Ez zen kontu erraza hori egitea, baina bere horretan jardun du, nekea dela neke, erdaraz hain erraz jorratzen ziren gaiak euskaraz ere beren txokoa izan dezaten. Hori zuen helburu, eta helburua ongi bete du. Orain, etorkizunera begira, paradoxikoa baldin bada ere, kontu hauek guztiak zailago bihur daitezke. Orain dela 50 urte ez baikenuen unibertsitate publikorik Euskal Herrian, eta ez baikenuen euskararen aldeko ekimen garbirik administrazioaren aldetik. Hori ez da hola gertatzen gaur egun: badugu administrazio bat, inoiz baino gehiago bultzatzen duena euskararen erabilerara, baditugu irrati-telebistak euskaraz, badugu egunkaria euskaraz. Euskarak badu presentzia bat lehen arrotzak zituenean tokietan. Eta badugu unibertsitate publikoa, non ehun-

ka irakaslek milaka ikasleri beren ikasketak euskaraz erakusten dizkieten egunero eta ordu oro. Errealitate horrek ez du deus ikusteko lehenagokoarekin. Eta hortik etortzen ahal zaizkio, etorri ere, *Jakin* bezalako aldizkari bati zailtasun berriak, euskararen txokoa aldatu baitzaio, eta txoko zabal horretan bertze txoko bat aurkitzen saiatu beharko baitu, erraza ez den zeregina lepoan hartuz.

*Jakin*-en era askotako gaiak aztertu izan dira urte hauetan zehar: kulturaren inguruko gaiak, gai akademikoak, elkarriketak, eta abar. Zail gertatzen da hemen etorkizunean Iparrak nondik nora jo behar duen zehaztea. Iduri luke aldizkari honetan agertu diren gai zenbaitek bertze nonbait dutela toki naturala: unibertsitate mailako aldizkarietan, hain zuzen ere. Eta holako aldizkariak ere badira. Bertzenaz ere, ez dakit aldizkari hau den formaturik egokiena unibertsitate mailako gaiak ez direnen kasuan, alde horretatik itxura serioegia baitu. Hortaz, halako definizio falta moduko zerbait atzematen diot, kontuan izanik zer dugun inguruan. Baina hor dago mende erdi hori ere, eta aldizkari bati mende erdia izateak xarma berezia ematen dio, zalantza gabe. Horregatik uste dut aitzinat segitu behar duela. Nola? Hori bertzerik da.

Bertze gizarte bat, unibertsitatea, interneteko sarea, argitalpenak... Horietan guztietan ikusten ahal dira orain garai batean *Jakin* aldizkarian bakarrik, edo batez ere, argitaratzen ziren gaiak. Nire ustez, hala ere, aldizkariak aurrera egin beharko luke, argiago bereiziz, beharbada, gai akademiko «itxiak» (gizarte eta giza zientzietakoak, jakina) eta bertze gai orokorrakoak. Ez dakit ez ote litzatekeen egokia izango sail horiek hola antolatzea eta definitzea. Ez litzateke gaizki egongo aldizkariaren parte bat sarean jartzea ere, horrek bilduko bailuke aldizkaria aro modernoago batera. Baina badakit hau ez dela batere erraza, idazteko orduan ere jendea aurkitzea uste baino zailagoa izaten baita. Proiektuak aitzinat ateratzeko egiteak behar ditugu, Baztanen erraten den bezala. Dena den, nire ustez, aldizkariak itxura aldake-

ta bat beharko luke: serioegia da gaur egun (itxura aldetik ari naiz betiere). Eta, honekin batera, zer motatako irakurleak dituen ere aztertu beharko litzateke: badira irakurle gazteak? Edo betiko belaunaldiekin segitzen dugu? Honen erantzuna nolakoa den, horrek markatuko baitigu geroa.

Badakit aski oinarrizkoak direla iradokizun hauek, beharbada deus ere berria ekartzen ez dutenak. Baina zaila zait kanpotik zerbait zehatzago erratea: uholdean dugu gaur egun informazioa gure gainean, *Jakin* izaki informazio iturri horietako bat, eta hori, horrenbertze informazio izatea erran nahi dut, zenbaitetan eragozpena izaten da laguntza baino gehiago. Baina nik ez nuke nahi horrenbertze urtez iraun duen aldizkaria ez dadin gai izan aro berriari behar den moduan egokitzeko. Uste dut paper ona egin duen, eta hemendik aitzina ere egin beharko duen. Batzuetan, kezka bat dugularik esku artean, esperantza izaten dugu kezka horren konpontzen norbaitek lagunduko gaituela, baina azkenean kezka dugunok konpondu behar izaten ditugu arazoak. Horregatik paratu ditut hemen ideia batzuk, baliagarri izan daitezkeenak, edo ez, hori ez dakit. Ororen gainetik, nik segurik, bertze 50 urte opa dizkiot. Segi dezala gure artean.¶



## ALLANDE SOKARROS

### *Jakin*: adierazpen askearen eredu

Zortzi urte... Bai, zortzi urte jadanik *Jakin*-en *Euskal kulturaren balantzea* urte amaierako ale bereziari nire ekarpen xumea dakarkiodala. Urteak jin, urteak joan, errazago ala nekeago, gai berdintsuak landu izan ditut urteoroko hitzordu gustagarri horretan: euskararen egoera Zuberoan, pastoralak eta Zuberoako bestelako euskal kultur adierazpen edo emaitzak, nire aburupenerako gertaera pozgarriak ala penagarriak...

Burutazio eta iritzi jardun horretan, aski zorrotz jokatu izan dut batzuetan —sarritan?—, elezuritan ibiltzea ez baitzait sekula gustukoa izan. Litekeena da, ziur aski ere halaxe izan da behin eta berriro, adierazpen gotor —gogor?— hau gehiegizkoa izan dela, hitzen ziztadak nor edo noren gogobihotzak mindu egin dituela. Argi gera dadila, haatik, gauzak zorrotz edo bipil adieraztean, ez dudala jendea beharrik gabe gaitziazteko egiten, bai ordea uste baitut, neurritz eta arretaz jokatzeko egoki bada ere, gizarte aske batean, esan beharrekoak esan behar direla.

Hortxe da, hain zuzen ere, nire iritzian, *Jakin*-en ezaugarri nagusietatik bat: adierazpen askearen eredu dela. Eta gure Euskal Herrian ez da, lehen begirada batean alderantziz uste bada ere, hainbeste garatuta dagoen zerbait. Hari honi aurrera jotzean, Hego Euskal Herriko gizarteak izango dut hizpide... Ipar Euskal Herriko biztanle naizen ikuspuntutik nolakoa iruditzen zaidan adieraztearren. Askotan, jarduera alor ezberdinetako Hego Euskal Herriko jende andanak arreta jarri dio Ipar Euskal Herriari. Eta, salbuespen bakanak salbu, ohargarria geratu da —beti ere nire aburutik—



ikuspegi okerra daukatela sarritan gure alderdi honi. Nabarmen baino nabariagoa geratzen da hegoaldeko gizartekide baten begitik, hegoaldeko gizarte ibileraren ikuskeratik begiratzen diguzuela eta zuen iritziak plazaratzen, alde hone-tako politika, gizarte, kultura eta gaineratiko alorretako ger-taerei begiratzean.

### *Jakin*, eztabaida irekiaren bideratzaile

Ezagutza eskasiaren ondorio dela esan daiteke, baina, ni-re ustez, ez da hori bakarrik. Hego Euskal Herriko gizartearen edo gizarte honen zati handi baten ispilu dela ere derit-zot. Ipar Euskal Herriko bizilagun modura, abertzale gisa-ra, kazetaritzan jarduteak ahalegintzen dizkidan ezaupideen arabera, Hego Euskal Herriko gizarte ez dela uste litekeen bezainbat adierazpen askearena, iritzi kritikoarena, eztabai-da irekiarena, esan esango nuke. Gizarte horretan —barka-tu kanpoko begirada bateko esaera hau baliatzeaz—, hesi, trintxera, itxikeria, ikusezin, etsaigo eta —ausartuko naiz esatera— sektarismo ugari daudela iruditzen zait. Jakina, atal eta alde on asko ere badaude, baina gizarte guztien kon-tua den argi eta itzalaren arteko lehia horretan, eta Hego Euskal Herriko gizartearen ibileran, alde ilunek leku handi bat hartzen dutelakoan nago.

Areriotasun edo etsaigo batzuk ere ekar diezazkidaketen hitz hauetatik landa, esango dut jarraian *Jakin*-en ekarpen handi-handienetatik bezala jotzen dudala euskal gizartearen itzal hauen isla ez izatea, guztiz alderantzizkoa baizik. Lau-senguz jokatzea irudiko bazaio ere baten bati, esperientzia propioz ondo dakit *Jakin* dela adierazpen askearen, iritzi kri-tikoaren, eztabaida irekiaren, aburu ezberdinen edota kon-trajarrien bideratzailea. Halabeharrez ere, polemikari harre-ragune egon da eta ezaugarri hau ere gizarte aske eta sano baterako mesedegarria dela zalantzarik ez dago. Iraina eta gorrotoa, tolerantzia eza eta sektarismoa dira gizarte aske eta demokratiko batekin bateraezinak, ez ordea polemika. Jen-

dartearen blokeoak gainditzeko, isildutakoak kanporatzeko, hizkera anitzak alderdikeria berbari gailentzeko, jokabide baliozkoa den polemikari lekua eman izan dio *Jakin*-ek eta hau ere ekarpen guztiz garrantzizkoa da.

### *Jakin*, euskal herritarren artean lotura egile

Nire gogoetaldiaren aurreko zati honetan, asko —eta gehiegi ere— luzatu naizela ohartuta, oraindik ez dut ezer aipatu *Jakin*-eko arduradunek planteatu diguten bigarren aztergaiaz, hau da: «nola jokatu beharko luke *Jakin*-ek, aurrera begira?». Topikoa badirudi ere, egingo nukeen erantzun bakarra litzateke: orain arte urratutako bideetatik aurrera joanda. Bai, orain arte bezala, mende erdiko bide luzean, eta tarteka nekeen artean ere, euskal gizartearen bilakaeren behatzaile —eta nolabait ere bultzatzaile— izan dadila *Jakin*. Are gehiago ere, historiaren gorabeherek, nahitaez, aldendu egin gaituzten euskal herritarren artean lotura egiten jarraitu dezala.

‘Euskal gizartea’ esan dut lehentxeago, ‘euskal gizarteak’ esan beharrean. Halaxe baita benetan, horrek ez duelarik esan nahi, haatik, alde edo ezberdintasun hauek egotea txarra denik. Aitzitik, eta berriro ere topikoa botatzen dudala iruditzen zait, ezberdintasun hauek badaudela ohartzea eta onartzea dira euskal gizarte anitz baten bermagarri. Zubiak behar dira, baina, elkarretaratzeko edo —hobeto esanda— elkar topatzeko, ez haatik ustekeriazkoak edo amestutako Euskal Herri baten irudizkoak.

Euskal kultura —zentzu zabalean hartuta— delarik *Jakin*-en berezko jarduera arloa, euskaldunon artean gero eta hobeto ezagutzeko, gero eta hobeto aditzeko, gero eta hobeto errespetatzeko bitartekoa egon dadin gurako dut. Behar-kizun horretan, Ipar Euskal Herriko beste jardulerik ere egon dadin ondo legoke... «zenbat buru, hainbat aburu» esaerak alde onik ere izango baitu. Nire aldetik, *Jakin*-ek hala nahi izanez gero, euskaldunen arteko topaleku honetan, aurrerantzean ere, zertxobait ekartzeko asmotik nabil.¶



## PAKO SUDUPE

### *Jakin*-en premia

Joxe Azurmendik 154. zenbakiko agurrean dioenari jarraiki, premia bati erantzuteko sortu zen aldizkaria: euskara kultur joera guzti-guztietan murgilarazteko, eta horretarako euskal kulturgintzan lan egiteko moduan zeuden eta horretarako gogoaz zuten gazteak elkartzeko. Garai hartan bi baldintza horiek betetzen zituztenak nagusiki apaizgaiak eta fraidegaiak ziren, gaur egun berriz, laikoak gara gehienak.

Ez dut batere dudarik: egun ere duela berrogeita hamar urte bezala premia hori badago, eta egun orduan baino aukera gehiago dago kultura eta pentsamendu propioa euskal ikuspegitik lantzeko.

Orain arteko ekarpenak bistakoak dira. Euskal kulturarekin zerikusia duen zeinahi gaiz informazioa lortu nahi izatera edo gairen bat landu beharra izanez gero, *Jakin*-era jotzea ezinbestekoa da. Bertan dagoena hobea edo kaskarra goa iruditu zaio bati, haren gainean berridazteko baliatu du harako hark eta beste horra horrek berriz hari aurka egiteko, kontua da erreferentzia ezin itzurizkoa dela.

Aurrera begira jarrita hainbat proposamen.

### Gai aukeraketa

Alde batera utzirik *Egunen gurpilean* saila —ongi dago, nire ustez—, azken dozena bat ale gainetik begiratzen hasita ohartu naiz hiru eratakoak argitaratzen dituela *Jakin*-ek: urtero ale bat erreserbatua dutenak (urteko euskal kulturaren balantzea eta urteko liburugintza); gaur-gaurko gaiei buruzko monografikoak (Euskal zinema; Euskal telebista

lokalak; Ikasle etorkinak eta euskara; Testuliburuak maileguan?); eta erredakziora iritsitako artikuluez osatuak.

Urteko aleen zirriborroa egiteko orduan (*Jakin*-en batzordeen berri zehatzik ez dut, eta horregatik baliteke behar bezala ez planteatzea, har bedi ideia kontuan), zergatik ez helarazi orain arte gutxi edo asko kolaboratu duten guztiei behinik behin gai zirriborroa, hura osatzeko proposamenak egin ditzaten? Harpidedun guztiei igortzea gehiegizkoa?

Artikuluen kalitateari begira, haiek galbahetik igarotzeko lantegia gisa da gutxi batzuen esku egotea, baina gaiak proposatzea, eta horrekin batean gaia jorra dezaketenen zerrenda edo izen batzuk aurreratzea...

Esaterako, oraindik orain Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailordetzak bi ekimen berri plazaratu ditu: lan munduko Bai Euskarari Ziurtagiri berria EAEn, eta hizkuntza eskubideak bermatzeko Behatoki berria. Kontseiluak bazituen ziurtagiria eta behatokia. Joxe Azurmendik gorago aipatu dudan agur horretan bestelako hizkuntza politika baten beharra aldarrikatzen du, ezein alderdiren kontrolpean egongo ez litzatekeen instantzia batek diseinatua, eta Jaurlaritza bere eremuan haren betearazle izatera mugatzea. Monografiko edo gai nagusi bat zehazteko ekaia izan liteke.

## Aleen edukia harpidedunek balioestea

Interesgarria eta eragingarria litzateke harpidedunen artean inkesta egitea jakiteko hainbat zera: zer-nolako harreara duten gai finkoek, gai nagusiek, eta artikulua soltez osatuek, zein diren irakurleen gustukoenak, eta beti ere harpidedunei proposamenak egiteko bidea irekitzea.

## Lankide sarea zabaltzea eta harpidedunak ugaltzea

Galderak jaso eta lehenengo etorri zitzaidana burura horixe izan zen. Hurbil-hurbilenekotik hasita: nire hainbat lankide zergatik ez dira harpidedun? Nola ugaltu harpide-

dun kopurua? Hurbilenetik ezagutzen ditudanengandik hasita: zergatik ez da kanpaina bat diseinatzen helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko euskaltegietako irakasleak batetik eta udal, aldundi eta Jaurlaritzako euskara zerbitzueta-ko teknikari eta normalizatzaileak bestetik ardatz, horiek harpidedun eta lankide izatera adoretzera zuzendua? Euskaltegietako zuzendari eta administrazioetako euskara teknikariei gutuna igorri, bilerak egin, berrogeita hamar urteko altxorra biltzen duen DVDA banatu...

Oraingoz, besterik ez. Beste berrogeita hamar urte harra-  
patuko ahal ditu *Jakin*-ek!¶



## ANDRES URRUTIA

**1** ● Lehendabiziko gaia orain arteko ekarpenena izanik, bistan da erraz eta labur biltzekoa ez dela. Izatez, *Jakin* da, nire ustez, azkeneko urteetan euskaraz dabilen kultur aldizkaririk esanguratsuena, bere baitara biltzen baititu ezau-garri zehatz batzuk, besteak beste, honako hauek:

- Gaien ikuspegitik, zabala izatea. Hartara, zabaltasun horrek ez dio ekarri, gizarte-zientzien arloan, zabalkeria-rik, puntuan puntuko azken xehetasunetan galdu gabe ibili baita, betiere printzipio orokorrak eta ardatz nagusiak argi izanik. Zabala izateak, bestalde, ez du inola ere oro hartzailea denik esan nahi, horrek, beharbada, kalte besterik ez liokeelako egingo aldizkariaren norabideari.
- Ibilbidearen aldetik, *Jakin*-ek badaki zein den bere lekua, urte askotako eskarmentua baitu bere gain. Izan ere, 50 urte horiek egundoko ondarea ekarri diote aldizkariari, epealdi horretan bermatu baitu euskalgintzan duen zeregina eta zer egitekoa, eta, zer esanik ez, etorkizunean izan beharko duen jokabidea ere.
- Egungo premiei dagokienez, esan gabe doa *Jakin* aldizkariak jauzi garrantzitsua egin duela aurren, bere edukia eta aurkibideak sarean jarrita. Eskertzekoa da, hortaz, hor egin den lana, kontsultatzeko erraza izateaz kanpo ere, hedatzeko modukoa ere badelako, tresna sendo eta indartsuaren bidez.

Gai zehatzak, ibilbide frogatua eta teknika berrien erabilera dira, nire ustez, *Jakin* aldizkariaren barnean nabarmen-duko nituzkeen hiru puntu nagusiak.

Jakin badakit norbaitek ahots ozenez esango didala osterantzeko bat ere ahaztu dudala, hain zuzen ere, euskararena,

horixe izan baita, aldizkariaren hasiera-hasieratik, *Jakin*-en bereizgarria. Bego hor hori esaten duena. Erantzule jarriko natzaio, eta bidenabar adieraziko diot behinola euskara «baitua» (horrela, kakotxen artean, behin-behinekotasun osoarekin) izandako hura gaur egun oparo eta ugari dabilela gure artean, euskarak berak izan duen normalizazio-bidearen seinale eta erakusle.

Aitor dut, hortaz, *Jakin* aldizkariaren lana, euskaraz hala-ko gai korapilatsu eta eduki ezohikoak euskaraz eta normaltasun osoarekin erabili dituelako. Aitor ditut, orobat, niretzat hori ahalbidetu dutenak, *Jakin* aldizkariaren arduradun, egile eta langileak, lehengoak zein oraingoak, horiek izan baitira zin-zinezko eragile, euskalgintzaren suak behar izan duen hauspo egoki.

Halako giza taldeak nekez osatu dira euskalgintzan orain-tsu arte. Nekezago, seguru asko, haien ibilbideari segida duina ematea, oraingo honetan euskarazko gorabeheretan sartuta gaudenentzat.

**2.** Hara, ez dut uste horri egoki erantzuten jakingo dudarik. Niretzat, Euskal Herritik kanpo nahiz barruan ikusten dudanaren arabera, *Jakin*-en jokabideak bitarikoa izan beharko luke aurrerantzean, bi alderditan baitaude aldizkariak izan ditzakeen kezkek eta arrangurak.

Lehena, hasteko, gaietako dagokie. Nire ustez, azken aldietan artikuluei ematen zaien tratamendua (luzera, edukia...) ego-kia da. Agian, pentsatzekoa izango litzateke idazle eta egileen zerrenda gehitzea, bestelako gaiak ere barruratuz. Badakit, dena den, hau guztia, egiten baino, esaten ere errazagoa dela.

Bide beretik, zenbait arlotan bederen (elkarrizketak...) material grafikoa ere erabili beharko litzateke, *Grial* edo *Serra Dor* aldizkarietako egiten duten bezalaxe.

Era berean, agerikoa da, *Jakin*-ek duen formatua izanda ere, nola edo hala atal «golfoa» beharko genukeela, behar-bada artikulua ikonoklastak bai baina kalitatezkoak barruratuz

(esaterako *A Trabe de Ouro* aldizkari gailegoak egiten duen moduan).

Nik neuk, larregi luzatu gabe, aldizkariaren bizpahiru zenbakitan sartuko nituzke liburuen aipamenak. Teknika aproposa izan daiteke azken lauzpabost urteetan *Serra D'or* aldizkari katalanak darabilena, hau da, lagun zehatz bati agindua eman, aurreko bi urteei erreparatu eta gai jakin bati buruzko iruzkin bibliografikoa egiteko (historia, narratiba, hizkuntzalaritza...). Irakurle euskaldun eta ikasiaren eskura jarriko lirateke, bide hori dela eta, informazio eskergarriak, sarritan, denbora faltaz edo, harengana iristen ez direnak.

Bigarrenez, azpimarratuko nuke sarearen barruko aurkezpenak eta edukiak indartu beharra, bestelako sailtara eta liburu-bildumetara gai desberdinak erakartzeko. Nire ustez, aldizkariaren esanahia galdu gabe, bestelako ekimenetara ere joan beharko litzateke, betiere ekonomiaren aldetik diren mugak eta oztopoak aintzat hartuta.

Hainbatez, argi dago ekonomiak baldintzatzen gaituela; baina argi dago, bestalde ere, ekonomiaren gainetik, eragina eta indarra izan behar dugula euskal kultura aurrera ateratzeko. Eragin horretan, nik neuk behintzat sinesten dut *Jakin*-ek baduela zer esan eta zer erakutsi.¶





## EGUZKI URTEAGA

*Jakin* aldizkariak bere 50. urteurrena ospatzen duen ueña aproposa da atzeraka begirada bat emateko baita ere geroari so egiteko, gizartearen aldaketei eta irakurleen itxaropenei egokitu dadin eta euskarazko erreferentziazko aldizkaria izaten jarraitu dezan.

**1** ● *Jakin*-en ekarpenak anitzak izan arren, bakar batzuk aipatuko ditut.

1. Aldizkari zientifiko askotan gertatzen ez den bezala, *Jakin*-ek bere ulergarritasuna zein erakargarritasuna landu ditu. Izan ere, erakutsi du gai garrantzitsuak modu arinean bezain sakonean jorratu daitezkeela, pixutasunean eta hiztegi teknikoan erori gabe. Nietzschek zioen bezala, arintasuna ez da azalkeriarekin nahasi behar eta astuntasunak ez du sakontasuna esan gura.

2. *Jakin*-ek hainbat zenbaki monografiko proposatu ditu, eskualde, idazle ala jarduera sektore bati buruz, ikuspegi ezberdinetatik landuz eta gaiaren konplexutasuna erakusten ahaleginduz. Zenbakiak ez direnean erabat monografikoak ere dossier tematikoak egiten dira, euskal liburugintza hobeki ezagutzeko ala Gotzon Garateren ibilbide pertsonal eta profesionalak gerturatzeko.

3. Aldizkari honek meritu handia eduki du euskal kultura eta gizarteari loturiko gaiak jorratzerakoan, batez ere frankismo garaian non euskararen erabilpena eta gai politikoan aipamena debekatuak zeuden. Horrez gain, 1956an, euskal aldizkariak ez ziren orain bezain ugariak eta euskal kulturarekin konprometituta zeuden pertsonen lana eta kemena beharrezkoak izan ziren egitasmo hau aurrera eramateko.

4. Alor eta mundu ezberdinetako ekarpenak jasotzeko gaitasuna ukan du eta beraien arteko komunikazio bat garatzen saiatu da. Hain zuzen ere, aldizkari gehienak, edo unibertsitateko irakasle eta ikerlariak egindako eta irakurritakoak dira, ala kazetariak osatutakoak dira, bien arteko loturak eta hartu-emanak urriak izanik. *Jakin*-ek, aldiz, mugak, oztopoak eta hesiak gainditu nahi izan ditu.

5. Aktualitatezko gaiak eta arazo nagusiak lantzeko adorea erakutsi du, epeltasunean eta ageriko adostasunean erori gabe. Politika, ekonomia, gizarte ala kultura gaiak landu ditu, euskal unibertsitateetik Arabara, bertsolaritzatik igaroz.

**2.** Geroari begira, *Jakin* aldizkariak honako bidea jarraitu dezake.

1. Ikuspegiak, interesguneak eta gaiak berritzeko komeni litzateke kanpoko idazle, ikerlari eta pentsalariei beraien ekarpenak eskatzea, hala beharrez artikulua horiek euskaratu, *Jakin*-eko irakurleek errealitate berriak ezagutu ditzaten eta, batez ere, Euskal Herriko egoera beste modu batera ikusi dezaten.

2. Horrekin batera, Euskal Herritik kanpoko gaiak jorratzea interesgarria izan daiteke freskotasan bat ekartzeko baita ere euskal irakurlea munduan zehar gertatzen denari buruz irekitzeko. Maiz, euskaldunok joera daukagu bertako errealitateak behin eta berriz aipatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko, berrikuntza handirik ekarri gabe eta emankortasun mugatuarekin. Zentzu horretan, beste errealitate batzuk ezagutzeak norberaren bizipena erlatibizatzeak aukera eskaintzen digu.

3. Era berean, bertako egoera beste herri eta eskualdeetako errealitateekin alderatzea aberasgarria izan daiteke. Esaterako, euskararen egoera lantzen denean, premiazkoa da Katalunian ala Quebecen katalanaren eta frantsesaren jorak aipatzea, errealitateak alderatu ahal izateko, ikusteko ea zein neurritan herri horietan hartu diren neurriak eta buru-

tu diren politikak Euskal Herrian gauzatu daitezkeen euskara biziberritzeko.

4. Osagarria den beste planteamendu baten arabera, ipar Euskal Herriko errealitate soziala, politikoa, kulturala ala ekonomikoa jorratzea faltan botatzen da, bizimoduak, ohiturak, erreferentziak eta esperientziak anitzak bezain ezberdinak baitira eta elkar hobeki ezagutzeko aukera eskaintzen baitute. Maiz, iparraldea soilik aipatzen da une eta alor zehatz batzuetan, hala nola, euskararen egoera, alderdi abertzaleen jarduera ala mugaz gaindiko lankidetzeta.

5. Bestalde, gaiak modu erakargarrian jorratzeko gogoak eduki dezakeen alde ezkorra, ez behar bezala sakontzea izan daiteke. Izan ere, gai batzuek, kontzeptu nagusien definizio zehatza eta estatistiken, eskemen zein taulen erabilera eskatu dezakete, nahiz eta astuna eta irakurgaitza suertatu. Bestela esanda, batzuetan, joera unibertsitarioa ezinbestekoa da, errealitatea bere osotasunean, objektibotasunean eta komplexutasunean ulertzeko.

6. Itxurari dagokionez, telebistak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garapenak, internet lehen tokian kokatzen delarik, irakurketa ohiturak aldatu dituzte, irudiari garrantzi gehiago emanez, artikuluen luzetasuna murriztuz eta irakurketa maila ezberdinak proposatuz, egunkarietan gertatzen den bezala. *Jakin* bezalako aldizkari bati ezinbestekoa zaio gizarte eraldaketak gogoan edukitzea bere irakurlegoa handitu nahi badu.

Oro har, *Jakin*-en idatzi duten hainbat pertsoneri beraien iritzia eskatzea seinale ona da, erakusten baitu aldizkariari buruzko hausnarketa egonkorra dela eta hobetzeko joera dagoela, bere eginkizuna ongi baino hobeki betetzeko asmoz.¶



## JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

### Zientzia dibulgazioarekin amets

Orri zuri baten aurrean eserita eta *Jakin* aldizkariaren 50. urteurrena ospatzen ari garenez gero zorion agurrak bidali nahi dizkiodala kontuan izanda, zenbait burutazio etorri zaizkit horren inguruan; eta oroimenaren zokoren batean pilatu aurretik eite eman nahi diet, bihar etzi arazorik gabe zehaztu dezadan zertaz ari nintzen nire baitan gaurko arratsaldean.

*Jakin*-en gisako aldizkariak zientzia eta kulturaren dibulgazioan, dituzten baldintza neketsuekin lan egiten dutenean, txapela kentzeko beharrean gaude. Bere ekarpena oso aberatsa izan da euskal kulturgintzan eta aspaldiko harpideduna naizelako ongi ezagutzen dut agerkariaren edukia. Bihoakie arduradunei, beraz, nire esker ona orain arteko lanarengatik.

Giza komunitate bakoitzak bere komunikaziorako elkar trukeak antolatu behar ditu, egiazko komunitate eraginkorra izango bada. Euskal (euskara darabilen) komunitatea zientzia eta kulturaren premian dago, beste edozein kolektibo bezala, eta beharrezkoak zaizkio haietaz jabetzeko iturriak: era guztietakoak, euskal komunitateak zientzia eta kulturaz ongi elikatuta egoteko eskubidea du eta.

*Jakin*-ek erronkari eutsi behar dio, zientzia eta kulturaren ezagutza gizabanako guztioi baitagokigu, etenik gabe eta diskriminazio barik. Dibulgazioa modu arinean garatuz gero samurrago hel daiteke kolektiboarengana, baina gauzak arintasunez ekoizteak ez du adierazten, inondik ere, lantegia erraza denik. Areago, hainbat zientzialari eta kultura eragileren hizkera dibulgatibo bihurtzea abentura helezina izaten da maiz.

Zientzia eta kultura aldizkari orokorreko *Jakin* bat nahi nuke aurrerantzean ere, zorrotasunez burutua eta jakintzaren

haize guztietara irekia. Euskal agerkarien ondarea bera aberastu ez ezik baita gure gizarteko hiritarron jakin-nahia asebeteko lukeena. Eta aurreko baieztapena ez da pellokeria, denok baitakigu ez dela berdina argitaratzea eta irakurtzea. Zenbat eta zenbat alferreko esfortzu! Ekoizpena tentu eta zentzuz zaindu behar da, produktua azken helbururaino hel dadin. Gizarteratu egin behar da zientzia, guztion eskura ipiniz. Eta hori dibulgazio demokratikoarekin bakarrik lortzen da.

Dibulgazio demokratikoa edo soziala, horixe bilatu behar du *Jakin*-ek, ezagutza zientifikoa demokratizatzeke, denon baitara iritsaraziz eta, halaber, gu zientziaren garrantziaz jabebaraziz. A! Eta zientziaren (zein kulturaren) erabilpen praktikoa ez du edertasunaren arerio izan behar. Niretzat hori da bidea. Gutxi gorabehera orain arte bezala? Bai, baina ez.

Niri gustatuko litzaidake, hilero-hilero (oraingo maiztasuna bikoizten ari naiz) bera iritsi bitartean irrikan edukiko nindukeen *Jakin*-a. Euskal zientzia eta kulturaren esparruan tiratzaile iaio eta jantzia izanik, nire ezagutzaren eraikinean adreilu berririk jartzeaz gain hura kolore eta musika ederez jantziko lukeena. Euskal mundua baina baita unibertsala ere hobeto konpartitzen (ulertzen, azken finean) lagunduko lidakeen aldizkari aurrerakoi eta aurreiritziz librea. Zientzia eta kultura topagune gisa, eta inolaz ere ezer ezta inoren kontrako talaia bezala erabiliko ez litzatekeena. Ekoizleen, idazleen euren eta zientzia zale banaka batzuen arreta ez ezik, euskal gizarte osoaren jangura pitz lezakeen *Jakin* agerkari moderno batez ari naiz. Irakurleok finantzatua %75 batean eta, gainerakoa, zientzia eta kulturaren hedapenerako egindako ekarpenarengatik erakunde publiko eta pribatuen funtsek bolondreski (leihatila egiten edo diru-laguntza deialdietara jotzen ibili gabe) estalita.

Nola ailegutzen da horretara? Nire ikuspuntu hori amets hutsa ote? Ez dakit. Iokin Zaitegi ezagutu nuenetik —portzierto, *Jakin*, *Euzko-Gogoa*-ren estertoreetan jaio zen—, euskal utopiarekin bizitzen eta lan egiten ohitu naiz eta zaila zait bedeinkazio (madarikazio) horretatik aldentzea.¶



## IÑAKI ZABALETA URKIOLA

### Fraideen espiritua

Fraideen kontua izan da *Jakin*, frantziskotarrena. Eskerrak. Herrietan sermoiak euskaraz ematen zituzten Francoren garaian, Leitzan, adibidez; jainko handia zero txikian bizi zela esaten zuen Alustitzak, Asiskoaren txirotasunari jarraitzen omen baitzion Jehovak, edo nik hori ulertu nion. Euskal Herria oin, tren eta autobus zaharrez ibilkatzen zuten, «habito» nabar ilunak soinean, sandalia beltzetan behatz zuriak hotzetik ezkututzen, eta burkaskoan tontsura. Mutiko muki-zuak Arantzazurako begizabaldurak, zakuan eta bizkarrean «kolegiarako puska» bildu, eta horrela, ahal zen modura, betetzen zituzten helburuak: ezagutza, fedea, auzolana eta, isilpeantzean, euskaltzaletasuna (Deustuko jesuitena, aldiz, negozioletasuna, Gotzon Garate eta euskal filologiara eta soziologiara bildu ziren beste batzuk salbuetsita; edo hori uste dut). Hori zen fraideen kontua, Arantzazukoena. Giro horretan jaio zen, agian, *Jakin* aldizkaria, eta giro horrek eman zion izaera eta taxua, berrogeitamar urteotan mantendu dena, aldatetak aldateta, nire aburuz behintzat.

*Jakin*-en asmo nagusia euskara eta kultura modernoa uzartzea izan zitekeen, baina barnetik zerion kristau fedea garden zihoan bokal eta kontsonanteen artean. Lehen aldian behintzat. Ez naiz ongi gogoratzen, baina seguru aski aldizkariaren ale batzuk eskuetan izan nituen 1962-1966 urteetan, Arantzazun galtzamotz eta ospelekin genbiltzala.

Gero, Franco hil ondoren, 1978-1980 urte aldera, Iruñean euskalgintzan lanean ari ginela (Arturo Kanpionen euskara irakatsi, Nafarroako AEK sortu, euskararen aldeko manifestaldiak egin karriketetan), Joan Mari Torrealdai-eta etorri zi-

tzaizkigun *Jakin*-en proiektu berritua eta auzolana eskaintzera. Zenbakitan esanda, Nafarroan aldizkarirako harpidedun berriak lortzea eta horiekin «sarea» egitea eskatu ziguten. Garai haietan bileritis gaitzak jota geunden arren, elkarretaratze gehiago egin eta harpidetza-batzorde bat eratu genuen. Birginia Gartzia, Arrosa Urrea eta nire euskara kla-seetako beste emakume batzuk bertan zeuden. Joan Mari Torrealdaik, bizar iraultzaileko fraide leuna oraindik, oker ez banago, harpidedunak egiteko talonarioak utzi zizkigun; badakizu, alde batean izen-abizenak eta bestean, beti, bankuaren kontu zenbakia, ahaztezina. Lanean jarri ginen eta harpidedun franko lortu genituen Iruñerrian. Horietatik asko euskaldunberriak ziren, *Jakin* irakurtzeko trebetasun nahikorik oraindik ez zutenak, baina aberria egin behar zen, gure kultura defendatu, eta euskara burmuinetan bor-bor eta pil-pil bizian jarri. 1979ko abenduan, 12. zenbakiarekin batera ohar bat igorri zigun aldizkariak, esaten, 1980an mila pezeta izanen zela urte osoko harpidetza eta errenboltso bitartez ez ordaintzea erregutzen ziguten, «18 pezetatik 40ra igo da eta, gainera, ez da zerbitzu segurua...». Garai hartako edukiak indartsuak ziren, Euskal Herriaren egoeraren parekoak: autonomi estatutua, nazio ukatuak Europan, elebitasunaren auzia ikastoletan, komunikabideak Euskal Herrian, Marxen gaurkotasuna, eta ezkerraren historia, besteak beste. Gainera, euskarazko hedabideen urritasunagatik, *Jakin*-en eragina handia zen euskaltzale eta kulturtzaleen artean.

Hurrengo hamarkadan, XX. mendeari amaiera eman behar zion 90ekoan, bizarrak moztu egin ziren, fraideak «ohi» bihurtu eta ezkondu, eta euskarazko komunikabideak ugaldtu. *Jakin*-en itzala ere murriztu zela uste dut. Garai berria zen, postmodernitatea. Zorionez, aldizkariaren arduradunek arantzazuar fraideen espiritua gordetzen zuten eta, profesionaltasun hobetuarekin batera, idazle berriak sartu zituzten, gai desberdinak landu, auzolana bultzatu, eta ardatz berean jarraitu: euskara eta kultura, denok dakigun modura.

Etorkizuna ez du erraza *Jakin*-ek, beharrezkoa den modura baita ordezkagarria; euskara eta kulturaren inguruko informazioa eta azterketa hainbat argitalpen periodikotan ere jaso baitaiteke gaur egun. «Teknologia berrietara» (deitura zaharra, beti gaurkotua) digitalizatuko da, euskarri berriekin zabalduko da, baina nago edukiak izanen direla bere indarra, erakargarritasuna; eta autoreak. Zer eskaini behar du eta nori zuzendua? Ez dira errazak erantzunak. Dibulgazio-argitalpenen eta aldizkari zientifiko lehorren artean toki meharra dagoela dirudi. Gai sendoak, gogoeta ausart eta kritikoa, oraindik ezagun ez diren subjektuetan entsegu berritzaileak... diseinu erakargarriarekin. Hor ikusten dut indartsu. Irakurle-riari dagokionez, irakurle gazteak lortzea garrantzitsua da, nola ez, betiko topiko eta betiko egia baita, baina hor harpidetzaren kostuak garrantzi handia du. Agian enpresa batzuek, babesle-publizitatearen truke, gazteen harpidetzak ordain litzakete.

Aurreko guztiarekin batera, aldizkariaren kudeaketan arantzazuar fraideen espiritua (goian dago?) garrantzitsutzat jotzen dut, ia fraiderik izan ez arren.

P. S. *Jakin*-ek 25 urte bete zituenean 33 galderako inkesta egin zuen. Galderek gaurkoak dirudite.¶





## MIKEL ZALBIDE

### Gogoeta xume bat edo beste

Barkatuko zait *Jakin*-en plan-ordena (aski arrazoizkoa) alde batera utzi eta, hainbatean, nire kontura hasten banaiz. Garbiago eta probetxuzkoago (batez ere irakurlearentzat argiago eta probetxuzkoago) iruditzen zait, ordea, gauzak burura etorri ahala eta etorri moduan azaltzea. Gatozen hari-ra, beraz.

### Ekarpenak

Unibertsitatean ikasle nintzela jakin nuen *Jakin* izeneko talde bat bazela eta euskal kulturaren alorrean lanean ari zela. Arantzazuko fraideak omen ziren: pertsona jantziak, mundu berriari begira jarriak eta dinamikoak. EKTen (*Euskal Kultur Taldeen*) garaia zen hura. Halako batean, Joseba Intxaustiren bisita izan genuen eskolan. Jende mordoxka bildu ginen, bere azalpen landua entzun genuen eta «zerbait egin behar genuela» erabaki. Euskararen (hizkuntzaren, kulturaren, «herriaren») alde lan egin nahi genuen gazteen-tzako erreferentzia landua eta erakargarria zekarren aurkezpen hark: aurkezpenak eta, oro har, haren inguruan sumatzen zen programazioak. Zenbait autotan *ikus, ikas, ekin: Jakin* eranskailua ezartzen hasi zen gazte-jendea. Geuk ere halaxe egin genuen etxean, gurasoen autoan. *Jakin*-en liburuak ere agertzen hasi ziren, aldiro-aldi: guztiak edo gehienak erosi nituen, eta interes biziz irakurri. Hori izan zen *Jakin*-ek nire bizian izandako lehen ekarpena.

Egia esan, «zerbait» egiten hasiak ginen ordurako gutako batzuk. *Elhuyar* lan-taldea lehenik, eta izen bereko aldizka-

ria gero, sortu genuen ikasle eta ikasle-ohi batzuek. Hori zen gure ekarpena; hartan sartzen genituen orduak, lortuz gindoazen jakite apurra eta handik edo hemendik eskuratzeko hasitako baliabidetxoak. Ez ginen *Jakin*-en mendeko taldea, baina gogoan genituen *Jakin*-en pausoak. Une batek aurrera, *Jakin*-ek kaleratutako *Euskara batua zertan den* liburua dokumentu inportantea bihurtu zitzaigun: euskara batuaren oinarri praktikotzat hartzen genuen. Arauzko hizkuntzaren erreferentzia fidagarria bihurtu zen horrela, gazte askotxorentzat, *Jakin*.

*Jakin*-ekiko harremanak estutu egin nituen handik gutxi-  
ra. Artikulugile moduan, lehenik. 1977 inguruan hasi nintzen, oker ez banago, *Jakin*-en idazten. Gauza xumeak ziren, inondik ere, baina garai hartako euskalgintzan «zerbait» iruditzen zitzaizkidanak. Jendaurreko idazkera lantzeko eta zabalkunde zabalxeagoko euskaltzale-esparruan sartzen has-  
teko bidea ere eskaini zidan beraz *Jakin*-ek, bere aldizkari-  
az. Ez nuen pauso handirik eman, halere, bide horretan barre-  
na. Beste aiheka batetik heldu nion, Joseba Intxaustiren gi-  
daritzapean, euskalgintzari. Hizkuntzaren modernizazio ter-  
minologikoaren aldetik. *Jakin*-ekiko (konkretuki, UZEIre-  
kiko) harremanik handiena 1978tik 1981era izan nuen, hiz-  
tegi teknikoak eta hartarako lexikologia-saio egituratua zi-  
rela medio. Norbaitek, eta arrazoiz, *Jakin* eta UZEI gauza bi  
direla esango dit, ez gauza bera. Hori bezain egia da, ordea,  
inoren ume izatekotan *Jakin*-en ume dela UZEI, sorburuko  
bere alderdi intelektualetik begiratuta. Horra, beraz, *Jakin*-en  
beste albo-ekarpen bat: kale-giroan nagusituz zihoan gizar-  
te moldean, euskarazko harreman-sare gazteetarako eta ida-  
tzizko zeregin formaletarako eredu landu eta teknifikatuago  
baten bilaketa- eta zabalkunde-saio antolatua. Urte biziak,  
gazi-gozoz beteak, izan ziren haiek. Mitxelenaren eta UZEI-  
ren arteko harremanak okertu eta, azkenik, era mingarrian  
lehertu zireneko urteak. Bide-banatze haren ondoriozko  
esamesak, norgehiagokak eta gaitzespenak ez ziren bereha-  
lakoan isildu. Egia esan, ez dakit batzuek eta besteok erabat

dijeritzera iritsi ere ginen inoiz. Hala izatera orain ere balegoke zer ikasia, norik geure esparrutik orduko esan-eginen ikustapen-saio kritikorik (hasteko, autokritikorik) egiteko prest bageunde. Nolanahi ere, *Jakin*-en itzalpean gertatu ziren orduko gorabehera haiek, halako neurri batean, eta datu hori ere kontuan hartu behar luke *Jakin*-en ekarpenez iritzi sendorik lortu nahi lukeenak.

Eusko Jaurlaritzan hasi nintzen gero lanean, Hezkuntza Sailean, eta urrunduz joan nintzen azken urteetako lan-gitortik: ezinbestean UZEItik, Gasteiza aldatu bainintzen erabat, eta *Jakin*-etik ere bai halako neurri batean. Lanez aldatzeak, apurka-apurka, giroz aldatzea ere ekarri zuen. Ez zen tartean, gogoan dudala, erabateko eten argirik gertatu, baina lanaren bestelakoak eta egoitza bien arteko tarte fisikoak, besteak beste, bere eragina izan zuten nire bizian.

Beti izan dut *Jakin* gogoan, eta beti aitortu izan diot halako leku seinalea euskal kulturaren esparruan. Nire ibilbide pertsonalean eta profesionalean ez du ordea, azken hogeita bost urtean, aurreko sei-zazpi urte «mundua jan beharreko» haietan bezalako eraginik izan. Hori zergatik? Motibo bategatik baino gehiagogatik. Hasteko, euskaltzale-giroan 1980 inguruan sortutako eten handiak bide banatara eramanez gintuelako. Konstituzioa eta Autonomia Estatutua eratu ondoko bilakaera instituzionalean, ibilbide berezia izan dugu hainbatean: maiz samar «ontzi banatan» ari izan gara arraunean, ustez uste gabe edo, maizago, jakinaren gainean. Ondotxoan leku gehiago beharko genuke (bai nik eta bai besteek) gertaera hori ganoraz esplikatzen, baina ezin da: horrela beharko du orain. Kontua, nolanahi ere, funtsezkoa da: euskalgintzaren bide bi osatuz joan ziren laurogeiko hamarkadaren hasieran eta UZEI-*Jakin* bikoteak, bere gogoan edo hartaraturik, autonomiarekin sortutako marko instituzional berrian txertagune zaila izan zuen hainbat urtez.

Beste motiborik ere izan da tartean, eta kasu honetan neu naiz arduradun bakar: corpus-plangintzaren, terminologia teknikoaren eta modernizazio lexikoaren azter-eremutik

urrundu egin izan naiz, hizkuntza-soziologiarenera hurbiltzearekin bat. Ez diot aurreko langintzari ezer kentzen: beharrezkoa da bere neurrian, apasionantea ere izan liteke hainbatean, eta ikasbide soziokultural askoren iturburu ere gerta dakiok hartan ari denari, zuhur jokatzuz. Nire interes pertsonala hizkuntzaren jendarteko erabilera alorrera hegaldatu da ordea, urteen joanean, eta behinolako aztergaiak (*Jakin*-en garai bateko batasun-eztabaidan eta UZEIren hasiera hartako saioretan aski arrazoiz zentraltasun nabarmena zutenak) bigarren plano batera paseak ditut. Ez dago horretan inolako gaitzespenik, bai ordea hizkuntzaren egungo bizinahia eta bizi-ezina nagusiki beste esparru batean jokatzeko ari deneko konbentzimendu gero eta sendoagoa. *Jakin*-ek hizkuntza-soziologiaren esparru hori bere aztergune nagusi ez duenez (are gehiago, gero eta beste esparru soziokulturaletan zentratuagotu denez), *Jakin*-en kulturgintzatik gero eta urrunduago geratu izan naiz.

### **Aurrera begira zer**

Lotsa ere ematen dit, inoren etxean horrela sartzeak. Irakurle naizen aldetik, eta aspaldi bateko lankidetza estuak hartarako aukera ematen duelakoan, ohar pare bat egingo nuke:

Dozena-erdi bat pertsona (lauzpabost gizonezko eta emakumezko bi, besteak beste) izan dira luzaz («nire garaiko» *Jakin*-ez jardutea zilegi balekit) aldizkariaren eta argitaldarien bihotz eta hauspo. Horien inguruan, era kontzentrikoan nahi bada, jakin-idazleen eta jakin-irakurleen multzoak eratu izan dira: ehunka batzuetakoa lehenengoa, agian, eta milaka batzuetakoa bigarrena.

Zer transmisio-bide, eta zer transmisio-indar, dauka *Jakin*-ek aurrera begira? Gazteenak izan ginen guztiok, eta *Jakin* ere arau horren mende dago. Hamarkada osoz ernaldutako mundu-ikuskerak bat, euskaldun izatearen eta euskal jatorritasun-markak gizarte berriaren beharretara egokitu be-

harraren inguruan eraikitakoa, zer neurritan da bospasei burmuinen herentzia mugatu, eta zer neurritan gizatalde zabalagoen komuneko ondare? Gauza batzuetan, agerikoenetan eta deigarrienetan, *Jakin*-en mundu-ikuskerak erro zabalak dituela uste dut: erro horietatik elikatu da etengabe, mende erdiz; erro horiek sustraitzen, sakontzen eta gotortzen saiatu ere da bitarte horretan. Oraingo sei-zazpiak falta izanik ere, ikusmolde horrek hor jarraituko duela uste dut, multzo zabalagoetan, beste belaunaldi batez bederen. *Jakin*-ek bere-berea duen hainbat ezaugarri xehe, aldiz, aski pertsonalak eta elaboratuak direla uste dut eta, horrenbestez, funtsaren funtsean errepikagaitzak.

Euskal protoelite intelektual baten erakusle da *Jakin*. Gerra ondoko ukazio-girorik gordinenean sortutako «would-be elite» edo protoelite euskaltzale baten erakusle sendoa. Elizaren gidaritza ideologikoak gure artean azken mende erdian izan duen gainbehera biziaren erdian bere gibel-erraietatik sortutako formulazio berezia, nekez beste koordinatuetan (gurea bezalako hiztun-herri txiki ahulduetan, Espainian edo Europan) erraz topa litekeena. Beste hainbat protoeliteren moduan, lanaren gogorra eta fedearen sendoa bere alde izan ditu, inork gutxik izan dituen neurrian. Buru-lanketaren testigantza ugaria ere bai. Bestalde, indartuz joan den *establishment* intelektual berrian (hobe: zaharberrituan) eroso txertatzeko muga-eragozpenak ere aski nabariak izan ditu luzaz. Azterkizun dago, zer neurritan izan den *off-sider* lan hori berak aukeratua, bestek ezarria edota ustez uste gabean halaxe etorria. Denetik dagoela tartean, esango nuke nik.

Zertan zentratu behar luke, aurrera begira? Bere inguruan (inoiz bere laguntza sendoaz) sortuz joan diren hedabideen arrakasta(txoa)ren gatibu da, halako neurri batean, *Jakin* aldizkaria. Euskarazko komunikabideen alde saiatu izan delarik maiz, egungo zenbait euskal mediok lehiaketa gogorra dakarkiot: *Berria* edo *Argia* modukoek batetik, eta *erabili.com*, *Hik Hasi* edo *Bat* modukoek bestetik, zaildu egin dute bere jarduna. Unibertsitate esparruan sortuz joan diren argital-

penek are zailagotu egin dute bere garapen-bidea. Aurreko horiek hor segituko dute, itxuraz, eta marko berri horretara egokitzen jakitea ez du erraza izango *Jakin*-ek. Egin behar du, ordea, bizirik aterako bada.

Gogoia eta borondatea baino zerbait gehiago beharko da horretarako. Ea suertea duen. Mende-erdiko ibilera editorial batek (eta horren oinarrian dagoen gizataldeak) errespetua eta begiramena zor du, bere bilaketa intelektualean. Ibilera horretan Orixe, Mitxelena, Santamaria, Aresti, eta oraindik bizirik dauden euskarazko idazle eta pentsalari asko (agian gehienak) partaide izan direnean, begiramen horri esker oneko aitormena ere erantsi behar diogu, begitar-te arraiz. Hala egiten diot nik, apalik.¶



## AITOR ZUBEROGOITIA

**1** ● Niri *Jakin*-ek institutu garaiak gogorarazten dizkit, eta, horrekin batera, aurkikuntza garrantzitsu bat. Ordura arte, esan bai, esango genuen euskara gainerako hizkuntzen parean zegoela, haiek beste zela, baina gero, nago inkontzienteki ez ote geneukan barneratu samar beste uste bat: hau da, euskarak balio sentimental-sinboliko itzela zeukala baina gaztelania zela benetan bazterrotako literatura- eta pentsamendu-hizkuntza. Eta begitantzen zait hori pentsatzen (ezen ez esaten) genuela, besteak beste, gure haurtzaroko irakurketa gehienak (hasi *Los Cinco*, *Los Tres Investigadores*, Verne, Salgari eta enparauetatik eta Baroja eta Unamunora arte) gaztelaniaz zeudelako, eta euskaraz argitaratzen hasiak zirenek (*Osaba Tom-en etxola*, *Pirataren espedizioa* eta beste zenbait) asetzen ez gintuztelako (ez dakit gure ohitura falta ala euskarazko itzulpenen tradizio urria ala biak batera ote ziren arazoaren giltza, baina kontua da testu haiek oraindik ortopedikoegi egiten zitzaizkigula, maizegi trabatzen zirela gure begiak lerro haietan).

Haatik, behin institutu garaian, liburu berriak sartzen hasi ziren herriko liburutegian, eta, euroi esker, adiskidetzen hasi ginen euskarazko testuekin, bai hizkuntzari zein gaiei zegokienean haize berriak sumatzen genituelako (*Marinel zaharrak*, *Obabakoak*, *Kcappo...*), eta baita eskuetara zetozkigun itzulpenak ere (geu geunden ohituago apika, edo itzul-tzaileen trebetasuna zen areagotzen ari zena, edo gauza biak batera ziurrenik) gustura irakurtzen hasiak ginelako (*1.280 arima*, *Ez adiorik...*).

Eta hartan, beste aurkikuntza bat ere egin genuen Markina-Xemeingo liburutegiko bazter batean: *Jakin* izeneko li-

buru-tankerako aldizkari baten zenbaki mordoa zegoen han; haiei begira hasi eta beste gauza batez konturatu ginen: erreferentzia-sistema propio bat zegoen han, euskara eta beronen lurraldea alfa eta omegatzat hartzen zituen sistema bat, munduari euskaraz begiratzeko, mundua euskaraz oldozteko era bat, mundu oso bat ohiko klabe iberikoetatik landa, beste ahots batzuk, beste erregistro batzuk, beste iturri batzuk baliatzen zituen. Hizkuntza-komunitate oso baten memoria historikoa, beronen ibilbide intelektuala zen han jasota zegoena (gerora, doktorego tesia osatzen ari nintzen garaietan, sarritan egiaztatu ahal izan nuen moduan, maiz edan bainuen *Jakin*-eko artikuluetatik).

Gerora, halaber, Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*-i irakurri nion hizkuntza batek, bizi ahal izateko, bere esparru sinbolikoa behar duela. Zer adierazi gura zuen, ordea, *esparru sinbolikoaz* mintzo zenean? Horretarako, lehenengo eta behin, hizkuntza ororen praktikan bi mutur bereiztu zituen berak: batetik, hizkuntzaren erabilera mekanikoa, gizarteak berak baldintzaturikoa (berori zen, Txepetxen esanetan, hizkuntzaren funtziorik periferikoena); bestetik, *sense*-aren mintzoa, zentzuaren lengoaia, arrazoiketarena, sormen intelektualarena (haren ustez, hizkuntzaren funtziorik barne-barnekoena, funtzio nuklearra).

Egile horren irudiko, zentzuaren, sormenaren, arrazoiketaren mintzaira horren muinera biltzen diren hiztunek osatzen dute hizkuntzaren esparru sinbolikoa; esparru horri ezinbesteko, funtsezko irizten zion hizkuntzaren bizitzarako, beronen osasun-egoeraren ondorio zirelako haren sendotasun ala ahulezia-uneak. Esparru sinbolikoa sasoiko, indartsu bazegoen, euren mundua une oro interpretatzen eta berraurkitzen lagunduko zien hizkuntza horretako hiztun kontzientziadunenei, eta, bidenabar, arrazoi horrexegatik beragatik haien hizkuntzarekiko atxikimendua hazi egingo zen (hizkuntza, euren egunerokotasuna eta nortasuna bera definitzeko tresna baliagarri izango litzatekeelako); horrez gain, kanpoaldeko espazioetan kokatutako hiztunen hiz-



kuntzarekiko atxikimenduak ere gora egingo zuen, zeharka bazen ere, eurak ere esparru sinbolikotik bazkatzen zirelako; baina hori bai, han larre ganorazkorik aurkitu ezean, beste hizkuntza baten pentzeetara joko lukete bazka bila.

Horra, hortaz, hizkuntzaren esparru sinbolikoaren garrantzia: zenbat eta trinkoago izan berau, orduan eta biziago hizkuntza bera. Zenbat eta jende gehiagok baliatu hizkuntza hori bere sormena gauzatzeko, bere ingurua interpretatzeko, eta zenbat eta jatorragoa, originalagoa izan sormen- eta interpretazio-lan hori, hainbat eta ordezkaezinago da hizkuntza berau baliatuta gogoetan dabiltzan subjektuentzat.

Horra, beraz, zein izan den nire iritziz *Jakin*-en 50 urteotako ekarpen nagusia: hizkuntzaren esparru sinboliko hori elikatzen, trinkotzen eta une oro biziberritzen lagundu izana.

**2.** Nik eskatuko nioke ausart jokatzeko; eskatuko nioke, beraz, alderdi politiko eta erakundeekiko independenziari eusteko, ez izateko beldurrik jendarteko gai minberei heltzeko (sutara egur gehiago bota barik baina korapiloak askatzen laguntzeko borondatez) eta baita, euskalgintzako zein gure jendarteko ikuspegi ofizial eta hedatuenetara beste barik makurtu gabe, ahalik eta ikuspegiarik zabalena eskaintzeko.¶